PABLO SASTRE

Itzalaren ertzean

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1996 Pablo Sastre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1996ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Ez ote zekien

Lehenago euren etxera joan izan nintzenean, iruditzen zitzaidan Kattik ez zidala behin ere begiratzen; iruditzen zitzaidan neska bere munduan, familiatik eta inguratzen zuten beste gainerakoetatik aparte bizi zela. Normalean ezer gutxi esaten zuen, igandeko bazkalondoko solasaldietan ere nahikoa isilik egoten zen bera.

Eta horixe zen nik beragan maite nuena: bere indiferentzia, bere laxotasuna. Alabaina, otordu guztietan, etxeko lege ixilari jarraiki norbere tokian, Katti eta biok parez pare jarrita egoten ginen. Eta, nire egun haietako begiratze laburretan, haren fisikoaren detaile batzuk apreziatzeko denbora izan nuen. Haren ile beltz leunak, haren sudur xanpatu samarra, haren aho handia, nahiz ezer gutxi esan, gehienetan, ez-ajolaz bezala, erdi-zabalik izaten zuena...

Askotan arropa ber haiekin gogoratzen dut: jertse beltz fina, azpian ezer gabe edo zeinahi kamisetaren gainean jazten zuena, eta galtza bakero urdinak edo, uda hartan, etxe inguruan

zebilela, kirol galtza motz beltzak... Eta bera ez zen nire begiradaz ohartzen; eta hala ere, disimuloz begiratzen nion, ez baitzidan zuzenean begiratzeko okasiorik ematen, eta berak ere agian...

Isabelek eta Kattik bazuten anaia zaharrago bat, oraindik etxean bizi zena: Martzel, eta aita eta ama zahartzen hasiak, baina lan egiteko sasoi ederrean oraindik. Aita-semeak Garazi aldeko garraio enpresa batean lan egiten zuten, Isabelek berriz Baionan normalean, baina uda hartan Alpeak aldera bidali zuten. Ama berriz, egunero etxetik kanpo ordu batzuk eginagatik (herrian bertan, beste etxe batean bizi zen bere ama xaharrari laguntzera joaten zitzaion), bera zen etxeko martxa zeramana. Gure laguntzarekin, esan litekeena... Baina ez genuen, egia esateko, Kattik eta biok sobera laguntzen. Katti halakoa baitzen: lasaia, mantsoa, goizean ohean egon eta arratsaldean bueltaren bat egin eta... nahikoa. Nik, Katti eta amaren artean nolabaiteko oreka bilatu nuen: goizean etxean, lasai, edo mendi aldera paseoren bat egingo nuen... Arratsalde gehienetan berriz, edo Kattirekin edo

beste lagun batzurekin edo bakarrik, kanpora joaten nintzen, edo bestela etxeko baratzan, ordu batzuk ematen nituen.

Gutxi-aski guztiok aritzen ginen zertan edo hartan, Katti izan ezik. Kattiri bazihoakion, bazirudien joan zekion uzten zuela, emeki, bizitza. Noski oporretan zegoen baina bestela ere, Bordelen, unibertsitatean zela ere, ez nuen nik bestela imajinatzen. Neska bat zen, bizitzan egin behar izaten diren gauza gutxienekoak, eta kapritxo batzuk, egiten zituena: jan, lo, garbiketak egin, eguzkitan egon, herrira itzuliren bat, besteen haserrea ez sobera eragiteko lan ttiki batzuk... Bere bizitzan zerbait gertatzeko zain balego bezala egoten zen. Berak ez baitzuen ezer bilatzeko indarrik, ez baitzuen ezer eskatzeko kemenik. Zain. Norbaiten zain noski (horixe, nire irudipena), berak ez baldin bazekien, inolaz ere adierazten ez baldin bazuen ere.

Uda hartan ni, haien etxean aste bat pasatu eta gero, iaia beraien familiakoa sentitzen nintzen. Hala nintzela adierazten zidaten noski, eguneroko tratuan. Nire bizitzari buruz sobera galderarik egin gabe inoiz. Naturalki, Isabelen

mutila nintzelako onartu ninduten. Isabelek esana zien, Baionan izan nituela hala-halako problemak, eta horregatik eta (printzipioz, seguraski, beste ezer gertatzen ez bazen) aste batzuk, uda gehienez ere, igarotzeko nihoala.

Baziren hiru urte Lapurdira, herritik ihes egin nuela, eta urtebete aurki Isabel ezagutu nuela Baionan. Geroztik hura «nire neska» zen. Herriraino joan gabe, astean Baionan gelditu behar bazuen (Isabelek haur atzeratuekin, bertako eskola batean lan egiten zuen) gure etxean egiten zuen lo, asteburuetan beti egiten genuen biok mendi bueltaren bat edo haren etxera joan edo... Horregatik, udan bakarrik joan nintzenean, oso erraz pasatu zen dena.

Ordura arte ni, beste hiru errefuxiaturekin, Baionako pisu batean bizi izan nintzen. Aspalditxo hartan pisua kontrolatuta zegoela susmoa genuen, eta beldur ginen polizia espainolak gure kontra zerbait egitekotan ote zebiltzan. Horregatik esan zidan Isabelek, nahi baldin banuen, bere etxera joateko; uda hartan, bera etxean egongo ez baldin bazen ere, izan ere haur-talde batekin, Grenoble inguruko udaleku batera bidali zuten.

Niretzat, esan beharrik ez dago, okasio ederra zen. Eta ez zen bakarrik poliziaren edo atentatuen beldurra. Errefuxiatuok edo, hobeto esanda, errefuxiatu asko, dinamika txar batean sartuta geunden. Gehiegi izaki eta, kostaldeko herri haietan pila-pila eginda, sarritan zer egin ez genekiela genbiltzan.

Banuen hala ere beldur pixka bat, Isabelen etxera joanda. Beldurra beraiengatik, ni euren etxean hartuta, ustekabean, dinamika gaizto batean sar zitezkeelako: poliziarekin arazoak, eta abar. Eta neuregatik ere beldur ttantta bat: lehendik zerbait ezagutu arren, ez bainekien Isabel gabe familiako besteekin ongi moldatuko nintzen...

Baina, esan dudan bezala, gauzak ongi pasatu ziren. Nik normalean ama edo Kattirekin izaten nuen harremana, eta haiekin hasiera-hasieratik oso poliki trebatu nintzen –baina guztiok elkarrekin egoten ginen tarteetan ere: ia egunero afaritan, eta igandeetan, bazkari denboran ere, ederki moldatzen ginen.

Kattirekin berriz... Bon egia da, niretzat oso presente izan zela beti hura Isabelen ahizpa

zela. Eta, esan daiteke ba, horrek gu bion arteko harremana aski mugatu zuela. Zu hor eta ni hemen, bakoitzak bere tokia. Ez zitzaidan niri (lehenbiziko bi aste haietan behinik behin), ez zitzaion nik uste berari ere, burutik pasatu, bion artean ezer gerta zitekeenik. Eta hala ere... ezer esan gabe, iaia begiratu gabe niri, bere jarreraz... ez al zitzaidan zer-edo-zer eskatzen ari...? Kasu egin niezaion edo... Edo nire irudipena zen!

Ikusi ninduela edo behintzat, neure detaileei begiratzen ziela lehenbiziko seinalea etxean hamar-hamabost egun neramala eman zidan Kattik. Bazkalondoan, nik ohi bezala zigarriloa hartu eta, metxeroa txamarran, eta txamarra nire gelan (Isabelenean) utzi nuela ohartu nintzen. Eta bat-batean, eskatu gabe, Katti jaiki zen eta, sutondoan zegoen poxpolo-kaja hartu eta, atzera jarrita, berak poxpoloa piztu zuen eta lasai-lasai nire zigarrilora hurbildu. Gogoan dut ze, momentu hartan detaile hark biziki inpresionatu ninduen. Berak egin zuelako noski. Niretzat poxpolo harekin, Kattik esaten zidan: «Aprezia-tzen ditut zure begiradak. Torizu sua... Nik ere maite zaitut». Seguru nago, Martzel eta guraso-

ak ez zirela ohartu, baina niretzat, poxpolo harekin hasi zen gure historia. Gure uda hartako historia.

Bigarren asteko eguerdi batean Baionako lagunek telefonoz hots egin zidaten. Gauean, Uztaritzeko ostatu batean gelditu ginen. Ezaguna genuen ostatu hura, inoiz inguruko pilotalekuren batean partidu bat egin eta gero bertan panaxe bana hartu izan genuelako. Egun haietan herriko bestak ziren, gainera.

Bazkalondoan, ama sukaldean zela, Katti eta biok etxeko terrazan, belarra biltzen ari ziren auzo batzuri begira, halako batean galdetu nion: «Zer egingo duzu arratsean?» eta Kattik: «Ez dakit», esan zidan, eta nik: «Uztaritzen lagun batzurekin gelditu naiz, nahi baduzu etorri», eta Kattik: «Nongo lagunak?» Eta nik: «Baionan bizi direnak», esan nion. «Bestaldekoak?» galdetu zidan Kattik. «Hala dira, bai, esan nion nik, eta duda egiten zuela ikusiz: Isabelen ezagunak dira», erantsi nuen. Agian azken datu horrexen

zain zegoen baietz esateko. «Ongi da... joanen naiz», esan zidan ba.

Gurasoek ongi hartu zuten gauean Katti nirekin etortzea. Bestela ez baitzen neska etxetik irtengo, eta utzikeria hartan ikusita kezkatuxe zeuden. Nirekin bestalde, seguru ibiliko zen. Bazuten, ba, konfiantza nirekin. Noski, bazuten izatea. Ez gindoazen ezer egitera-ta. Bagenekien zein zen bakoitzaren tokia –gutxi gorabehera. Bagenekien ere lotzen gintuen hark, Isabelek, berak berexten gintuela.

Uztaritzen lagunek bazuten albiste txar bat emateko niri. Aurreko goizaldean, esan zidaten, poliziak Baionako gure etxean izan ziren. Han zen lagun bat: G., atxilotu zuten, bazterrak miatu zituzten, eta nagusiari (etxeko nagusia, gure azpi-azpian bizi zen-eta) esan omen zioten, etxera inor sartzen ikusiz gero, emateko beraiei abisu. Nagusiak (gure aldeko samarra zen-eta) abisua, beste inori ez baina, gure jendeari pasatu ziola, eta hala ere, lehenbailehen, han genituen gauzak eramateko, eskatzen zigun. Zeina (gauzen eramatea) neuk egin beharko nuen, esan zidaten lagunek, etxean ginen haietarik pa-

perak nituen bakarra neu nintzen-eta. Lagun haiek beraz, etxe bateko giltzak eman zizkidaten: «Bidarten, badakik non den», esan zidaten. Ahalik eta azkarren, nire eta besteen gauzak eramateko hara.

Kattiri nik uste, ez zitzaizkion nire lagunak sobera gustatu. Beraietako batek esan zuenagatik izango zen noski. Ez zen-eta batere diskretoa, hura. Heldu ginelarik ostatura, «zein da, neska polit hau?» galdetu zuen, irri handi batekin, eta nik: «Isabelen ahizpa», esan nion, eta berak, Kattiri begira, baina bigantxa bati begira balego bezala (ez intentzio txarrean, baizik eta, ez baitzekien neskak ibiltzen, eta hala ere ez zen batere xepeltzen): «Ederra, ederra zagok...» Horregatik, diot, gu honetaz eta hartaz hasi ginenerako Katti, bere birra hartuta gugandik aldendu eta, pixka batean ostatuko ate ondoan egon zen kanpora begira, eta gero plazara, dantza egitera joan zen.

Berehala (ikusten nuen nik, ostatu barrenetik, barraren kontra, zerbeza edaten nire bi lagunekin) Kattik bere mundu bat egin zuen hantxe. Inora begira, besoak apenas altxatu gabe, gozo-

gozo dantza egiten zuen. Hasieran iruditu zitzaidan, triste samar ote zegoen, baina gero, bere ezagun batzuk, neska-mutil batzuk hurbildu zitzaizkionean oso animatuta jardun zuen haiekin hizketan, bastante denboran. Gero baina, haiek ere joan zitezen utzi zuen, eta bakarrik segitu zuen dantzan. Bere buruarekin ari zen, eta gustora. Ez zuen inoren konpainiarik eskatzen; geroxeago mutil bat, ikusi nuen (guapo xamarra, gainera), elkarrekin dantza egiteko eskatu zion eta Kattik, irribarre batekin, buruaz ezezko xinple bat eginez uxatu zuen. Ez zuen ezer eskatzen –uste dut ni horrexek kitzikatu ninduela... Eta, nik bistatik sobera galtzen ez banuen, berak ere begiratu egin zidan niri, noizik eta behin. Han ote nintzen, segurtatzeko bezala. Eta bera han zela, lasaitzeko ni. Elkarrekin ginela, esateko ba.

Guk ostatutik atera gabe beste zerbeza bana edan genuen, mugaz bestaldeko gorabeherak komentatu genituen (beti izaten zen zer-edo-zer, eta uda hartan Tupa eta Otaegiren prozesua zela-ta gauzak oso bero zeuden). Gero bi lagunok, joan egin behar zutela-ta, hantxe utzi ninduten, ostatuko atarian.

Kattiri begira gelditu nintzen. Eta, nik uste hilabete batzuk lehenago ezagutu nuenetik estraineko aldiz, bere gorpuzkeran fijatu nintzen. Oso ongi oroitzen naiz galtza bakero urdin haiek eta (egun hartan) niki berde bat zeramala (gau epela egiten zuen-eta, furgonetan utzi zuen txamarra). Bere ahizpa bezala, Katti argala zen, eta ibiltzen-eta trakets-antxa ere bai. Altu xamarra, ba. Gainerantzean, forma handirik ez: ez zuen bularrik apenas, hala ere ipurdi ttiki baina irten samar, borobil, oso ongi egindakoa zuen.

Kattik, ikusiagatik bakarrik gelditu nintzela, pixka batean dantzan segitu zuen (gero galdetu nion, ea ezagunak al zituen, berarekin dantzan ari zirenak; eta ezetz esan zidan; dena den haiekin oso poliki enroilatuta zegoen). Nik uste dut momentu hartan ohartu nintzela, izan nuela nolabaiteko kontzientzia, gure artean zerbait gertatzen ari zela. Eta nik uste, bera ere ohartu egin zela zerbait. Edo behintzat, ohartu egin zen neure begiradaz. Desio ote ninduen, ordurako berak? Ez dakit... Geroxeago behintzat, nigana etorri zen eta frentez frente niri begira: «Zer, asperturik?» galdetu zidan, eta nik: «Ez, zuri begi-

ra nintzen...» Eta berak: «Zuk, ez al duzu dantzan egin behar?» «Ez dakit-eta!» esan nion nik, eta berak orduan, barre-doinu alaian: «Zer egiten dakizu ba...?» Begiratu egin nion eta: «Beste gauza batzuk», esan nion, eta hori esan nionean, bera lotsa-antxetu egin zen, eta gero jendez beteta zegoen ostatu txikiago batera joan ginen, eta bertan... Ze: bi orduz, hiru orduz, aritu ginen? Ez genion erlojuari begiratu, ez genion batak besteari etxera joateko hitzik esan. Ongi izan ginen, bion ala biok. Ez genuen, egun hartara arte, aparteko solasik egin, ez genizkion batak besteari geure sentimentuak erakutsi. Eta pozik ikusi nuen Katti. Agian, pentsatu nuen, lehenago ikusi zituen lagun haien artean, bere gustoko mutilen bat izango zen, ba. Ez zegoen, hala ere, nirekin zegoela, beste inori begira. Ez ni ere, noski: han izan ginen denboran, bata bestearentzat izandu ginen. Zertaz aritu ginen, ez naiz gogoratzen. Badakit azaleko, baina aldi berean guretzat oso inportanteak ziren gauzez mintzatu ginela. Gauza xinpleak, baina edonorekin aipatzen ez direnak; edo ez modu hartara behinik behin. Agian, mintzatzeagatik mintzatu ginen,

edo zehazkiago esanda: bata bestearen ahotsa aditzeagatik. Jolasean bezala. Inoiz Isabelek ezartzen zigun muga hura urratu gabe. Oso ongi genekien, eta beti jakin genuen biok, nahiz eta besterik sentitu, muga hura ezin urratu genezakeela. Alabaina, ohartu gaberik, gau hartan elkar biziki berotu genuen. Ni behinik behin bero-bero nengoen, eta uste dut Katti ere halaxe zegoela. Bazen, izan zen gau hartatik aurrera zerbait gure artean, guk biok bakarrik genekiena, oso fuerte lotuko gintuena. Bizpahiru birra edan genituen. Behin edo behin, solasari utzi eta, barraren kontra apoiatuta biok, elkarri luze eta lasai begiratu genion... Ez ote zekien Kattik, horrek zer esan nahi zuen...?

Halako batean, gogorazio bat izan nuen: Baionatik Bidartera etxe-aldatzeko lanak orduantxe, guk biok egingo genituen. Eta bai esan ere: «Joango al gara Baionara...?» Zertara, eta –azaldu nion: nola lehengo etxea hustu behar genuen, eta nola bertan ziren traste eta zera guztiak beste etxe batera eraman behar genituen.

Ez nuen noski, lan hura egiteko hartarainoko presarik: biharamunean, nik neuk bakarrik edo beste lagunen batekin, banuen lasai asko egitea. Baina, Kattiri esan nion, eta Kattik: «Goazen», esan zidan.

Bazen operazio hartan arrisku pittin bat hala ere, poliziak atzemanez gero ez gintuzten gendarmerian galdera batzuk egin gabe utziko, eta nire aldetik, arduragabekeria zen Kattirekiko eta bere ardura utzi zidaten bere gurasoekiko. Ordea, nik orduan ez nuen horrelakorik pentsatu; edo, pentsatu banuen, pentsamentu hura berehala uxatu nuen. Nik nahi nuena zen, gau hura luzatzea, Kattirekin segitzeko. Eta bazen alde hartatik ere, eta polizien aldetik baino areago seguru, nolabaiteko arriskua. Baina neukan jakinmina, arrisku sentsazio hura baino indartsuagoa zen. Eta jakin nahi nuena zen, Katti eta biok, gau hartan, eta bide samur hartan, nora heltzeko gauza izango ginen.

Arazorik gabe aritu ginen. Baziren Baionako etxean hainbat arropa, hainbat poltsa eta liburu, baita butanozko estufa bat eta atxilotu zuten G. haren igeltseritzako tresnak. Hala ere, bospasei

joan eta etorri aski izan genituen, hango gure gauza gehienak, edo interesanteak iruditu zitzaizkigunak, furgonetan sartzeko. Auzoren batek somatu bazigun, lapurrak edo malaparteko jendea ginela pentsatuko zuen baina, behinik behin ez zen poliziarik azaldu.

Bidartera ere arazorik gabe iritsi ginen. Hara bidean (orduan ohitura genuenez), inork jarraitzen ote zigun, furgonetarekin maniobra pare bat egin nuen, ederki ezagutzen nituen bide mehar haietan itzuli batzuk... Ni karreteran zentratuta nenbilela, normala denez, hitz gutxiago egiten nuen. Katti berriz, umore onean zegoen. Begi bistan zen abentura hark, gau ero samar hark, eszitatu egiten zuela.

Furgoneta Bidarten deskargatu eta gero, oraindik kostako errepidean ginela, Katti burua kristalaren kontra jarrita, lo gelditu zen. Gogoratzen naiz Leonard Cohenen kaseta jarrita neukala.

Ni orduan, Kattik erosoago lo egiteko, bere jarlekua pittin bat etzan eta atzeko jarlekuan neukan manta ttikia hari paratzeko gainean, bide bazterreko aparkaleku txiki horietako ba-

tean gelditu nintzen. Jarlekua etzan, manta ttikiarekin tapatu... Eta orduan, haren aurpegi gorrixta, aurpegi polit hura ikusirik, eskuaz goxogoxo masaila laztandu nion. Eta Kattik: «Hmm», gaitzetsi zidan; eta nik eskua erretiratu eta: «Ondo lo egin», esan nion.

Berehala berriz, furgoneta arrankatu gabe, neure pentsamentuak: «Hmm» horrekin, zer esan nahi izan dit? Uzteko ala... gehiago nahi duela? Beroak nengoen. Leihatila jaitsi nuen, kasetaren bolumena apaldu eta begiak apur batez itxi nituen.

Nire ondoan, maite nuen neska bat zegoen. Hala ere bazirudien, nire nobiaren ahizpa zelako, bera ukitzea debekatuta neukala. Baina han zegoen, erdi etzanik, aurpegia nire aldera itzulita... Heldu ala utzi, ez nekien zer egin. Konprenitzen nuen, helduz gero, nahi izanez gero nire beso artean, nire azpian hartu, indarra erabili beharko nuela, momentu batean behinik behin. Eta ez nekien, gero hartaz damutuko nintzenez. Begiak ireki nituen, begiratu nion. Aurpegia inguratzen zioten ile-xerlo beltzek deziditu ninduten. Neure ezker eskuaz, lepoa heldu nion... «Manu», pro-

testa egin zuen, orain nabariago, Kattik, eta beste aldera itzuli zen. Orduan mantapetik, galtza bakeroez estalita, haren ipurdia azaldu zitzaidan... Begirada handik aldendu, furgoneta martxan jarri nuen. Ez, konprenitu nuen: ez zen komeni, gau hartan.

Ez dakit ze ordutan ailegatu ginen etxera. Egunsentia izateko ere ez zuen asko faltako. Eta nik gau hartan, nire ohean (esan dudan bezala Isabelen gelan egiten nuen lo) amets egin nuen Katti eta biok, gelan ohe-estalki bat tolesten ari eta, biok lurrera erorita, nahas-mahas jolas egiten genuela...

Goizean esnatu nintzenean, gauean urruntxoegi joan nintzela, konturatu nintzen. Ez nuen damu egina, ez nintzen lotsa ere: zintzo jokatu bainuen, eta hala ere... Kattiren erreakzioaren beldur nintzen. Ez al zuen behintzat etxean ezer esango...

Eguerdian, sukaldera joan nintzenerako, Katti jaikita zegoen. Isilik gosaldu nuen. Gosaldu eta gero, kanpoan eguzkia zela-ta, mangerarekin dutxa bat hartzeko proposatu zidan.

Etxe pareko zelaian dutxatu ginen. Pozik zegoen Katti, eta ni ere pozik nengoen, bera hala ikusita. Orain bagenuen... sekretu bat, biok.

Gau hura eta gero, ohiko martxan segitu genuen: Katti zer-edo-zer ikasten (lehenago ez dut esan, Bordelen medizina ikasten eta uda amaierarako bi azterketa prestatzen ari zela), ni berriz irakurtzen (oso ongi gogoratzen naiz, Kattiren etxean, lagun batek utzi zidan Chessman-en «Celda 2455» irakurri nuela), edo mendira bueltaren bat edo... Nahiz eta Katti eta bion artean lokarri fuerte bat izan, bakoitzaren izakeragatik, bata bestearengandik oso independiente izaten segitu genuen.

Dena hain azkar gertatu zen: uda hartan zehar. Batzutan iruditzen zait, urteetako harremana izan genuela. Hain lagun izan ginen, hainbeste ordu konpartitu genuen... Eta hala ere ezin dut esan, Katti ongi ezagutzera iritsi nintzenik. Egia esateko, ez dakit oso ongi zer sentitzen zuen berak (ez geure harremanari buruz, ez bestela ere). Bai, asko hitz egiten genuen; eta egia

da, hizketaldi haietan sentimentuz hustu egiten ginela, gauzarik sinpleenez mintzatu arren elkarri genuen guztia ematen geniola: solasaldi sinple haiekin berotzen, adiskidetzen ginen; baina, bazuen berak halakoxe... misterioa; nik banekien misterio hark, lotsa antzeko edo zena zelako hark, ematen zuena baino xinpleagoa behar zuela, baina hala ere ezin izan nuen erabat atziki... Noski, misterio hura bera zen Kattirekin, sotil-sotil bada ere, saiatzen segitzeko kitzikatzen ninduena –eta bera da, oraindik ere, izan ditudan (hola deitzearren) neska-lagunetan, Katti agian partikularrena izan zela sentiarazten didana.

Hurrengo egunetan ez genuen ezer berezirik egin. Bi-hiru egunetik behin Isabelek Grenobletik deitzen zigun, eta amarekin eta gero nirekin mintzatzen zen, eta elkarri kontu batzuk esaten genizkion... Ez maitasun konturik, noski: ez Isabel, ez neu, ginen gauza, telefonoz horrelakorik aipatzeko... Dena den, dei bakan haiek eta gero triste antxean edo (nola esan?) Isabelekin egon nahian gelditzen banintzen ere, egia da gero berehala, Kattik ezer galdetuta edo, ez dakit ba,

biok edozertaz hizketan hasita, berehala ahaztu egiten zitzaidala...

Kattiren inguruan bizi nintzen-eta; geroz eta gehiago, nire pozaren edo nire tristuraren neurria, bera besterik ez zen... Bere liburuekin sukaldean aritzen zenez gero, ikasteaz nekatzen hasten zela antzematen banion: «Bordaxurira joango gara?» galdetuko nion (Bordaxuri, hango mendi kasko batean zegoen txabola bat zen). Eta bazekien berak (uste dut, ia seguru nago), zer gertatzen ari zen. Bazekien, maite egiten nuela! Eta nik banekien (edo: batzutan, esperantza neukan), gauzak ongi eginez gero, poliki saiatuz gero (baina, oso poliki saiatu behar nuen!) egun batean Katti nirea izan zitekeela...

Azken batean, uste dut biok berdintsu sentitzen genuela: biok nahi genuen... baina beldur ginen; ez genuen nahi baina... nahi egiten genuen. Hura arras enamoratu izan balitzait... Baina ez, uste dut kasu horretan nik ez nuela berdin maite izango... Haatik, saiatu egin nintzen! eta zenbait egunez (baina hau, noiz izan zen? bai, uste dut Uztaritzekoa eta handik astebetera-edo) ez nion kasurik egin: nahi izan nuen

Katti mintzea, nahi izan nuen nirekin enamoratzea... Eta ez dut esango nire presio haien aurrean indiferentea izan zela baina... ez zen belauniko erori! Eta zer egin behar nuen? Oldarrean jokatu? Baina oldarrak Kattirekin (sukaldean eserita zegoela bere aldamenean, nahikoa nabarmenki neure zakil gogorraz haren besoa rozatzen nuela jarri nintzen hartan bezala, oso serio jarri zen-eta) ez zeraman inora... ez baldin banintzen oso poliki, oso kontuz aritzen... Gauzak zetozen bezala zetozela utzi beharra nuen; eta guztiarekin, neure artean pentsatzen aritzen nintzen, hurrengoan okasioa izanez gero... ez nuela galtzen utziko.

Egun haietako detaile bat gogoratzen zait oraintxe. Larunbata zen eta Katti, aita eta ama, Baionan erosketak egitera irtetekoak ziren. Jaitsi zituzten ba kanpoko eskailerak, autoa zegoen aldera, aita eta ama aurrean, eta Katti beraien atzean. Eta nik, eskailera gainetik: «Katti!» hots egin nion, ez oso fuerte, berak bakarrik aditzeko moduan. Eta Katti itzuli egin zen niregana, eta nik musu bat bidali nion eskuaz; apur bat nahas-

tuta baina (berak esango zukeen bezala) arras laketsita gelditu zen: oso gustatu zitzaion.

Beste arratsalde batean, aita-semeak beti bezala kanpoan, ama eta biok baratzean ari ginen eta, halako batean, nire sorpresarako, Katti (egun hartan, soineko motz urdin bat jantzita, gainera) aitzurra hartuta gugana zetorrela ikusi nuen. «Utzi dituzu paperak!» egin zion amak ongi-etorria, eta Kattik: «Akiturik nago!» Nire ondoan jarri zen (haren usaina, oraindik aditzen ari naiz!) eta ordu erditxo batean jardun genuen jorraketan hirurok –eta Katti, ez zen aitzurketan batere errebesa...

Gero baina, etxe parean herriko neska eta mutil bat (anai-arrebak zirenak) pasatu ziren eta Katti aitzurra zeramala haiengana joan zen; eta han egon ziren, mutila petrilean jarrita eta neska biak zutik, solasean hirurak. Kattik bere soineko urdina erakutsiz, dantzan bezala, buelta bat egin zuen, gero pixka batean bere belauna mutilarenaren kontra zuela egin zuen hizketa. Ni kasurik ez egiten saiatu nintzen... Beharbada mutil harekin, beharbada beste batekin enroilatuko zen, baina nik ez nuen utzi behar horrek hunkitu nin-

tzan; bestalde uste nuen, gogorra banintzen (baina aldi berean berak, zekien bezala, bazekielarik nire sentimentuaren berri), azkenean etorri egingo zitzaidala. Zera ere pentsatu nuen, hain zuzen ere nigatik ari zatekeela itxurakeriak egiten mutil harekin; baina ez dut uste, Katti ez baitzen gauza haietarako batere azpijokozalea, ez zen batere moxorroa. Haien konbertsazioa entzuten nuen arren, frantsesez ari ziren-eta, ezer gutxi uler nezakeen. Bai ulertu nuen, ja despeditzerakoan, mutilak beraiekin plazara joateko, konbite egin ziola, eta Kattik: «Non... j'suis fatigué», esan ziola.

Ama ordurako sartu egin zen etxean. Joan ziren ba, anai-arreba haiek plazara, eta nik pixka batean, bakarrik gelditu zela ikusi ez banu bezala, aitzurketan segitu nuen. Tentetu nintzelarik, Katti petril gainean, indioen moduan jarrita zegoen, espresio distraitu batekin. Geroxeago ikusi ninduen, eta: «Zer, zuk ere fini?» galdetu zidan. «Bai! esan nion, eta aitzurra sorbaldara jasoz, etxe aldera joateko imintzio txiki bat eginez: Buelta bat egingo al dugu, bizikletan?» galdetu nion. Aurpegian ikusi nion, proposamena gusto-

koa zeukala. «Zaude instant batean, esan zidan, galtzak jantzita heldu naiz». Besteei plazara joateko ezetz, nekatuta zegoela, esan, eta niri bizikletan... Detaile horiek, aitortu behar dut, pozez betetzen ninduten.

Bizikletan, kilometro batzuk egin genituen, erreka ondoko ostatu bateraino. Han (egin ohi genuen bezala) bi birra eskatu genituen eta gogoan dut aurrena nik bere basotik edan nuela, eta berak ere bai, beretik, eta gero biok neure basotik edan genuela... Oso garbi zegoen (baina, guk ez genuen ikusi nahi!) elkar maite genuela. Edo agian, ez genekien konszientki, eta haatik, biok oso lagun gutxi maite izan dugun indarrez elkar maite genuen...

Ostatu hartan, oroitzen naiz galdetu niola: «Philippe (uste dut hala zuela izena: lehen petrilean aritu zen hura), bera al zen, zure nobioa?» Nik banekien, orduan (uda hartan, egun haietan) Katti ez zela inorekin ibiltzen, baina urtean zehar Isabelek inoiz esana zidan, Katti Ezpeletako mutil batekin irten-edo egiten zuela; horregatik galdetu nion. Eta, une hartan galdetzen ausartu

banintzen, jeloskor samar nintzelako eta, apur bat zirikatzeagatik ere izan zen.

Katti pittin bat lotsatu zen, urdurixko irri egin zidan eta gero hitz gutxi, baina bene-benetakoetan, azaldu zidan: Ezetz, ez zela bera (ez zela mutil hura, bere nobioa); beste bat zela, Ezpeletakoa (konfirmatu zidan); baina hura ere (lasai asko esan zidan) ez zitzaiola sobera gustatzen, eta utzi egin zuela udaberrian. Eta orduan, etenik gabe, xuxen-xuxen, berak niri: «Eta zuk, maite duzu Isabel?» galdetu zidan.

Ixilik eta begira-begira gelditu nintzaion. Zer esan behar nion? Ezin esango nion baietz, ez nengoen-eta aspaldi hartan Isabelenganako neure sentimentuez hain seguru esateko... Haren tokia beste bat betetzen ari zela ere... ez zen deklaratzeko momentua (agian haren ahizpa, izan ez balitz...!) «Uste dut baietz», esan nion. Iruditu zitzaidan zerbait (seguru aski, «uste» hari buruz zerbait) galdetzeko gogoaz gelditu zela; baina, erantzun harekintxe konformatu zen.

Normalean, aise eta luzeago mintzatzen ginen gure gusto eta gure preferentziez. Adibi-

dez Kattiri (Isabeli ez bezala) lasai asko galdetuko nion: «Gustatzen al zaizu horko mutil hori?» Eta berak: bai, edo ez, eta zergatik –«eta zuri?» Bazen konfiantza bat, ba, oso jende gutxirekin izaten dena. Alabaina, gezurra esango nuke esango banu batak besteari bihotza zabaldu egiten geniola. Ez: geure harremanaz (garrantzitsuenaz) behin ere ez baikenion elkarri hitz erditxorik esan. Ukitu ezin zitekeena zen hori. Hor zegoen hain zuzen ere misterioa, hor zegoen tabua, hautsi nahi izan, edo hausten ausartu ez ginena. Hori, bestalde... esan beharrik ez zen, biok oso ongi genekien-eta. Guztiarekin, azken aste haietan kasualidadez, berriz ere Bidarteko hartan bezala tokatu bagina, autoan edo, bionala-biok, nik uste... Baldin eta... baina, ametsak ziren! (eta hala dira, oraindik ere). Bera ez zen jabetzen (edo bai? ah, betiko duda...!) baina suale bat nintzen berarentzako, eta zer ez nion emango horrelakoetan...! Zer ez nion egingo! Indarrean hartu, ere! Bai, ongi esan dut: indarrean! –horrek umekeriak alde batera utzi eta behingoz nirea izan zedin balio behar bazuen... Eta, horren ordez, hitzak besterik ez nituen.

«Mmm, esan nion behin, gaur astolarrosaren aurpegia duzu» (gainera, amak aditu egin zidan, nik ez nuen erreparatu eta ate atzean zegoen-eta). Hitzak eta keinuak, begiradak, beti lehenbiziko eguna izan balitz bezala... Adierazi ez, erdiesan ez, baina egin, egin izan banu, zer izango zen...? Eta haatik, inpresioa nuen, lortuz gero harekin amodioa egitea, guztia bertan amaituko zela. Neure aldetik behintzat bai, badakit geroko konplikazioei ihes egingo niela. Eta bere aldetik ere bai. Esan zidan, ez zuela inorekin enroilatzeko «xederik» (are gehiago: beti bakarrik biziko zela, esan zidan; igual haur batekin, esan zidan, eta bakarrik). Eta guztia amaitzea ere (eta, hartara ezkero, nola amaitu gainera! trajedia bat izango zen-eta!) ez genuen, nik uste, nahi. Anbiguitate hura interesatzen zitzaigun.

Erreka ondoko solasaldia eta gero, Katti diferente ikusi nuen. Libreago bezala mugitzen zen, eta kariñoz begiratzen zidan. Ez dakit beste inor konturatzen zen, baina izugarria zen. Noski beti bezala, suabe-suabe elkar ebitatzen genuen, alabaina, bere egun haietako detaile, bere ukitu minimo haiekin, alegratu egiten zidan bizitza.

Eta momentua (agian inoiz helduko ez zen momentua, bagenekien hori) atzeratzen ahalegintzen ginen...

Astebete falta nuen joateko, goiz batean, etxeko terrazan biok suertatu ginela. Goizean komentatu nion Kattiri, nola hurrengo astean (seguru aski) Parisera joan beharko nuen, eta berak (lehenago esan zidan bezala) Bordelera joan behar bazuen, ba, banuela nik eramatea, eta Kattik esan zidan (askotan, esaldi laburretan, egiten zuen bezala, nire euskara imitatuz): «Ah bai, oso ondo...» Eta irribarre egin zidan, eta gero begiak itxi zituen, eta hala gelditu zen, ahoz behera, begiak itxita, hartu zuen liburua zabaldu gabe, gozo-gozo eguzkitan, atsegin aurpegiarekin. Ni haren ondoan, zigarrilo bat erretzen ari nintzen eta, Kattik begiak itxi zituela aprobetxatuz, haren gorputzari begira gelditu nintzen. Hanka hutsik zegoen eta, galtza motz beltzak, jertse orobat beltz, fin, bere faboritoa zuen hura jantzita zegoen.

Halako batean, gogora etorri zitzaidan bezala esan nion: «Masaje bat emango dizut». Afirmazio bat zen, galdera izan balitz baino errefusatzen zailagoa noski. Eta Kattik: «Hm», onartu zidan. Hurbildu egin nintzaion eta, jertsea bizkarraren erdiraino jasota (sujetadorerik ez zuen), isil-isilik gerri aldean hasi nintzaion. Eta geroxeago, eta goitixeago, handik minutu gutxira jertsea erantz niezaion lagundu zidan.

Iñarrosi egiten naiz, begietara malkoak etortzen zaizkit momentu hura gogoratzean. Hain ederra zegoen...! Bizkar luze, txuri, leun-leun hura, eta lepo gainean ile-xerlo beltx haiek, eta ertireki zitzaion ahoan irribarre-gisa hura...

Eta nire eskuak, poliki-poliki, haren leporaino heldu ziren, eta han aritu ziren, eta handik berriz ere behera, gerri aldera jaitsi ziren, eta han nintzelarik... Aurpegira begiratu nion eta, segitzeko esaten ari zitzaidala iruditu zitzaidan. Neuk ere begiak itxi nituen. Zakila gogor-gogor eginda neukan. Eskuak ipurdi gainean paratu nizkion. Kattik daldar egin zuen...

Baionako lagunek abisatu zidatenez, pentsatuta genuen baino bizpahiru egun lehenago joan beharra neukan Parisera. Beraz ezin eraman izan nuen Katti Bordelera. Pena handia eman zidan. Eta berari ere bai, aurpegian ikusi nionez.

Alde egin nuenean, ama eta Martzel ere baziren gurekin eta, ez nintzen Katti besarkatzen ausartu. Esan nion: «Handik itzulian Bordelera bisitan joango natzaizu» –gustatu zitzaiona, begiradaz adierazi zidana. Gero ni furgonetan eta, terrazatik begira-begira gelditu zitzaidan, azken musu baten zain balego bezala...

Beste zenbait hilabetez segitu nuen Isabelekin. Katti berriz, ez dut beste sekulan ikusi.

Kaxparren anaia

Hamaika aldiz esan arren arboletik jaisteko, Samuelek ez zuen jaramonik egin. Txano moduko bat fabrikatzen aritu zen, azkeneko minutuetan, gaztainaren ostoez. Gero berriz, ostoen artetik, leihoaz barrura begiratu eta Kaxparrek, mehatxatu bezala, telefonoa hartu zuela ikusi zuenean, hotzikara bat somatu zuen. Ez zuen uste anaia benetan ari zenik. Areago, egunean zehar harekin lortu zuen intimidadea eta gero.

Goizean, jaiki eta, aldo-maldoka, koadrupedo bat gisa sartu zen anaiaren gelara. Lurrean, kojinen artean nolabait akomodatuz, zapatila bat airera bota zuen, hortzekin behatz potoloa marraskatzen aritu zen.

Sortu zuen zarrapastak erdi-esnatu zuen Kaxpar.

– Zer ordu da? galdetu zion, ohetik, begiak itxita.

Kanpoan argi zegoen, baina ez zekien, Samuelek, inoiz ez zuen ordurik jakiten, orduan Kaxparrek, haserre:

– Ze ari haiz ba!

Ez zuen ulertzen, Samuel ordua jakin gabe nola jaiki, nola bere gelan sartu, nola kojinen artean erdi-larrutsik behatzak marraskatzen ari zitekeen.

Eta bazuen, Kaxparrek, eskuturrean errelojua, hala ere begiak itxita zeuzkanez:

– Esaidak ba ordua! –bazen-eta, mesanotxean, despertadore bat, liburu batek erdi-tapatuta.

– Hamaikak, esan zuen Samuelek –eta liburua hartu, eta urdurixko, errelojuaren ondoan zutik paratzen ahalegindu zen.

– Bale, bale, esan zuen Kaxparrek.

Begiak ireki zituen, maitasunez begiratu, maitasunez mintzatu zitzaion:

– Batzutan zakarra nauk ezta?

– Batez ere, esnatu berritan, lagundu zion Samuelek; eta une hartan anaia hain beragandik hurbil, hain kariñoz beterik ikusi zuen, beragana hurbildu, besarkatu egin baitzuen. Instant bat geroxeago anaiaren belarritakoarekin jolasean ari zen. Kaxparrek irribarre egin zuen.

– Luziri ez esan, esan zuen.

– Zer ba? galdetu zuen Samuelek.

– Anitak eman zidaan.

– Anitak? esan zuen Samuelek.

– Bai, esan zuen Kaxparrek. Luziri Parisen erosi nuela esan nioan-eta.

Beraz Anita gustatu egin zitzaion anaiari oraindik. Ez, pentsatu zuen, berak ez zion deus esango Luziri.

Jaiki eta gero biak pixka batean zutik, ispiluaren aurrean egondu ziren.

– Aber, esan zuen Samuelek, aber oraindik ni baino altuagoa haizen.

Aurrena Kaxparrek ez zuen nahi, gero hankapuntetan jarri zen, eta Samuelek ere bai, gero biek orpoak lurrean ipini zituzten, eta bai, konprobatu zuen Samuelek, bazeramakion Kaxparrek alde pixka bat oraindik. Samuel aski meharra zegoen. Kaxpar berriz, zeinen estua zen, petxuz...! Noski erretzeak birikak koxkortu egin zizkion.

Kaxpar dutxatzen ari zelarik, Samuel haren gelan, ispiluaren aurrean, lurrean jarrita segitu zuen. Lepoa luzatuz, keinu eta imintzio batzuk

egin zituen. Zenbait puzker bota zituen, tarte labur erregularrez.

Bere filosofiaren kontra bazihoan ere («zertarako dutxatu orain, gero jardinean atzera zikinduko bainaiz?»), Kaxpar dutxan sartu zelako sartu zen ondotik bera ere.

Komunetik irten zenerako, Kaxpar ja irten egin zen. Eguerdiro joaten zen tabernara lagunekin, Parisetik heldu zenetik.

Bera, zanahoria bat, baso bat esne eta gaileta batzurekin gosaldu eta gero, salan, leihoaren ondoan jarrita, bezperan urratu zuen paper-oihala zinta-kolarekin konpontzen ahalegindu zen.

Errixta egin baitzioten gurasoek, gauean, hura zela-ta.

– Falta, zer falta den, ez naiz oraintxe konturatzen, esan zion amak (hartara, zerbait falta zela behintzat, adieraziz), baina pintura hori urraturik, hori-hori... nola gogoratu zaizu!

Egin zuen-eta, Samuelek bere gelan, jardinetik ekarri zituen zenbait egur luze iltzez josita, alkandorak-eta zintzilikatzeko egitura bat oso bitxia, injeniosoa bezain erorkorra, eta huraxe es-

taltzeko erabili zuen oihala, zeukan balioa imajinatu gabe.

– Gaizki egina, badakit, esan zien gurasoei, baina gaztea naiz eta, ezin al liteke barkatu?

Ez zen baina, hori dena izan.

– Hor portzelanazko maskara hori, esan zion amak, nork ekarri du? –bera (ama; baina aita, bertan zena, ere) ez zela gogoratzen. Norbaitek ekarri eta ipini zuela han, sujeritzen ari zen.

– Igual lapur bat sartuko zen, esan zuen Samuelek, bera ipintzera.

Amak ez zuen broma ulertu, haserre-antzean alde egin zuen goreneko pisurantz. Aitak, zer esan ez zekiela, mukizapia erabili zuen, gero, baratx-baratx, amari jarraitu zion.

Goizean beraz, urratu zuen balio handiko oihal hura kontuz-kontuz zinta-kolarekin konpontzen ari zela, leihotik sartu zen eskarabajo batek distraitu zuen.

Ttiki-pottokoa zen, kolore marroi ilunekoa. Bere bularraren kontra jo, eta zango gainera eroriz, ileen artean trabaturik gelditu zen. Eskuan hartu zuelarik, eskarabajoa hatzez hatz ibili zi-

tzaion, bere adarttoekin azal eta azkazalen tolesak esploratuz.

Bazirudien (kolpearen ondorioz, seguraski) hegala pittin bat okertu, matxuratu egin zitzaiola, ezin zuela hegan egin. Samuelek, oihala alde batera utziz, balkoira eraman zuen, lur idorrez beteta zegoen tiesto batean paratu zuen.

Arboletik begi-bistan zuen tiesto hartan zegokeen oraindik aberexka. Goizean, atzeko hankekin atzaparka eginez, lur idorrean xilo bat egin zuen-eta. Samuelek haren inguruan ur xorta bat ixuri eta gero, zenbait lore-osto, harrapatu zuen moskito bat eskaini zizkion, baina eskarabajoak ez zuen ezeretik probatu nahi izan.

Hartan ari zela entzun zuen kanpoko ateko txirrina.

«Hemen dira!» pentsatu zuen.

Osaba-izebak, eta lehengusu-lehengusinak ziren, Mundakan oporrak pasatzen ari-ta beraiekin bazkaldu behar zutenak.

Osaba Tomas, aitaren anaia gaztea, atea zabaldu zien amaren atzetik zuzenean goiko pisura, aitagana joan zena.

Izeba Marga, ile errubioa, aurpegi luxea, loreekiko soineko polit bat jantzita heldu zena.

Aitor, mutiko bizia, ahoaz txistu egiten oso ondo zekiena.

Eta Nerea, txikia, argal-argala eta usain gozoa zuena.

Amak bertan zela esanda, izebak-eta bere gelan atxeman zuten, armario barrenean galtza batzuk bilatzen ari zela. Banan bana sartu ziren hirurak armarioan, Samueli bina musu emateagarren. Berehala antzeman zion berak, Nereak zekarren paketean pastelak zeudela.

Izeba Margak burua laztandu zion, esan zizkion hitz goxo batzuk. Gero, bera ere gorantza zihoala, Samuel eta haurrak jardinera atera ziren.

Miriapodo bat eta armiarma baten arteko burruka-saioa ikusi eta gero, Samuelek txepetxak larretan egin zuen kabia erakutsi zien.

Gero luzeera-saltoan aritu ziren. Aitorrek salto handiak egiten zituen, baina Samuelek hankak junto zituela zelako saltoa egiten zuen ikusi zuenean, esklamatu zuen:

– Samuelek hankak junto dituela gainditu du marka!

Anai-arrebak begira zituela, Samuelek beste bizpahiru salto egin zituen, aldi bakoitzean performanzea mejoratuz, harrigarriro, nabarmenki.

Halako batean amak, bazkaltzera joateko, hots egin zien. Arrapaladan igo ziren sukalderaino hirurak.

Osaba Tomas agurtu eta gero (bel-beltxa zegoen, motx-motx ebakita ilea), eta bazkal aurreko uxualeko komentarioak eginda, mahaiaren inguruan eseri ziren.

Kaxpar juxtu-juxtu ailegatu zen hasteko tenorean. Sobra’re komeni baino baxoerdi pare bat gehiago edanda zegoen; hala ere oso umore onean, eta jakin zuen nola-hala konportatzen (Samuel, amaren jenioa ezagutuz, lasaitu zuena).

Bestalde (ohartu zen Samuel, eta anaiarekin lotzen zuen beste detaile bat zen) Kaxparrek eta biek bakarrik zerabilzkiten galtza luzeak: gurasoak, eta osaba Tomas ere, galtza motzez, udatiarrago zebiltzan-eta. Jakina, anaia tradizioagatik zebilen halan, Samuel plutot arrazoi estetikoez.

Nahiko ondo bazkaldu zuten: entsalada mixtoa (hotxamarra, igual, komentatu zuen Kaxparrek), eta barbarinak erreta (usainez, kolorez eta ukitzez Samuelek gehien maite zuen arraina).

Samuel, Aitor eta Nerea mahaipean hanka-jolasean ari ziren bitartean (jolas bat zeina, Aitorrek bere arrebari mina emandakoan bukatu baitzen), osaba-izebak Bilbon atzeman zuten giroaz aritu ziren: klima-giroaz, aurrena (betiko kejak, betiko marmarrak), kale-giroaz ondoren. Gazte batzuk ikusi omen zituzten, Alde Zaharrean, barrikada bat erretzen. Amak esan zuen:

– Bai, aspaldion ixtilu asko dago.

– Dena den, esan zuen izeba Margak, ez dakit zer gura duten. Reboluzioa? Ez dirudi posible garai honetan.

Reboluzioa: era misteriotsuan Samuel erakarri, eta aldi berean izutzen zuen hitza. Berak esan zuen:

– Reboluzioa datorrenean, guztiok hilko gara.

Besteek barre egin zuten. «Ez da hainbesterako izango», komentatu zuen aitak. Kaxparrek esan zuen:

– Guztiok hil arren, merezi du ba.

Bere ideiei franko atxikia zen anaia.

Samuelek berriz, ez zekien, reboluzioaren alde zegoenetz. Sorbaldak kixkurtu zituen: merezi ote zuen? –hori ez zen bere jakinekoa.

Osaba Tomasek bestetaratu zuen hizketa.

– Segitzen al duk, galdetu zion Kaxparri, lehengo neska harekin?

– Luzirekin, esan zuen Kaxparrek, bai-bai: harekintxe nago.

Samuelek irribarre egin zuen. Berak bakarrik zekikeen Anitak eman ziola Kaxparri zeraman belarritakoa. Anaiari konplizidade-zinu bat egin nahi izan zion, baina honek ez zuen ikusi.

– Etxea erosi dute Getxon, esan zuen amak.

– Ez esan! esklamatu zuen izeba Margak.

– Bai, esan zuen amak, orain sukaldean, obra batzuk egin behar dituzte...

– Ama: sukaldean ez dugu obrarik egingo, esan zuen Kaxparrek.

Horretaz eginda zeuden ama-semeak eztabaida pixka bat, lehengo egunetan.

– Bueno! esan zuen amak, eta Kaxparrek besteen aurrean hain erabat hitz egin zuelako

malerus sentitu zen, eta parean zuen Samueli esan zion:

– Zuk ikusi duzu etxea...

Baina Samuelek ez zuen inoren alde posizionatu nahi izan. Detaile haiek... horrexegatik harritu eta gaizki sentitu zen, arboleko urkilatik Kaxparrek telefonoa hartu zuela ikusi zuenean!

Gero txanpaña eta pastelak atera zituzten. Samuel jan eta jan aritu zen, besteen plateretatik ere pastel bat edo beste lapurtuz.

– Jan, jan, esan zion izeba Margak, hola gustoa ematen du.

Bere sabelak, horrelakoetan, ez zeukan halako muga gisako samarrik.

Bazkal ostean, helduak salara pasatu zirela, Samuel terrazan, Aitor eta Nerearekin jolasten egon zen. Koadroekiko tablero batean, pieza ezberdinak zeuden eta, eskuan hartutakoa beste baten alboan ipini behar zen, harekiko erlazio lojiko bat aipatuz.

Samuelek, tableroan zegoen pieza lodi baten alboan, «3» forma zuena ipiniz, «ipurdi lodi bat» esan zuenean, Nereak «matxista», deitu zion.

Samuel apur bat aztoratu zen, eta gero:

– Matxista, eh? esan zuen, eta lehengusinari kamiseta jasota, tripan purrut egiten saiatu zitzaion, neskatilaren barre-algaren artean.

Gero txakur mozorro bat jantzi zuen, eta kalean zebilen katu bati begira txakur-arnas imintzioak egiten jardun zuen, Aitor eta Nerearen atseginerako noski.

Lehengusu-lehengusinak loratokira jaitsi-ta, bera salan gelditu zen. Inork ikusi gabe osabak mahai gainean utzi zuen kajatik puro bat hartu eta poltsikora jaso zuen. Besteak telebistara begira zeuden.

Eman behar zuten «Dos contra la ley» filmeari buruz hizketan ari ziren eta, Samuelek asmatu egin zuen, hartaz hitz zuzen batzuk esaten: ikusi egin baitzuen, aspaldi, filme hura, eta bere iritzia (aldeko iritzia, bestalde oso laburra) interes momentaneoaz aditu zuten.

Baina iragarritako orduan, ez zen ETB-2n filmerik hasi. Pantailan, Albaceteko paisaje idorrak ageri ziren. Amak mandoa zeukan Kaxparri TVE-1 jartzeko, eskatu zion. Baina kate hartako telesaila ere oso txarra, pairaezina zen. Kate guztietan begiratu, inon ez zen ezer, ikusi zitekeenik.

Halako batean: «Hasi egin da pelikula», esan zuen Kaxparrek.

Ezagun zitzaizkion, bai, Samueli, filmeko lehenbiziko eszena haiek: bakeroak haitz-ebakietan binaka altxaturik, segada baterako pronto, gero aktore batek dudarik gabe protagonista izango zen, eta agian zintari saltsa pixka bat ekarriko zion neskaren kulero-konbinazio arrosa zetazkoa erakutsi zuen, zenbait bakero-esamesa eraginez...

Besteak berriz, laster aspertu, hasi ziren bazter-solasak egiten. Kaxparrek bere buruari basokada bat wiski zerbitu zion, eta amak, ahal izan zuen doinurik ajolagabeenaz:

– Orain hori, edan behar al duk? galdetu zion –Kaxparrek erremuska eginez erantzun zuena.

Aita bere aldetik, leihoaren aurrean arnasariketak egiten ari zen (maiztasunez hala egiteko esan zion-eta medikuak arestian).

Anartean osaba Tomasek argazki-makina bere zorrotik atera zuen.

– Ea, jarri terrazan, eskatu zien.

Telebista itzalita, hara zihoazela, amak pintzeltxo batekin bere buruari makilaje pixka bat

ezarri zion. Aitak berriz, gorri-gorriak zeuzkan masailak.

– Sagar bat ematen duzu, esan zion Samuelek.

Orduan aitaren lokian, ileetara zihoala, xomorro ttiki luxe bat ikusi zuen. Ile artean sar zedin baino azkarrago harrapatu nahi izan zuen, eta ihesi zihoanez atzazalarekin akabatu zuen, aitari mina emanez lokian zeukan grano batean. Aitak «otx!» egin zuen, lokian odol ttantta bat agertu zitzaion.

– Kontuz odolarekin, esan zuen amak –aitak odol-isuri errazak izaten zituen-eta.

– Barkatu, barkatu –Samuel oso damututa zegoen; baina, xomorro hari ile artean sartzen uztea ere...

Inzidente hori izan zela-ta (osaba Tomasek terrazan nor bere tokian ipini, bere argi-kalkuloak egiten ari zela) hasi ziren aitaren bihotz-gaisotasunaz hizketan.

– Maiatzean izan zuen beste atake bat, esan zuen amak.

Ondo gogoan zeukan, ba, Samuelek. Sukaldean izan zen, etxean aitaz gain ama eta biak

beste inor ez zela. Lurrean zurrunduta gelditu zen aita, aurpegia luze eta zurbil. Amak berehala hospitalera deitu zuen, bila etorri zitezen.

Bien artean eraman zuten oheraino, enbor bat bezala. Deskuidatuz gero erori egiten zen, hala erori zitzaien pasiloan, buruan kaskateko bat hartuz; orduan mugitu zuen hanka, laster burua ere bai alde batera. «Bizirik dago», esan zuen amak.

Hospitaleko mutilek indizio bat paratu zioten, aita geroxeago itzuli zen bere onera. Samuelek besarkatu zuelarik, aitak «Samuel», esan zuen hiru aldiz, bizitzan zehar esan ez zion zerbait esatekorik baleuka bezala.

Terrazan, hasia zen osaba Tomas banan bana, binaka, konjunto argazkiak ateratzen; batbatean Samuel gaizki sentitu zen; zorabiatzen ari zela somatu zuen.

Amak bere kontakizuna jarraitu zuen:

– Samuelek besarkatu zuenean, Ignazio berriro lurrerantz irristatu zitzaigun...

Bazihoala-bazihoala:

– Samuel! aditu zuen esaten zuela izeba Margak.

Sofan zela esnatu zen. Guztiak inguruan, Kaxpar egunkari ximur batekin haizea ematen ari zitzaion. Gero, hobeto zegoela, gizonak terrazara itzuli ziren, osasuna zela-ta solasean.

Izeba Marga bere hanken alboan, ama ondoko sila batean jarrita gelditu ziren.

– Nik esaten dudana, esaten ari zen ama: era batera edo bestera hil egin behar dugu: bat negarrez hilko da, beste bat kaka eginda, beste bat hanka-besoak moztuta... Nik eskatzen dudan bakarra, autonomia zerebrala da.

– Horixe, esan zuen izeba Margak.

Samuel begiak itxita, bere burua amak esaten zuen bezala zango-moztuta, edo gogo-autonomiarik gabe imajinatzen ahalegindu zen.

– Semeei esana diet, segitu zuen amak, ni hiltzen naizenean nire errautsak non lurperatu behar dituzten: hesiaren ondoan; eta gero, bertan, arbol bat aldatu...

– Oraintxe badaukazu aldatzea, esan zuen Samuelek, begiak ireki gabe, saminduxe, ez baitzituen amaren errautsak prezisamente hantxe (hain aurre-aurrean, hain beti-presente beharbada) lurperatzerik nahi.

– Ez, esan zuen amak, oraintxe ez, legeak galerazi egiten du.

– Legeak? esan zuen Samuelek, begiak zabalduta, halakoxe ironiaz.

– Bai, esan zuen amak: hesiaren ondoan ez dute-ta uzten.

– Eta pinua? esan zuen Samuelek. Hesiaren ondoan dago ba! Ondo altua da pinua!

Eta gainera (pentsatu zuen, baina ez zen esatera iritsi): Nork etorri behar zuen ikustera! Eta nola ikusi, ezpel mardulaz bestaldetik! Eta nola jakin behar zuten...! Eta, batez ere (eta hauxe bai, esan egin zuen):

– Orain galerazia bada, gero ere hala izango da...

– Bueno, orain ez gara detaileetan hasiko... eten egin zuen amak.

Samuelek atzera begiak itxi zituen. Lo egin nahi zuen. Baina, hantxe segitzen zuten amak eta izebak. Protesta gisa, galtzerdi bat erantzi zuen, ea ulertzez edo aditzez (usaintzez) ohartu, eta bazihoazen beste norabait. Ordea, ama ere hasi zen, sandalia askatuta, bere orpoa ferekatzen, Samuelen keinua minimizatu egiten zuena.

– Ze pena, esan zuen izeba Margak.

– Pena? esan zuen amak.

– Bai, pena, esan zuen izebak.

– Izeba! Izeba! aditu zuten orduan behetik Aitorren ahotsa.

– Ze pasatzen da? esan zuen amak, bere silatik jaikita.

– Baloia Aranbarriren etxean erori zaie, esan zion terrazatik Kaxparrek.

– Banoa...

Amak bakarrik utzi zituenean, izeba Margak ezer esateke, goxo-goxo laztandu zion Samueli burua. Esku latxamarra zuen, baina atsegin-atsegina zen. Begiak zabalduta, izebari begietara begiratu zion.

– Nahi duzu etzan? esan zion Samuelek.

– Etzan? irribarre egin zion, sorprendituta, izebak.

Samuelek ez zuen nobiarik; harritu egiten zuten Kaxpar eta Luziren arteko hartu-emanek, izaten zituzten gorabeherek. Bera... edonorekin etzango litzateke; baita izeba Margarekin ere.

– Maitea... esan zion izebak, orain masaila laztanduz.

Agian gustatu egin zaio ideia, pentsatu zuen Samuelek, eta ez da atrebitzen, besteak hor direlako.

Emeki-emeki, lo gelditzen ari zen itxura egin zuen. Izebak eztitu egin zituen bere laztanak, Samuel erabat lo zegoela uste izan zuen arte. Orduan altxa eta besteengana, terrazara joan zen.

...Geroxeago, erreposki, Samuel jaiki eta, balkoira aterata, urrunkara zegoen adar bihurri baina sendo irudiko batera salto handi bat egin zuen. Une batez txintxilik, erori beharrean egon zen, baina helduka-malduka, katamarroka lortu zuen adarraren hastapenera, enborreraino iristea. Beste pixka bat goraka trepatuz, arbolaren urkila batean jarri zen.

Oso apal heldu zitzaizkion terrazako ele-hotsak, ozenxeago loratokitik Aitor eta Nerearen zalapartak. Haize xuriak logaletu zuen.

Aitorrek esnatu zuen, arbolaren azpitik, beragana heltzeko alferrikako ahaleginak egiten ari zela. Samuelek gaztain-morkots berdekara bat bota zion.

– Samuel! protesta egin zuen Aitorrek, nola igo zara?

Eta berehala, Nerearen ahotsa:

– Ama, ama, Samuel gaztainondoan dago!

Laster zituen gurasoak, osaba-izebak, anaia ere begira, etxeko balkoitik.

– Samuel! esan zion amak, zer egiten duzu hor?

Samuelek Aitor eta Nerea hartzen saiatzen ziren morkotsak jaurtikitzen segitu zuen.

– Nola igo ote da? galdetu zuen osaba Tomasek.

– Samuel? Makala da ba! esan zuen Kaxparrek, Samuel harrotu zuen mirespenezko doinuaz.

– Ez al da hortik eroriko behintzat, esan zuen izeba Margak.

– Benga, jaitsi hortik! esan zion amak.

Samuel zutitu zen, aurrena bi eskuez, gero zango batez adar batetik zintzilikatu, gero bere urkilara itzuli zen.

– Samuel! Bota morkots gehiago! eskatu zion behetik Aitorrek.

– Adar honetatik joango zen, esan zuen aitak. Ez al da hala, Samuel?

– Burua hautsi ez duenean...!

– Samuel: zergatik ez duzu ezer esaten?

Samuel alkandoran zeukan puroarekin gogoratu zen. Usaindu egin zuen, atsegin-kilimusiak egin, galtzetako poltsikoan zeraman txiskeroaz piztu zuen.

– Zer ari da ordea?

– Zigarroa piztu du.

– Zureetakoa da...

– Samuel! Zer ari zara!

Samuelek kea irentsi, belarrietatik botatzen ahalegindu zen, ondorioz eztul-eraso bat nozitu zuen. Zoritxarreko aurpegiaz begiratu zuen puroa, lorategira bota zuen.

– Txoro-aldi bat, horixe.

– Lasai, esan zuen Kaxparrek, aspertuko da.

– Bestela, aber zer egiten dugun.

– Beti izan da mutiko jolastia, esan zuen amak.

– Baina, baina... esan zuen aitak, ez du sentidurik egiten ari denak.

– Zer jaten ari da?

Tabakoaren sabore txarra kentzearren, enborrean gora zihoazen iñurri batzuk sartu zituen Samuelek ahoan.

Pasatu zen nahikoa denbora. Aitor eta Nerea salara igo ziren, Kaxpar eta osaba Tomas berriz, lorategitik saiatu ziren, eskailera luze batez, beragana iristen –baina ezin izan ziren, lehenbiziko adar loditik gora igo.

– Azkenean laguntza eskatu beharko dugu, esan zuen amak.

– Samuel! Jaitsi!

– Samuel! Samuel! hots egin zion Nereak.

– Deitu egin beharko dugu azkenean norabait, esan zuen aitak.

Samuel bere urkilan ondo asko zegoen. Eguzkia mendi-gibelean sartu zelarik, teilatupetik irten zen xaguxahar txiki bat, teilen artean ipurñauska ikusi zuen. Gorago, zeruan, laino artean, ilargi bete-beteak abio izugarria zeraman.

Bista apaldu zuenean ikusi zuen Kaxpar, telefonoa hartu, zenbaki bat markatzen ari zela.

Orduan dardar egin zuen eta, esku-zangoez enborrari helduz, lurrerantz jaisten hasi zen. Anaia zoologikora deitzen ari zitekeen ideiak, ikaratu egiten zuen.

Ez beste guztiak

Trenetik jaitsi eta, kaian inor ez zela, ilunbistan, bide jakinik gabe, herri aldera zihoala, baratz batzuk inguratzen zituen itxitura prekarioaren gainean salto egindakoan, bekoz beko emakume sendo batekin egin zuen topo Josephek.

– Larralde taberna, mesedez? galdetu zion.

Emakumeak fijo begiratu zion. Zein zen (zirudien, esan nahi zuela) bere baratza zapaltzen ari zela Larraldez galdegiten zuen forastero hura? Bestalde, bere nagusitasuna erakusteko okasio bat atzemanik, zenbait instantez mutilaren zapata hautseztatuei begira egon zen. Baiki, zikin samarra zegoen. Mozkortuxe ere bai, emakumeak duda gabe antzemango ziona. Hala ere, ez erantzuteko arrazoiak ote ziren haiek?

– Behera? galdetu zuen Josephek, besoa altxaturik, arrankura punta batekin herri aldera seinalatuz; eta: Agian ez da ja esistituko Larralde, pentsatu zuen.

Emakumeak azkenik: «Behera, bai: Santa Krutzen atzean duzu», esan zion, hatzarekin eli-

zatxo bat seinalatuz, eta Josephek, milesker esanik, dorpeki, emakumeak adierazitako direkzioan, maldan behera segitu zuen.

Kale zabal batera heldu zen, ibaia zeharkatzen zuen zubirantz abiatu. Hantxe, sasiak inbaditu zuen fabrika zahar baten kontra, kotxe baten eskeletoa ikusi zuen.

Amak irakur zitzan utzi zizkion gutunetan, bere aitak aipatzen zuen Larralde taberna: bertan lagunekin bildu, ardo batzuk edan, bertan ematen zituela-ta zenbait ordu egunero.

Inor ez zen plazatxo bat pasa-ta, elizatxo-gibelean, etxe-bloke handi baten pean atzeman zuen Josephek Larralde.

Kanpoan, zurezko aulki luze batean jarrita, baziren lagun batzuk, zerbezak edanez, animatuki solasean. Barruan berriz, jende dexente zegoen. Ostirala da-ta, pentsatu zuen Josephek, bere gibelean atea zerratuz. Bizpahiru zahar, barrako zoko batean, haietako bat tabernariari bromak eginez, gero zenbait gizaseme saldo, zutik, eta mahaietan ere, neska-mutilak, bokadiloak jan, zerbezak edanez.

Joseph, taldeen artean bide bat eginez, tabernaren fondoraino heldu, libre zegoen barra-aulki bakarrean jarri zen.

Ez-ezaguna zela-ta (iruditu zitzaion Josephi), arreta bereziz etorri zitzaion tabernaria berehala, zer nahi zuen galdeginez. «Beltza», eskatu zuen Josephek, eta berriz esan behar izan zuen, tabernariak ez ziolako ondo aditu.

Bere ondoan tipo bat esku biez barra jotzen ari zen, apal entzuten zen taberna-musikaren hotsean. Musika estrainoa zen, menturaz zenbait tresna primitiboz egina. Eta hala ere, doinu abangoardistak ziren, erritmo gozoak. Josephek barra gainean zegoen kaseta-kaja hartu zuen, entzuten ari zirena hura zitekeela suposatuz. Apenas hartzea egin zuen, eta:

– Hop Frog, informatu zion aldameneko tipoak: mutil aurpegi-luzea, astebetean-edo egin gabeko bixarraz. Eta, bista kajara bildu zuelarik, ohartu zen mutila disimuloz begira gelditu zitzaiola; segitu zuen hala ere, ezker eskuaz barra erritmikoki jotzen.

Josephek, haren arreta somatuz, zigarrilo bat eskaini zion.

– Ez, eskerrik asko, esan zuen mutilak, alkandorako poltsikotik beste pakete bat atereaz: honetatik nahiago dut. Eta gero, Josephek sua ematen ziolarik: Ostia, esan zuen mutilak, baten baten antza hartzen dizut eta ez naiz gogoratzen...

Josephek bista altxatu zuen.

– Zu ez zara hemengoa, esan zion mutilak.

– Ez, ez naiz hemengoa, onartu zuen Josephek. Frantziakoa, esan zuen, trago batez husturik basoa. Eta, mutilak burua kordokatuz begira segitzen zuenez: Baten baten antza baldin banu ere, esan zuen, ez dut uste zu hartaz oroituko zarenik.

– Zer ba? Zu ez zara ba izango...?

– Kamio, esan zuen Josephek. Joseph Kamio.

– Kamio? orain tipoa erabat beragana jiratu zen. Anjel Kamioren semea? Horixe, esaten nuen ba. Aditu nuen, seme bat zuela baina...

Beraz, badakite nire berri, pentsatu zuen Josephek. Eta nik, ez nekien herri hau bazenik ere, orain dela gutxi. Aitaren berririk ere ez nekienеta.

– Aditu al duzu, Maria? esan zion mutil aurpegi-luzeak aulki luze batean jarrita, barraren kontra apoiaturik zegoen neska ile-kizkurrari. Anjelen semea da hau.

– Zein, zu? esan zuen Maria zeritzonak. Aurpegia arin makilatuta zeukan, oso sorprendituta zegoen. Sorprendituago, halere, Joseph, gazte tankerako haiek bere aita ezagutu, hartaz gogoratzen baitziren.

– Jarridazu beste bat, eskatu zion Josephek han-inguruan zerbait ari zen tabernariari. Eta: arras mozkortuko naiz, pentsatu zuen. Eta nahi dutena, lagunei, erantsi zuen. Baina, eskua poltsikora eramateko imintzioa egin zuenez:

– Zaude, zaude, esan zuen mutil aurpegi-luzeak. Nik egingo dut hau. Bi beltz eta bi zerbeza, Irene. Anjelen semea, aizu, esan zion tabernariari, hura urreratu zitzaienean.

– Anjelen semea? esan zuen emakumeak, ardo botila airean erdi-okertuta zuela, bat-batean harrituta. Anjel Kamio? Ez esan!

– Toki onera etorri zara, esan zion boskarren solaskide batek: mutil bajo, sendo, begi bizi-bizi batek. Anjel hemen egoten zen, askotan. Gure

laguna zen –eta, aurkezpenak eginez–: Maria, Luis Mari, ni Joxan naiz. Hau Irene da, erantsi zuen.

– Orain esaten duzula... esan zuen Irenek –antza hartu ziola, alegia; orain bai, bete zituen likido gorri-beltxaz bi baso zabalak, kamaratik bi zerbeza atera zituen.

– Eta, esan zuen Maria ile-kizkurrak: zer izan zen edo... ezer al dakizu?

Lauak mutu-mutu, Josephen erantzunaren zain gelditu ziren.

– Ez dakit ezer, esan zuen Josephek, begirada makurtuz.

Berak ez zuen aita ezagutu. Arestian, hospitalean, amak esan zion nola, berak hiru urte zituela, desagertu zen hura. Berak ez zekien besterik. Akaso bertara, argibideren bat atzemango ote zuen, esperantzarekin joan zen. Haatik, mina eman zion, aitaren berririk ez zekiela aitortu beharrak.

– Poliziak ez al zuen ezer esan...? galdetu zion Irenek.

– Poliziak? Zer esango zuen? esan zuen Joxanek. Beraiek tartean ez baldin baziren...

– Hala izan zen hemen zurrumurrua, esan zuen Mariak.

– Bai, gauza asko esan izan zen baina... esan zuen Joxanek.

– Ezer garbirik ez, esan zuen Luis Marik. Gainera zuek, ez al zinen zeran bizi...?

– Frantzian, goian ez al zen? esan zuen Joxanek.

– Amiensen, esan zuen Josephek.

– Amiens, hori da.

– Eta ez zenuten ezer jakin eh... esan zuen aho-zabalik Mariak.

Josephek ezetz egin zuen buruaz.

– Pues hemen ere...

– Desagertu zenean hemen denok harri egin-da gelditu ginen, esan zuen Joxanek.

– Norabait alde egin ote zuen ere... esan zuen Irenek.

– Nik, Ainhoak esan zidanean kanpoan seme bat zuela, esan zuen Luis Marik, agian zugana, edo zure amagana joana izango zela pentsatu nuen.

– Ainhoa? galdetu zuen Josephek.

– Neska bat, hemengoa, esan zuen Joxanek. Ez duzu jakingo, azken urteetan harekin ibili zen.

Gutunetan behintzat, ez zuen aitak beste nobiarik aipatzen.

– Nik ez nuen hori pentsatu, esan zuen Mariak. Nik egia esateko, ihes egina izango zela pentsatu nuen. Orduan batzu-batzuk izan ziren hemen...

– Bai Tomaxek-eta...

– Nik ere hala pentsatu nuen, esan zuen barraz bestaldetik Irenek, eskapoan edo joana izango zela. Hala zabaldu zen, behintzat.

– Zera, esan zuen Luis Marik, Anjel ez zebilen-eta horrelako saltsetan.

– Inoiz ez dakizu! esan zuen Mariak.

– Nire ustea! esan zuen Luis Marik. Anjel orduan AHTko mobidan zebilen-eta...

– Ez zen beste hartan ibiliko baina badakizu, esan zuen Irenek, lagunak ere bazituen-eta...

– Eta, esan zuen Mariak, aurreneko aldia al da, hona zatozena?

– Bai, esan zuen Josephek, aurreneko aldia.

– Eta, ba al zenekien ba, taberna honen berri?

Josephek orain irribarre egin zuen.

– Aitak aipatzen zuen, bere gutunetan...

– Bai, esan zuen Joxanek, ez da harritzekoa. Etxea urrutitxo zuen baina, ia egunero etortzen zen hona. Ez al da hala?

– Hemen? esan zuen Irenek. Horixe! Bere kafetxoa, bere zigarriloa, egunkaria letzen hor (Mariari) zu orain zaren tokian egoten zen. Edozein etorrita ere, harekin kontu batzuk esango zituen. Gero oinez tipi-tapa joaten zen iluntzean.

– Iluntzean, eta geroago ere bai ezta? esan zuen Luis Marik.

– Ez genuen, esplikatu zuen Joxanek, biltzeko beste tokirik, tabernaz aparte.

– Orain bezala, ez? esan zuen Luis Marik, irribarrea zabalduz.

– Guztien laguna zen, esan zuen Irenek. Berdin hizketatzen zen honekin edo harekin. Joxe Marirekin ere, biak besarkatuta sartzen ziren hona.

– Joxe Mari deitzen genion, esan zuen Joxanek, alfonbrak eta txorakeriak saltzen ibiltzen zen *moro* bati.

– Baina Anjel ez zen beti tabernan egoten ziren haietakoa, esan zuen Mariak. Anartean Irene beste bezero batzuk atzenditzera joan zen.

– Ez, hark bazuen bere lana, bazituen bere gauzak... esan zuen Joxanek.

– Mendian ere ibiltzen zen eta... esan zuen Mariak.

– Ostia! Mendia-ta... Ateratzen zenean parranda ederrak egiten zituen Anjelek ere, esan zuen Luis Marik, aurpegia berez zeukana baino areago luzatuz, eta besteak ixilik gelditu zirenez bere zerbezatik zurrut egin zuen.

– Harrigarria da, esan zion Joxanek Josephi, begi txiki-txikiak bizi-bizi beragan tinkatuz. Aitaren igual-iguala zara.

– Horrekin gelditu naiz ni, esan zuen Luis Marik.

– Bai oso parezidoak zarete, esan zuen Mariak.

– Ba zure aita, esan zuen Joxanek, askotan egoten zen gurekin. Hemen eta Juantxon eta...

– Lazarorekin ere ederrak egiten zituen, esan zuen Mariak.

Lazaro. Ez ote zuen aitak gutun batean izen hura aipatzen?

– Lazaro honen mutila da, esplikatu zion Joxanek.

– Lehenago elkarrekin lan egin zuten-eta, esan zuen Mariak, oso lagunak ziren.

– Ez al zegoen... esan zuen Josephek, zerbait gogoratuz, ez al zegoen...?

– Preso? lagundu zion Joxanek. Han segitzen du!

Han segitzen du. Zenbat urte zeraman ba, kartzelan? Bestalde, berriz harritu zen, bere solaskide haiek, aita hain ongi ezagutzeko, gazteegiak ez ote ziren. Ze edadea izango zuten? Mariaren eskuei erreparatu zien –zenbait eraztunez apainduriko esku ximurtzen hasita zeuzkan.

– Zergatik sartu zuten? galdetu zuen Josephek.

– ETAkoa zen, esan zuen Joxanek.

– ETAkoa *da*, ezta? puntualizatu zuen Luis Marik.

– Bueno-bueno, moztu zuen Mariak: ez zuela merezi, adieraziz.

Luis Marik urduri-antxa zirudien. Beharbada bera ere ETAri nolabait lotuta dago, pentsatu zuen Josephek.

– Donostia komandoa, esan zuen Joxanek. Hamazazpi urte darama barruan.

– Bera harrapatu eta handik gutxira izan zen zure aitarena, esan zuen Mariak.

– Ez, hura izan zen...

– Bai, bai: horregatik lotu ziren gauzak.

– Orduan hauek Udaletxean itxi ziren...

– Gero sarjentua hil zuten Errekalden...

– Bai, bai: dena oso bateratsu izan zen.

Josephi geltokitik heldu zela, bide bazterrean ikusi zuen kotxe errea gogoratu zitzaion.

– Hor bada ba, esan zuen, kotxe bat errea...

– Bai, hori orduan ez bazen izan, gerotxoago izango zen.

– Zera, hori orain dela gutxi...

– Hori frantsesen kotxea zen, esan zuen Joxanek. Orduan Frantziak estradizio batzuk egin zituen, eta kotxeak erre, kamioiak tirokatu... atentatu asko izan zen.

– Bai, eta honen aita kontra zegoen, esan zuen Luis Marik.

– Kontra? Zer ba? esan zuen Joxanek.

– Zure aita kontra zegoen, bai, esan zuen Luis Marik. Esaten zuen, ez al zarete gogoratzen?, ea kotxe frantsesak erretzen baziren, zergatik ez ziren espainolak ere erretzen: espainolek ere egin zigutela ba, dexenteko mina.

– Horretan bazuen bai, arrazoi pixka bat, onartu zuen Joxanek.

– Lazaro preso sartu zutenean, esan zuen Mariak, lagun talde bat Udaletxean itxi zen, protesta modura. Haien artean zegoen zure aita.

– Bai, mobida izan zen...

– Herria okupatu egin zuten-eta, esan zuen Joxanek.

– Bai, esan zuen Luis Marik. Eta Sagartzazu, eroa, pistola bat zuela sartu zenean Udaletxera, zure aita eta Indio, herriko beste baten artean desarmatu zuten.

– Hala zegoen giroa! esan zuen Joxanek.

– Gauzak ez dira asko ere kanbiatu, esan zuen Luis Marik.

– Ez. Zoritxarrez, esan zuen Mariak.

– Eta gero, bat-batean, esan zuen Joxanek, handik... egun batzutara, flop! zure aita ixkutatu egin zen.

– Bai, hori eta geroxeago izan zen, esan zuen Luis Marik.

– Orduan Txinkoenean bizi zen.

– Bai, klaro, bi edo hiru urte zeraman Txinkoenean.

– Txinkoenean, ez al ziren orduan ijitoak bizi? galdetu zuen Irenek, atzera ere beraiengana heldu zena.

– Bai! esan zuen Joxanek. Han, errekaz bestaldean egoten ziren haiek.

– Herriko etxeak garesti zeudela-ta, esan zuen Mariak, zure aita Txinkoenera joan zen.

– Bolada batean, esan zuen Irenek, oso ondo gogoratzen naiz, pisu bila ibili zen. Hemen egunero-egunero begiratzen zion egunkariari. Horko tabladoan ere anuntzioa jarri zuen. Guk hemengo pisu bat esan genion, Juanita, gure izebarena, baina hau garestia zela-ta, hara pasa zen.

– Ordurako hala ere, esan zuen Luis Marik, ja bazeraman Anjelek denbora dexente kalean gutxi azaltzen zela.

– Krisia-ta, esan zuen Irenek.

– Anjel? esan zuen Joxanek. Ez dut uste. Harritzen naiz. Ez zen batere etxe-zuloa.

– Baina lan bat bukatzen ari zela edo...

– Eta: sosik ez zuen-eta...

– Hori bai. Dirurik ez zuela.

– Xentimorik gabe zebilen, esan zuen Luis Marik. Hemen ere, (Ireneri) zuk badakizu ondo, beltza, normala gaseosarekin eskatu, eta gero baso-urak edanez igarotzen zuen arratsa.

– Bai, azken boladan hola ibiltzen zen.

– Ainhoaz ari ginela, esan zuen Joxanek: hor duzu.

Joseph itzuli egin zen. Koadrila bat igaro zen une hartan taberna paretik. Mutil batek atentzioa eman zion, zeramatzan arropa koloretakoez, ile motx gorri puntakoengatik. Haren atzean, beltzez jantzitako neska txiki, ile motzarekiko bat.

– Beltzez jantzitakoa, hori, esan zion Joxanek.

– Gaztetxekoak dira horiek, esan zuen Luis Marik. Anjel askotan horiekin ibiltzen zen.

Gaztetxea. «Atzo kontzertua zegoen. Zutaz gogoratu nintzen», esaten zion aitak, gutun batean, amari. Seguraski bertan ezagutu ziren.

Koadrila handi bat irten zen tabernatik orain. Mahai batean, lau mutil karta-jokoan hasi ziren, beste koadrila bat gelditzen zen izkinean.

– Atera beste ronda bat Irene, esan zuen Mariak.

– Niri ez, esan zuen Luis Marik, banoa-ta.

– Orain joan behar al duk? esan zion Joxanek. Gaua hasi besterik ez dik egin-eta!

Hamaikak markatzen zituen tabernako erlojuak.

– Etxean mokadu bat jan eta zulora, esan zuen Luis Marik. Irene! Emaidazu zinta –Irenek ekarri zion; beste musika eztiago bat entzuten zen orain.

– Guk ere zerbait jango dugu ala? esan zien Joseph eta Mariari Joxanek.

– Ui nik ez, esan zuen Mariak, oso nekatuta nago. Laster etxera noa ni ere. Zuk ba al duzu lo egiteko tokirik? galdetu zion Josephi.

– Hendaian, lagun batzurekin kanpinean nago, esan zuen Josephek.

– Hendaian? esan zion Joxanek. Motel hori urruti dago!

– Etorri nirekin, esan zion Mariak, etxean tokia badago.

Ez zuela nahi, ez zuela inportarik, keinu bat egin zuen Josephek.

– Beldurrik gabe...

– Igual ez du lo egiteko gogorik izango, esan zuen Luis Marik.

– Bueno, nahi baduzu behintzat...

– Irene, esan zuen Joxanek. Atera beste bi beltz, eta beste birra bat.

– Bueno! esan zuen Luis Marik. Ni banoa. Bueno Joseph, bihar hemen segitzen baduzu... ikusiko gara.

– Bai...

Luis Mari kanpora zihoala gazte talde bat sartu zen tabernan. Batzuk mozorrotuta zetozen, saltoka, kantari: ta-ra-ra eginez, gehienak, ez baitzekizkiten kanten letrak osoki.

– Gaztetxekoak, esan zuen Joxanek.

– Festa dute? galdetu zuen Josephek.

– Arratsaldean egin dute festatxo eta afari-merienda, orain kontzertua edo ez dakit zer zuten.

Edan egin zuten. Festazale haietako bat, mutil moxkote, brusa urdinez jantzitako bat, beraiengana heldu, Josephi besotik txintxilika zekarren boltsa handi bateko kontenidoa erakutsi zion: torloju handiak, ikusi zituen Josephek, metalezko tutuak, beste zenbait txatar-puxka.

– Mmm, esan zuen Josephek, ikusten ari zena biziki interesatzen zitzaiola, planta pixka bat eginez.

– Guk ez dugu burruka gogorrik planteatzen, azaldu zion mutil moxkoteak, gurea mobida bazterrekoa da.

Josephek ez zuen ulertu, zertaz ari zen –eta hala ere, mutilak esaten zuen hartan arrazoizantzu bat atzematea iruditu zitzaion. Bere basoa altxatu egin zuen, mutil moxkoteak erakusten zion botilaren kontra topa eginez.

– Justizia! esan zuen, fuerte oso, mutil moxkoteak, bere lagunengana jiratuz.

Joxan hari begira barrezka ari zen, Maria berriz beste batekin hasi zen hizketan. Joseph

puxka batean zurrunduta egon zen, gero pixagalea somatuz:

– Komunera noa, esan zion Joxani, WC zioen aterantz joateko bezala.

– Itxita dago, esan zion Joxanek. Etorri, erantsi zuen, eta besotik helduta, taberna kanporantz eramanez: Gaztetxean egingo duzu.

Kalean, lagun taldeen artean dinbi-danba zihoazela, Josephek erreparatu zuen, kalearen alde batetik bestera, banderinak ipini zituztela. Ozen xamar entzuten zen musika-zarata.

– Joseph Kamio! esan zion Joxanek, enfasi pitte batekin, besoa lepo gainean jarrita; bat-batean oso animatuta zirudien. Tipo jatorra, zure aita! Ez zen sekula mozkortzen baina jatorra zen, bai!

Geroxeago, beti tinki besarkatuz:

– Zer moduz, ama? galdetu zion.

Josephek harri eta zur begiratu zion. Ez zuen espero halako galderarik.

– Nik zure ama ezagutu nuen, esan zion Joxanek. Hona etorri zenean.

Ama ezagutu zuen! Hogeita hamar urte zuenik ere ez zuen ematen-eta... Eta bazuen hogei urte, ama izan zela bertan.

Josephine, bere ama, eta bere taldea, urte hartan Europako zenbait herrialdetan barrena jiran ibili ziren. Bertara etorrita ezagutu zuen Anjel, bere aita izango zena. Elkarrekin astebete-edo egin zutela, deduzitu zuen Josephek, aitak gutunetan esaten zuenetik. Gero amak, Amiensera itzuli eta denbora batera, haurdun zegoela jakin zuenean, itxuraz haurra berak bakarrik izatea erabaki zuen.

– Oso goapoa, bai, esaten ari zitzaion Joxan.

– Zuk... ezagutu zenuen? galdetu zion Josephek.

– Bai. Anjelekin, hemen ibili zen-eta.

– Baina... badu hogei urte, izan zela hori.

– Hogei urte... Joxan instant batez pentsakor gelditu zen, gero segitu zuen: Bai, izango dira; ni gazte-gaztea izango nintzen. Baina gogoratzen naiz. Zeren, zure aitak, zure ama hemen zela, nire anaiari kotxea eskatu zion. Ez dakit nora joateko. Badakizu, artean zure aita bere familiarekin bizi zen-eta... Galdegiozu amari. Zure aitak

ez zuen karnetik baina, beti hola ibiltzen zen. Behin harrapatu zuten. Ez al zenekien? Baina, zeukan aingeru aurpegi harekin... libre utzi zuten. Eta: ondo egongo da ala? Ama, esan nahi dut.

– Hil egin zen, esan zuen Josephek. Aurten, martxoan hil zen.

– Hara. Sentitzen dut, esan zuen Joxanek, eta kariñozko zimiko bat egin zion lepoan.

Bat-batean Joseph estrainoa sentitu zen han. Inpresioa izan zuen, herri hartan, aita ez beste guztiak zeudela, denbora bateko lagunetarik aita baizik ez zela falta... Alabaina, bera zen, eta ez aita, Joxani besarkatuta kalean zebilena.

Gazteak saldoka pilakatzen ziren etxe apal, orma oker samarrekiko, barraka gisako batera ailegatu ziren. Teilatu gainean, katu batzuk zebiltzan. Behean, lorategi itxurako batean, mueble tzar batzuk, trafiko seinale pilo bat alde batera, lurrean eta siletan hainbat lagun jarrita zegoen. Barrutik neska baten ahotsa heldu zitzaion.

– Hor duzu, esan zion Joxanek, eskubitara, ganbarara zeraman eskailera pean, letra handie-

kin «Materialak» zioen ate berde kaxkar bat erakutsiz: Hor duzu komuna.

Baina, Joseph sartzera zihoala, hantxe lurrean eserita zegoen mutikoxkor batek:

– Ez sartu, esan zion, nire ama dago-ta.

Eta gero andre batek, orobat lurretik:

– Zu ez al zara... Naiaren nobioa?

Ezetz, esan zuen Josephek, eta besteak:

– Ah pues uste nuen lehengoan Altzan harekin ikusi zintudala, insistitu zuenez, Josephek desenkusa-irribarre bat egin zuen, paretaren kontra apoiatuz.

Handik minutu pare batera, Joseph praketako botoiak lotzen ari zela gela-txarretik irten zelarik, ez zuen lorategian, ez ate ondoan ere Joxanen arrastorik ikusi. Sartu egingo zela pentsamentuarekin, etxe barrenera jo zuen berak ere.

Lokal handia, ilunkara, halako ordenik ez zegoena zen. Aurrean eszenategia, non musikoek, zenbait lanparatxoren argitan, bi konposizioren artean etenalditxo bat egin zuten orduantxe; atzean mahaiak eta silak, alde batera mostradorea, armario bat ere, haratago koltxoneta batzuk metatuta. Gazte ugari zegoen, aurreko aldean

zutik, atzean jarrita gehienak, taldeari begira, edo solasean.

Jendearen artean zigi-zaga ibiliz, Joseph eszenatoki ondoraino iritsi zen. Gitarrak bi nota jo zituen, kantariak mikrofonoa hartuz: «Azkenekoa», iragarri zuen. Josephek harmaila batean, tipo baten ondoan txoko bat egin zuen, kili-kolo, kukurrukaturik.

Neska kantatzen hasi zenean, haren ahots lodia harrigarri ederra iruditu zitzaion. Amodio izugarri, guztiz inprobable batetaz ari zen. Hura zuen indarra hura! Hotzikara bat somatu zuen Josephek. Begiak itxirik, bere aita imajinatu zuen, bere ama zitekeen kantariari begira. Hala hasi zatekeen, beren maitasunaren historia: historia labur hura.

Kanta amaiturik, txaloak eta gero, kantaria eta musikoak euren gauzak biltzen ari zirela, ondoko tipoak pipa batzuk eskaini zizkion. Orduan ezagutu zuen: kalean, Ainhoa, bere aitaren nobiarekin ikusi zuen ile gorriekiko mutil hura zen. Josephek eskukada bat onartu zion –Ainhoa bera ikusi zuen haraxeago, sila batean, paretaren kontra jarrita. Eta, koadrila tankerako hartan inor

ez zela ezer edaten ari, ikusi zuenez, zutitu egin zen eta:

– Zer nahi duzue? galdetu zien, mostradorera zihoala eginez.

Bik esan zuten: zerbeza; beraz Josephek, jendea apartatuta barraraino iritsiz, han zen neskari:

– Hiru birra! eskatu zion.

Neskak atenditu egin zuen, itxuraz; basoak ordea barraren zokogune iristen gaitz batean utzi zizkion. Hara, ahalegin handiz, heltzen saiatzen ari zelarik, beste batek kendu egin zizkion, hiru basoak, edo hala iruditu zitzaion Josephi, zeren eta gero beste hiru baso berdin-berdinak ikusi zituen, nahiz beste haiek are haruntzago zeuden.

– Ekarri basoak! eskatu zion tabernakoari.

Neskak azkenean ondoratu egin zizkion hiru basoak. Josephek barra gainean haien prezioari gutxi gorabehera egokituko zitzaion txanpon mordoxka bat utzita, basoak hartuta pipak zirela medio egin zituen lagun hala-moduko haiengana joan zen. Bi zerbeza, eskatu zutenei eman eta,

hirugarrena eskuan zuela, Ainhoaren aurrean paratu zen.

– Nahi al duzu? eskaini zion.

– Ez eskerrik asko, esan zuen Ainhoak.

Joseph ondoan jarri zitzaion.

– Ainhoa zara ezta?

– Bai... Ile motza, begi berdeak zituen, hortz bat hautsita menturaz.

– Kaixo... hasi zen Joseph.

– Zu...

– ...

– Zu al zara, Anjelen semea? Josephek buruaz baietz egin zuen eta: Oraintxe Joxanek esan dit, hemen zinela, esan zuen Ainhoak.

Apur batean ixilik, begiek dizdiz zegietela, elkarri begira egon ziren, gero Ainhoak esan zuen:

– Eta... zer moduz?

– Hementxe, esan zuen Josephek. Ardoa sobera edan dut eta, egia esan, nahiko nahastuta nago.

Eguerdian hasi zen, Irunen, bere lagunekin ardoak edaten. Bazkalondoan ere kopa pare bat hartu zuen. Beharbada –pentsatu zuen– ez zuen-eta bestela aitaren herrira joateko aski kemenik

izango. Eta hala ere orain despejatuxeago zegoen.

Ainhoaren begirada somatu zuen. Aitaz gogoratzen arituko da, pentsatu zuen. Neskaren eskua ikusi zuen berak, esku gazte eta morenoa.

– Herri honetan, etorri zitzaion espontaneoki galdera, ez ote zarete sekula zahartzen?

– Pff! egin zuen Ainhoak, barreari eutsiz. Zer, ba?

– Agian sobera edan dudalako izango da baina, inpresioa dut oso gazteak zaretela eta aldiz... guztiok ezagutzen duzue nire aita... orain dela hamazazpi urte, gaizki ez banago, desagertu zena.

– Arin doa denbora, esan zuen Ainhoak, irribarre goxo, zabal bat eginez, eta Josephi zerbeza hartuta, trago bat edan zuen.

Bat-batean Josephek sentsazioa izan zuen, neska harekin fida egin zitekeela. Zalu mintzatu zitzaion:

– Nik, esan zion, orain dela gutxi jakin nuen aita bertokoa neukala. Amak, ez dakit zergatik, ez zidan inoiz ezer esan. Ezagutu al zenuen nire ama: Josephine?

– Ez, esan zuen Ainhoak, ez nuen ezagutu. Ni ez bainaiz hemengoa. Gero etorri nintzen.

– Aurtengo martxoan, segitu zuen Josephek, hil-zorian zegoela esan zidan dena: aita nor, eta nongoa zen. Haren argazki bat, eta idatzi zizkion gutunak erakutsi zizkidan.

– Itxoin: nik ere badut...

Neskak galtzen gibeleko patrikatik larruzko kartera zahar bat atera zuen, paperen artean atzemanda argazki bat erakutsi zion.

Mendian, zutarri megalitiko baten ondoan, aita eta biak, kamara gainetik, xeharka, urrutiko paisajeari begira zeuden. Josephek gertuagotik begiratu zuen. «Aingeruaren aurpegia», esan zuen Joxanek, aitaz; bazuen bai, halakoxe airea; berak ere bai, ote? Ainhoa berriz ez zen batere kanbiatu.

– Etenetan, esan zion Ainhoak, hor-mendi lepo batean gara. Azken aldian afizioa hartu zuen, mendira joateko.

– Oso... lagunak zineten? esan zuen Josephek.

– Bai, esan zuen Ainhoak, aztoratuxe, irribarrez. Azken bi urteetan ibili ginen elkarrekin.

Ondo eramaten ginen... Bueno, bera oso independientea zen...

Une hartan Gaztetxeko argiak itzali ziren, paratu zuten musika gelditu, protesta-hots eta txistu batzuk aditu ziren. Ainhoak ahots apalagoaz:

– Badakizu? esan zion. Anjelek Amiensera joateko asmoa zeukan. Behin esan zidan.

«Musuak Josephi»: aitak, gutun amaiera denetan, paratu zituen hitzak. Ainhoaren begiek dizdiz zegiten.

– Desagertu zenean, segitu zuen, ni hara, zuengana joana izango zela pentsatu nuen. Aunke nola ez zuen ezer esan, oso harrigarria zen. Gero beste hipotesi batzuk atera ziren, jakingo duzu.

– Zerbait aditu dut, bai.

– Urte gogorrak izan ziren haiek, esan zuen Ainhoak. Guztientzat ere. Ez zen lanik-eta, orduak berton, edo kalean ematen genituen. Lana lortzen zutenak ere oso kondizio eskasetan aritzen ziren. Kontraturik gabe ere bai askotan. Eta pozik, hala ere, zerbait ateratzen zenean. Nik suertea izan nuen: ostatu batean hartu ninduten –Anjel desagertu aurreko urtean izan zen hori.

Baten batek han-eta-hemen kandela batzuk piztu zituen, musika taldekoak beren trasteak ateratzen hasi ziren, lagun taldeek erre egiten zuten, apalago hizketan. Beste zerbeza batzuk atera zituen norbaitek.

– Anjelek berriz, segitu zuen Ainhoak, lana gogotik egiten zuen etxean, baina ez zuen diruetekinik izaten. Liburu bat idazten ari zen, eta hura bukatu arte behintzat ez zuela beste lanik egingo, esaten zuen.

Ze gutxi jakin zuen Josephek bere aitaz! Txikia zela, gogoratzen zen, hil egin zela, esan ziola amak. Euskalduna zela ere, esan zion inoiz. Idazten jarduki zuela berriz, haren gutunak irakurrita asmatu zuen.

– Hemen batzuek barre egiten zioten, segitu zuen neskak, eta berak, eutsi. Oso erradikala zen... bere lanari buruz. Eta bestela ere bai. Familiarekin bizitzea besterik ez zuen, edo nirekin etortzea. Nik esaten nion: etorri. Baina berak bakarrik nahi zuen. Txinkoenean hartu zuen gela bat, Arrola deitzen den etxean. Hori herritik apartexo dago, ibai ondoko kamioaren bukaeran, mendiaren kontra. Arrola etxe zaharra zen.

Ez dakit txutik egongo den oraindik, pentsatzen dut baietz: aspaldi ez naiz hara joan-eta.

– Aldi batez, segitu zuen Ainhoak, diru laguntza bat jaso zuen udaletxetik; ez dakit zenbat zen... Laguntza txiki bat. Gero berriz, hura kendu ziotenean, trena pagatzeko ere ez zuen dirurik izaten. Larunbatetan, azoka izaten zen eta, bera azkeneko orduan joaten zen eta, botatzen zituzten frutak eta berdurak eramaten zituen... Jantzi ere, barregarri egiten zen: galtzak eta galtzerdi guztiak petatxoz josita zerabilzkien...

Joseph erabat samurtuta zegoen; alabaina aitak, ez zuen bere gutunetan halako premia gorririk aipatzen.

– Desagertu zenean, esan zuen Ainhoak, beste gertakizun bat oso aipatu zen. Hilabete lehenago, Donostian atentatu bat izan zen eta, komandoak ihesean Txinkoenean, justu Anjelen etxe pean utzi zuen autoa. Gero goardia zibilak eta ertzainak hor barrena ibili ziren, euren etxera sartu, dena miatu zioten. Egun batzuk geroago atxilotu zuten Lazaro, bere laguna zena. Kale ixtilu batzuk izandu ziren. Hori dela-ta, ihes egin ote zuen, ibili zen marmarra...

– Ez al zen izan, esan zuen Josephek, hilabete haietan, intsektu-plaga bat edo...

– Plaga bat? esan zuen Ainhoak. Ez naiz gogoratzen.

– Aitak bere azkeneko gutunean aipatzen zuen ba, esan zuen Josephek. Mitxirrikak eta... iñurriak, ere bai.

– Itxoin. Orain esaten duzula. Bai, gogoratzen naiz zerbait izan zela. Egia da, urte hartan arras ugaritu zirela xomorroak. Ni berak esanda ohartu nintzen. Mitxirrikak, arrazoia duzu. Ttikiak ziren, hegaletan marrazki polit-polit batzurekin. Eta beste batzuk, ez dakit ze xomorro klasea zen, hegalak urdin eta gorriak zituztenak. Eta iñurriak, ere bai. Badakizu zer gertatu zen –orain gogoratzen naiz: oso udaberri ona izan zen, elurra ere izan zen, gero eguzkiak oso berotu zuen eta... belarra ikaragarri hazi zen. Belarraren atzetik heldu zirela xomorroak, esaten zuen Anjelek. Eskarabajuak. Oso maite zituen, eskarabajuak.

Edan egin zuten biek. Pentsakor gelditu ziren.

Beti argirik gabe, kanpoan berriz, egun-sentiko argitasuna nabaritzen hasi zen. Neska-mutil batzuk trasteak biltzen ari ziren, mahaiak eta silak kanpora ateratzen ari ziren. Beraiek ere zutitu behar izan zuten, Ainhoak basoak eta botilak barrara jaso zituen. Orduan fijatu zen Joseph, paretean beste hainbaten artean zinta-kolaz paratuta zegoen txartel batekin: hortz izugarriekiko tren-monstruo bat, mendi bat urratzen, arrabaskatzen ari zen. «AHTrik ez», irakurri zuen. Ez al zuen Luis Marik-edo esan, aita mobida hartan ibili zela?

Neska batek sila bat eman zion, eramateko kanpora. Lorategian mutil bat, aizkora txiki batekin, aparadore bat txikitzen ari zen. Armario bateko ispiluan, bere burua ikusi zuen Josephek. Ikusgarri zegoen: begiak, ahoa eta sudurra oro bil-bil eginda aurpegiaren erdira...

Beste bi lagun, buzoekin jantzita, ur-toma bat edo horrelako zerbait egin behar zuten. Ura zikina zetorrela, komentatu zuten. Beste norbaitek beste zerbait esan zuen. Josephek, barrura begiratuz, Ainhoa eta bere lagunak bilatu zituen. Ez zituen ikusi. Nora sartuko ziren? Koltxonetak lu-

rrean zabalduta, lagun batzuk zakuetan sartzen ari zirela ikusi zuen. Lo pixka bat egitea bururatu zitzaion. Ez zuen merezi, ordea. Han atzeman zuen komiki bat gain-gainetik begiratzen egon zen. Gero kalera jo zuen. Freskoa nabaritu zuen. Gizon bat ibaira harriak botatzen ari zen, jolasean. Kale-horizonteari begira, ez zuen Ainhoa, ez beste lagunik hauteman.

Espaloian gora, kontuz ibili behar izan zuen ez inorekin egiteko topo; han eta hemen tipo batzuk geldirik baitzeuden; gutxi zebiltzan, ibili. Joseph okela deskargatzen ari zen kamioi frigorifiko batean sartzeko zorian egon zen. Portal batetik, neska batek begiratu zion.

Deskapotable zahar koloretsu batek aurreratu zuen abailan: bertan lau mutil zihoazen, ile gomatsuak atzera, builaka. Gero, ibai ondoko pasealekuan, beste lau lagun zeramatzan egurrezko karrito bat ebitatu zuen. Geldirik zegoen kotxe batean zegoen neska bati, zeharka begira, titi-burua ikusi zion; geroxeago berriz, titi-buru hura maletin batera jaso zuela iruditu zitzaion –nonbait, puta izaki-ta, gizonek, bezeroek zupa ziezaioten zeraman.

Pasealekua zelai batean amaitzen zen, non zenbait feriazale han-hemenkari beren postuak montatzen ari ziren. Eguraldi bikaina zetorren, etxekoandre batzuk eta lana galdutako edo jubilatutako gizaseme bat edo beste kuxkux hasita zeuden.

Joseph emakume aurpegi txabal, ilea painuelo batez bilduta zeukan batek atenditzen zuen fruta-toki baten aurrean gelditu zen.

– Zer jarriko dizut? galdetu zion hark.

– Nik... jarrizkidazu albarikoke batzuk.

– Ez dira albarikokeak. Proba ezazu bat –eta, Joseph dastatzen ari zelarik–: Familiakoak dira, baina handixeago, eta goxoagoak dira hauek. Kilo bat, jarriko dizut?

– Kilo erdia, jarri.

Kaja batean, aparte, zenbait fruta lizun edo pasatuxe ikusi zituen. Aitarentzat preparatuta, ote? pentsatu zuen Josephek, eta berehala uxatu egin zuen pentsamentu txoro hura.

– Besterik, jarriko al dizut? esan zion frutazaleak.

– Ez, besterik ez dut nahi –ordaindu eta, bere bideari segitu zion. Arrolara joan nahi zuen. Han-

dik aurrera izan behar zuen, ordea bide bat baino gehiago zegoen.

Kamio ondoan, pretil batean jarrita, bi gizon zahar ikusi zituen. Xinple jantzita, txapelaz, bizarra egiteke zeuden.

– Barkatu, esan zien Josephek, Txinkoenera joateko, hemendik al da?

– Txinkoenea? Hara al zoaz? esan zion beragandik gertuen zegoenak: zahar ñarro eta zarpaila, ahoan hortz bat edo beste besterik ez zuena. Han dago; elizaren atzean ikusten da ba. Ez, zuzendu zuen, Josephek nonbait behar ez zen tokira begiratu zuen-eta: Eliza hura ez, ondokoa, bestea.

Antza zaharrak ez zuen ondo ikusten, konfunditu egiten zen, ez baitzen han, berak esandako tokian, elizarik ageri.

– Han, han, esan zuen beste zaharrak: luxea, ximaila. Gorago, ez al duzu auzune bat ikusten? Hura da Txinkoenea.

– Nahi al duzue? Josephek fruta eskaini zien, luxeak ezetz egin zuen, besteak halakoxe gutiziaz bere hatz hezurtsuak poltsan sartu zituen, ale bat atereaz.

– Hara al zoaz? galdetu zion Josephi. Segi bide honi; galdu gabe ailegatuko zara.

Informazioa eskertuta, ja espaloirik ez zuen kamioan aurrera egin zuen Josephek.

Aurreraxeago, autobiaren azpiko tunel laburra pasa-ta, pare-parean, gaintxo batean ikusi zuen Txinkoenea.

Ez zen batere bertan, iristeko haran zabal bat zeharkatu behar zuen. Paraje ederrak ziren baina, zaharrak besterik esan bazuen ere, bide bat baino gehiago zegoen: bazen bat, ezkerraldean errebuelta eginda hara zihoana, eta beste bat, era berean errebuelta eginda bertara zihoana baina, bestea baino semizirkulo zabalagoa, leunagoa eginez. Gauza haiek denborarekin, ibilian, eta zebiltzan kotxe bakanei begiratuta ulertu zituen.

Atzean utzi zuen industria poligono baten gainean, bi makinatzar ikusi zituen, beren kutxara izugarriekin mendiari kozk egin eta hauts pila handia sortuz, etengabe jaisten ziren kamioiak lurrez betetzen ari zirenak. AHT, gogoratu zitzaion, atzera, Josephi.

Ja Txinkoenetik hurbil, azken albarikokea jaten ari zela, ixilago bazterrak, aldapa batean, gizon gazte bularrutsikako bat segaz belarra ebakitzen ari zela ikusi zuen. Inguru-minguru bi txakur txiki beltx, bata jolasean, mitxeleta bat harrapatu nahian, bestea hazka eginez, gibeleko hankaz. Aitak ez ote zituen gutun batean aipatu, «inguruko txakurren auriak»...?

Auzogunera heldu zen. Eta bertan, maldamaldan, aurreneko etxean, plaka batean jarrita: Arrola, irakurri zuen.

Etxe zahar, gris, ez oso handi bat zen, behean inoiz ukuilua izango zen (baina, orain, antigualeko *Dophine* kotxe batek okupatzen zuen) soto-gela bat zuena, goian berriz bi pisu, leihoak gorriz pintatuta, aspaldi.

Arras berdea zen inguru guztia. Goian, mendi lepoan, baseliza bat ikusi zuen. Txinkoenetik behera, errekatxo bat zihoan. Urrutira, behean, jende nimiñoa ikusi zuen herriko kaleetan. Ibaiaren ondoan, jendaki batzuk baratzetan, makurrik, afanean ari ziren.

«Egunez eguzkia bete-betean sartzen da –esaten zuen, gutun batean, aitak–, gauez berriz

izarreri guztia ikusten ahal da. Eguraldiak ikusten dira etxe honetatik».

Ahots lakar batek aterarazi zuen bere gogorazioetatik.

– Kaixo. Zer dugu?

Lehenbiziko pisuko leiho batetik, gizon lodi musu-ubel bat ari zitzaion.

– Hementxe; begira, esan zuen Josephek.

– Bueno, bueno, esan zuen gizonak. Kamiseta tirantekiko batez jantzita zegoen. Giro ederra dagoela-ta, erantsi zuen.

– Hala dago bai, esan zuen Josephek, eta gero: Zuk... Anjel ezagutuko zenuen?

– Anjel? Mutil bat izan zen hemen, izen horrekin.

– Ja. Josephek duda egin zuen, gizonaren begirada zorrotza somatu zuen. Haren semea naiz ni.

– Ño! esan zuen gizonak. Semea zuenik ere...! –apur batean ixilik gelditu ziren; gero gizonak–: Berton, berton bizi zen, bai, hura. Hara, bestaldera ematen du hura bizi zen gelak.

Gustora ikusiko zuela pentsatu zuen Josephek. Baina, gizonak gonbidatzen ez zuenez:

– Orain ere jendea hartzen al duzue? galdetu zuen.

– Ez! Aspaldi ez da inor etorri... Jendeak kalea nahi du! Hona ijitoek bakarrik nahi dute!

– Ijitoak, hemen al dira ba?

– Hor dira, bai! Hemendik ez dira ikusten, goitik bai, leihotik bai!

Ixilune luze bat izan zen. Joseph ohartu zen, gizona moztuxe zegoela. Berari ere ez zitzaion besterik bururatu.

– Hor barrena, ba al da jaistea? galdetu zuen, mendi-malda hausten zuen bide meharra seinalatuz.

– Bai! esan zuen gizonak. Bide-txiurra utzi gabe, erreka pasa-ta, gero eskubitara, behera!

– Bueno ba...

– Ondo ibili, bai!

Piku-ondo usaintsu baten ondoan, gero intxaur baten azpian pasa zen. Atzera begiratu zuen, etxera. Eguteran zegoen, gorago zeuden beste etxeetatik aparte. Ez zen batere toki txarra, bizitzeko, hura. Baina, aita desagertu zen han.

Errekara heltzen ari zela, maldan gora, lehen belarra ebakitzen ari zen gizon gaztea ikusi zuen, alkandora jantzita orain, txakurrak atzean zituela belar-axe handi bat sorbaldan zekarrela.

Ur-txirripa pasa-ta, beheraxeago, ijitoen kanpamentura heldu zen. «Ni bakarrik utzita –idatzi zuen, beste batean, aitak– joan dira, auzotik, ijitoak».

Zoko samarrean, eguzkiak poliki berotzen zuen han. Hiru-lau karabana, bi kotxe, haur andana bat lurrean jolasten ari zen, emakume bat su-tokiaren inguruan eskoba pasatzen ari zen.

Mendi bizkarrean behera segitu zuen. Haritz baso baten ondoan zebilela, ber-bertan, oihu bat aditu zuen; makurtu egin zen; miru bat ikusi zuen hegan.

Beherago, bidearen alde bietara, belaze ederrak zeuden, batzuk arestian ebakita, edo ardiak zebiltzala, beste batzuk ipar finak gozo erabilita, belar usua zutenak. Autobiako eta fabriketako hotsak oso apal iristen ziren hara. Txori batzuk lurretik sasitara, eta sasitatik arboletara zebiltzan.

Bide hark mugarik ez izatea, irrikatu zuen Josephek: ibili eta ibili, goian zerua zuela, iñarren eta laparren artean, ixiltasun handi hartan, gelditu gabe... akiturik erori arteraino.

Instant hartan dan, eta gero dan, elizako hilkanpaiak aditu zituen.

Igel-hankak

Lo al hago, Petra? Bukatu al ditun hire otoitzak? Egintzan Petra, egintzan lo-kuluxka bat orain. Gaua esnai pasa dun eta, egintzan lo-kuluxka bat orain. Begilune hago Petra, aurpegi zuri-zuria dun, oso gose izanen haiz. Berehalaxe ekarriko dinet salda, tupinen bor-bor hasi dun, salda gozo-gozoa paratu dinet. Hago lasai Petra, euria ari din eta ez dun inor heldu. Buila horiek? Etxarriko haurrak izanen ditun, Andresito-ta, kitoen haurrak izanen ditun, putzuan jolasean ariko ditun. Lehentxo Koskeneko artapatxue ikusi dinet, bidean goiti heldu zunan, pasa egin dun bai, xor-xor pasa dun, ez din hona begiratu, ez din deus ikusi. Ai ze zorte gaixtoa gurea, ze eginen dugu Petra, etzakinat ze eginen dugun. Ah hi zutik bahintz, erranen hioan duda gabe zerbait. Hi ona baihaiz jendeari solas emateko. «Egunon Bixente! Hezurrak eguzkitan goxatzera aterie!» Hik bai, erranen hioan! Hi, balientea baihaiz! Suspetxik ez egiteko erranen hioan zerbait ere hik! Baina ka! Hobe dinegu ixilik! Ixil-ixi-

lik! Ezin dinegu arrixkatu... Aida-aida! Zer eginen dugu, dios! Ederra egin dinet, ederra! Ama hemen balitz beñpein! Hark lagunduko liguken bai! Hark emanen linake belarren bat hiri. Hark paratuko linake bazkari goxo-goxo bat. Goxo-goxoa, Petra. Baina hura ez dun etorriko. Zera etorriko da! Ez dun etorriko, ez. Gaxoa hura ere, burua non daukan etzakin-eta, herrian makulua-rekin tirri-tarra xinple-xinple zabilen. «Luisito, ongi izanen duk?» galdetu zidanan, laño-laño, sukaldearen erdian zegoela galdetu zidanan. «Ongi izanen duk, Luisito?» «Bai ama», kontestu nionan, eta begiak apartatu nitinan, etorri zitzai-dan malkoa etzezan ikusi. Malkoa Petra, malkoa etorri zitzaidanan, malkoa franko egin dinet nik ere. Hik sufritu dun gaxoa! Orain ez hadi preoku-petu, orain egintzan goxo-goxo lo. Probestu zan, probestu zan hik etorri behar dutenak etorri baino lehen. Etorri eginen baitira, hori seguru dun, etorri gabe ez ditun egonen. Etorri eginen ditun eta aparte eramanen naine. Ez dun jende onik etorriko, ez. Ah jendeak balaki! Ah herrian gure alde eginen lukeen lagun bat, lagun bat ba-karra bagenu! Lehengo lagunik ez dinet-eta. Le-

hengo lagunek hilik uste naine, seguraski. Ikaratu eginen hituzken nik uste, aparezido bat naizela pentsatuko likene, naizen-naizenean ikusiz gero: arropa fardail, bizar luze, esku gorriokin. Aida, aida! Igelen odola dun Petra, ez ikara, ez bertzerik pentsa, igelena baita. Hi ere ikaratuko haiz! Kriminela naizela pentsatuko dun! Normala dun bai, hagitz normala dun, gaixtakeri haundiak egin ditinet hiri ere. Barkatuko didan Petra! Barkaidan, erranen dinet. Barkaidan, barkaidan, erranen dinet. Baina etzakinat erraten. Etzakinat deus erraten, sasikoa naun, inutila, solas ergelak erraten ditinet. Mintzatu nahi dudalarik marmar egiten dinet. Marmar Petra! Ikaratuta nion. Barkaidan, barkaidan, belarrian erranen dinet. Burua ferekatuko dinet, burua Petra... fereka! Apartatu eginen huke burua! Ikara didan bai. Ikarago, gaurgoiti. Zer egin dinet, alajainkia, zer egin dinet. Nik ez ninan nahi, ni igelak atrapatzera joan naun, Etxarriko putzura joan naun, Jainkoak bazakin ongi! Hi lo hintzen eta Etxarriko putzura joan naun. Ez ninan intentziorik Petra, ez ninan batere pentsatzen. Zertara etorri dun, zer erran din Petra, zer kalumnia erran din gaur An-

tonio Zeliguetak? Ni Etxarriko putzuan, igelak atrapatzen ari-ta (hiretzat Petra, hiretzat igelak atrapatzen ari nindunan), biligarroa hegaldatu dun eta bidean haren pauso-hotsak somatu ditinet. Hi lo hengoen, lo-lo, gau osoa esnai pasa-ta lokartu baihaiz. Lo ziaudenan kitoak ere beren karromato kaskarrean. Kri-kra, haren botak ezagutu ditinet. Bidea bustitzen delarik, Antonio Zeliguetaren botek kri-kra egiten zitenan. Heldu zunan hona! Zertara heldu dun? Zertarako gure usman segitu behar zuen? Petra, Petrika, hik sinistu behar didan, hik sinisten ez badidan nork sinistuko dit. Hik erran behar dun, tribunalaren aitzinean gauzak diren bezala erran behar ditun. Nik ez baitakit erraten. Niri etzidaten sinistuko Petra, ni bainaiz kulpaduna, nik hil baitut, nik hil dinet, esku-zar hauekin hil dinet Antonio Zeligueta. Lehengo kontuak ere bai Petra, den-denak erran behar ditun. Nola eraso egiten zigun: ez bagenuen pagatu behar, aldegiteko hemendik! Etxerik gabe, gu! Zakurra zela, hori erran behar dun. Bazakinan ongi ez genuela deus, bazakinan lanik gabe ginela eta jateko doi-doia... Eta hala ere herrira eraman zinan bere protesta, han

saiatu zunan. Dirua pur-pur izan eta guri horrela eraso! Guri, umiloi! Guri, erremexoi! Gizon anbizios eta malina! Beharrik herria gure alde atera zen, beharrik lege bat bazen gure alde eskribaturik herrian. Eta gero, hemen barna pasatu-bakotxean (bere goiko lurrak, bere propiedadeak ikustera zihoala), hiri bidetik, espantu haundiak eginez: «Ez egin patata! Soro horiek nireak dira! Alfer-alferrik ari zara hor!» Agoaundie! Errekontru bakotxean egiten zinan afrontu bat hiri. Eta gero-eta gero: «Arloteak! Tiroka aterako zaiztet!» Hori-hori-hori erran behar dun, Petra! Eskupetarekin beti. Gaur ere bazekarrenan, hik ikusi dun. Eskupetarekin egin zidan amenazo. Amenazo egin zidan, Petra! Guri zernahi egiteko prest zagonan Antonio Zeligueta, gu hemendik atera, lur-sail hauek salduko bazituen. Nork erran zinan etxeari su emanen ziola? Berak erran zinan, hiri! Niri etzidanan holakorik erranen. Niri beldurra zidanan, lazki beldurra zidanan niri. Hiri erraten zinan, hiri bakarrik. Eta eman eginen zionan, etxeari su, behin eta mila aldiz emanen zionan, emanen zionez, Antonio Zeliguetak. Kanpoko fina, gizon maltzur bihotz infamekoa! Barnean

kixkali-kiretsa zinan! Nork abarriketu zigun etxe gibeleko iturria! Berak! Bazakinagu hori! Eta nik-eta nik (Etxarriko putzuan, igelak atrapatzen arita): «Zakur hori berriz ere baziak gurera!» pentsatu dinet. Ni, putzuan, eta hi, ohean, ezin zutik egon, hiru egunean deus jan gabe-ta, zakurra heldu zunan behin-berriro ere! Estrakan goiti xauli-xauli etorri naun, arribatu naizelarik hona, atea zabal-zabalik eta, bera atera dun. Bekozbeko, ikusi nauelarik, azala mudatu zaion! Orduan ikaratu dun! Gibelka egin din, eskupeta altxatzeko imintzioa egin din eta, nik salto batean, kendu egin zionat eta danka! buruan jo zionat. Holaxe izan dun, hik entzun dun, hik ikusi dun. Kolpe bakarra jo zionat, kolpe bat-bakarra Petra. Lurrera erori dun, burua odoletan zuela erori dun eta daldar pitte bat egin din, gero tieso-tieso gelditu dun... Akaballa gaxtoa! Bere eskupetarekin Petra, bere eskupetarekin akabatu dinet. Etzakinat zer egin dudan gero. Estu-estu hona sartu eta hik, sukarretan: «Zer egin duk?» galdetu didan. «Hor gelditu dun», erran dinet nik. «Ez huen ba hilko...» Hire begiek dizdiz egin dine. Nire eskuei begiratu zienat... Aida, aida! Ez ninan

hil nahi Petra, gizon gaixtoa zunan baina ez ninan hil nahi. Hire begiek ikaratu naine... Deus erran gabe atera eta jakatik tireka arrastaka eraman dinet oilatokira Antonio Zeliguetaren gorpua, bidetik etzezaten ikusi, eskupeta apartatu dinet. Ez dinet larrasketara bota. Pentsatu dinet: larraska-zuloan arratoiek janen die, han ez dik errestorik utziko. Gero pentsatu dinet: metan izkutatuko diat. Baina alferrik dun. Hori pentsatu dinet. Alferrik dun Petra. Hil egin dinet, eta bazkaltzekoan haren amak erranen din: «Non dugu Antonio?» eta arratsean ez bada bihar goizean goiz hemen ditinegu. Atxeman eginen dine Petra, atxeman, atxeman eginen dine. Eta ni eraman eginen naine... Otsoa kaiolan sartuko dine... Gogoratzen, Petra? «Ootso borda zatarraa», erran hidanan, hona etorri hintzelarik erran hidanan. Otsoa kaiolan! Eta nori inporta behar zaio...! Bisita eginen didan Petra? Bisita beñpein? Amak ezinen din, ama zaharra dun, amak etzakin, burua erdi-galduta zagon. Arreba ere ez dinet uste etorriko denik, dagoenarekin eta dagoen tokitik ez dun etorriko hura... Hi, etorriko al haiz? Hi, beñpein? Hi ikusten ez bahaut,

penaz hilko naun Petra. Ja nire burua ziega batean ikusten ari naun. Ja plazan, herritarren burlak aditzen ari naun. Hi bakarrik haut. Hire begiek bakarrik ematen zidaten esperantza poxi bat. Petra, lehengo begirada horretan... bazunan ikara baina... bazunan mina ere... bazunan maitasuna, Petra! Petra, nik ere... Nik ere bai, Petra. Lehenago etzakinet, lehenago izorra egiteko baizik ez zunan izaten. «Kalekoa duk hori», erran zidanan amak. Ez ninan erran? Hire arribantxan, hemen hintzela erran niolarik: «Kalekoa duk hori», erran zidanan. Banakinan bai nik, Irunen, eta zertan ibili hintzen. Banekinan ongi aski. Hona berriz, mantxo-mantxo etorri baihintzen. Horrek galdu hau. Gauzak ziren bezala ikusi bahitu, ez hintzen hona etorriko nik uste: naizen ero honekin, borda zatar honetara. Nork erran behar zuen...! Arront sorprenitu nindunan, errekan izan ginen eta handik denbora batera, hona azaldu baihintzen. «Tipo batek akatu nahi naik», erran hidanan: Donostiako bat. Hire kausagatik kartzelan hiru urte egin zuelakoz hire bila zebilena. Puxka bateko etorri hintzen. Loka samarra hintzela, bai... Hemendik herrira xori-xori-ta, nik

erraten ninan: egoteko hemen. Hemen bizi nahi bahuen, egiteko nirekin, ez egiteko bertze inorekin, erraten ninan. Gona motx haiekin, gerria amarra-amarra eginda, gorrituta ezpainak, ea ferian saltzekoa ote hintzen! erraten ninan. Eta gero, sorpresa hura, nirekin gelditu hintzelakoz. Zer ikusi huen? Etzakinat, zer ikusi huen: iñorant hau, sudur txapal honekin, buruan ilerik ez aspaldi. Eta nire izateko manera... Abisatu ninan! Etorri hintzelarik, abisatu ninan. «Egintzan kasu, erran ninan, egintzan kasu nirekin, eroa naun ni». «Zulo batera heldu haiz», erran ninan ba. Baina hik irritan hartu huen. «Zoko-zokoan, bibik, enbor boteak bezalaxe ustelduko gaituk». Irritan hartu huen, alajainkia, irritan hartu huen... Ez hintzen ohartu, Petra? Ez hintzen ohartu, zertarako kapaza naizen? Gizon bat hiltzeko kapaza, Petra. Dios, dios, zer eginen dugu! Antonio Zeligueta aizkorarekin puxka-puxka egin eta zaku batean mendira eraman! Hori ere pentsatu dinet, Petra! Hori ere pentsatu dinet... Ez al huen ikusi? Ez, ez baihuen ikusi nahi izan. Hik kanpoan pasatzen huen eguna, Yarzaren etxean eguna pasa-ta ilunkeran etortzen hintzen

hona. Afaltzeko zerbait ekartzen huen beti, delantal ñabarra jantzirik hik preparatzen huen dena. Anitz zor dinet. Inoiz ez dinet erran, baina anitz zor dinet. Inoiz ez ninan erraten, ez ninan inkik ere erraten! Nik aldian ez bainuen senti emakume baten beharrikan hemen! Horregatik sapoztu egiten ninan, horregatik ekarri ninan Rosa Figueira gau hartan! Baina hik ez huen aldegin... Poliki-poliki hire tokia egin huen hemen... Eta gauzak nola eta nola egin behar nituen, erraten hidanan. Eta ni baratzan izkutatzen nindunan. Hura zunan nire mundua, Petra! «Hona ez etorri, erraten ninan: etxean egon, ez etorri hona!» Eta hala ere hik, lili koloretakoak paratu hituen, baratza bazterrean. Estimetzen dinet, Petra, inoiz ez dinet erran, aunitz estimetzen dinet. Baina nik barnean deabrua izan! Nik barnean beldurra izan, etzakinat zerena. Hi txol nirekin hengoen, eta nik pago-gisa, jo egiten ninan. Ardo txarrarekin arront mozkortu eta, makilarekin, paretaren kontra jotzen ninan, eta hik, negarretan: «Zergatik, erraten hidanan, zergatik...?» Eta nik: «Etzakinat... Etzakinat...» Eta hik: benga; eta lan bat bilatu behar nuela. Eta nik

erraten ninan: nik ez nuela behar! Eta periodikua ekartzen hidanan, eta bilatzeko, erraten hidanan. Nik periodikua gain-gainetik ikusten ninan. Ez ditinet maite paper haundi horiek! Primera-página-ta, «asciende el paro». «Ikusten ahal dun! erraten ninan, Florenciorenetik ere bidali ditine bakarren batzuk!» Artean paroa kobratzen ari-ta, hire xoxekin, bageninan askia! Bageninan errenta pagatzeko, eta jateko ere askia! Ez ninan anuntziorik ikusten! Sucesos ikusten nitinan: «Descuartiza a su mujer». Deporte pixko bat ere. Ez bainuen uste gauzak okertuko zirenik! Ez ninan batere pentsatzen... Baina hik, hire gauzak hartzen hituen baina, ez beti-beti-ta, hiru egunean utzi-ta, beñpein halako batean zorroa hanpaturik ikusi-ta, enbraza hintzela, erran hidanan. «Norena dun?» erran ninan nik. «Hirea», erran hidanan. Ah ze konten, ah ze airos ibili hintzen aldi batez, herrian hire lanak egin eta hona etorri eta mendian hire kasa, inoren beharrik gabe, animalixka bat bezala, belarrez belar. Ah ze harrotasuna! Ah ze hilabete gozoak...! Baina Luisito ez huen toki ederrera etorri. «Borda zahar horretan, apenas dago kondiziorik», erran zigunan

herriko neskak. Zeren ez dagoen komunik, zeren ez dagoen argirik. Eta nola hazi ziren, gure lehengo zaharrak! Aunke orduan, etzakinat izanen zen hainbertze arratoirik. Luisitok hamabortz egun, deskuidatuta bordan bakarrik utzi-ta, xextoan arratoi gris bat sartu zitzaionan! Aaah! Udaletxean erran bagenu, kendu eginen zigutenan! Kendu, alajainkia! Baina gu: pobreak ginela, baina aterako ginela! Hola pentsatzera heldu nindunan ni neroni ere! Baina hik egun batetik bertzera lana galdu, eta xalo-xalo erran hidanalarik: «Ez hadi preokupetu, ez dugu deusen eskasik izanen», orduan nik beldurra hartu ninan. Haurrarekin belaian ireulka-ta jostatzen ari-ta: Negua pasatzeko, aski patata eta banabarrik izanen ote genuen? Aski oilorik, salda egiteko, haurrarendako ere? Ni kezkatuta baina, ez ninan hiri deus erran. Utzi ninan, joan hendin kitoen kotxezitoarekin herrira, etzakinat nondik atera hituen gona luze, pitxi bakan haiekin. Baina nik banekinan, eskas ibiliko ginela. Ez bainuen ja parotik kobratzen. Aldi batez herriak laguntza poxi bat eman zigunan. Gero hura ere kendu. Orduan sartu zunan desgrazia etxe honetara. Luisito ez-

tulka hasi zelarik, zorigaiztoko gau hartan! Bost hilabete arras bete gabe, gaixoak! Alferrik izan zitunan hire berbenak, alferrik herrian eman zizkinen erremedioak ere. Oker eta okerrago, deus jaten etzuela, egun haietako amorrua...! Hi orduan hasi hintzen otoitzak erraten. Eta nik, sukar gaiztoak harturik, hiri ez aditzeagatik, kanpoan maldizioka, egurra txikitzen aritzen nindunan... Jainkoari galdegin hioan? Eta zer erran zinan? Non zen? Zertako ez zionan Luisitori eskua luzatu...? Barka, barkaidan Petra, etzakinat zer erraten dudan, Jaunak agian zeruan plazatuko din. Ingresatu zutelarik ja ez zinan negarrik egiten. «Negar egin zazu pottoko, erraten nionan, egizu negar...» Arratsaldean: «Lo siento», erran zigunan mediku zirinak. Biharamunean, lur-palakada batzurekin estali geninan... Borda gibelean haren arropatxoak erre eta gero mozkortu gintunan. Gau hartan hasi hintzen edaten hi ere. Gona luzeekin, herrira hihoala itzal triste bat hintzen: begiak negarrez hanturik, handik ogi bat eta ardo-kartoi batzuk ekartzen hituen... Bukatu zitunan patatak, bukatu oiloak, sosak ere akituek... Hiru egun zaramakinagu, hiru egun! deus

jan gabe Petra, urrupa ederrak eginez, hola Petra, etzunan harritzekoa gaixotzea, etzunan harritzekoa, Petra.

...Hara, salda prest zagon. Esna hadi Petra, esna hadi, salda paratu dinet. Aida, aida! Euli zikinak! Aida hemendik! Esna hadi Petra, esna hadi poliki-poliki. Paratu almohada gibelean, hola, eroso jarri. Katilu batean paratu dinet. Hartzan ba, goxoa baita. Zer dun? Zergatik begiratzen didan hola? Hara, salda gorria baita! Gorria zagon bai! Ardo xorta bota dinet, hiri gustatzen zain ba. Goxo-goxo zagon, honek indartuko hau. Berdura osto batzuk eta igel-hankekin paratu dinet. Baratxuri ale bat, badin gatz pitika bat ere. Zer uste huen ba? Hara-hara, ez huen ba pentsatuko... Antonio Zeliguetaren puxkak sartu nituela? Petra, Petra... hori pentsatu dun? Bueno-bueno, egin zitekeena dun! Jan egin genezaken, bai! Hartara etzunan haren arrastorik izanen. Tripa-besta haundia egin genezaken! Eroa naun, ba. Badakin baietz. Abisatu ninan. Erran ninan, ba. Hartzan ba, hartzan salda pitte bat. Bero-bero zagon, egintzan ufa-ufa. Hola, hola. Jan egin behar dun Petra, bizi behar dina-

gu. Honekin bizkortuko haiz. On eginen din. Ahula baihago. Kulinka baihago. Orain planta hobea dun. Loak ongi egin din. Goizean ikara eman didan emakumea. Ikara! Horregatik joan naiz Etxarriko putzura, igel batzuk atrapatu eta berdura batzuk bildu ditinet. Den-dena jantzan. Indartu behar dun, arratsalderako. Osatuko haiz ba. Gaztea baihaiz. «Hiretzat gazteegia», erran zidanan amak, gogoratzen al haiz? Hi ezagutu eta gero: «Hiretzat gazteegia», erran zidanan. Irri-murritza egin nionan. «Ni ere gaztea naiz ama». Hori erran nionan! Gaztea, hi, polita, hi. Jantzan jan, igela. Hartzan indar pitte bat, geroko. Arratsaldean ihes eginen dinagu. Ihes egin behar dinagu Petra, ihes egin behar dinagu. Bertzenaz, ni eraman eginen naine, hori nahi al dun? Ihes eginen dinagu, Petra, mugaz bertzaldera joanen gaitun biok. Indarra behar dun ibiltzeko, Petra. Ni ez bainaiz bakarrik joanen Petra, alferrik dun, ez naun hi gabe inora ere joanen. Orain arratsaldean, indarrean baldin bahago, aldeginen dinagu. Gero ikusiko dinagu... Eh! Nik ere aditu dinet, bai. Zer izan dun hori? Baten bat... Akabo gaitun! Nor ari da hor? Hago, hago

hi... Hara, bera baita! Zeligueta dun, Petra! Xauri, xauri agudo leihora! Etzagonan hilik! Altxa egin dun, bidera zian! Eskuak buruan dituela, eskupeta utzita bidera zian! Ez dun hil, Petra, salbo gaitun! Ikusi, ikusi nola korri egiten duen! Emaidan Petra, emaidan besarkada bat!

Leiho urdina

Igorrek, begiak irekitzean, soineko sinple batekin jantzitako neska luze bat, hanka-puntetan jarrita, leihoko kortinak zabaltzen ari zela ikusi zuenean, eskua aurpegira eraman zuen, ikaraz. Orduan, hotz-harrituta, haragia gogortu egin zitzaiola somatu zuen. Edo, ez zeukan aurpegirik? Kasu hartan, pentsatu zuen, eta pentsamentu honek apur bat kontsolatu zuen, okasioa aktore batena jartzeko profita zezakeen...

Hain estrainoa zen hura, Igorrek hilik ote zegoen, duda egin baitzuen.

Hala ere neska luze bat zen, bai, hartaz ez zegoen dudarik, orain beragana etorri eta eskua hartu eta atseginez, bere utilidadea komentatu, geroko planen bat aipatu ziona.

Halako batean, gelan beste norbait zebilela nabarituz, Igorrek burua jiratu zuen. Gizon ñarro, ile-txuri bat zen, hara eta hona zerbaiten bila bezala zebilena. Neskaren aita edo, seguruago, haren osaba izango zela pentsatu zuen Igorrek.

Beraiengandik gertu pasatu zelarik, Igorrek kasu egin zion, eskua jasoaz. Alabaina, hark ez zuen ikusi, edo itzal bat zela konprenitu zukeen.

– Gizon hori pasa da (esan zion, gizon ñarroa bere bista paretik aienatu zelarik, ahots marketsaz, Igorrek, neska luzeari), eta ez nau ikusi. Zuk bakarrik ikus nazakezu, ez duzulako baitezpadakoa, ez duzulako heriotza onartzerik nahi.

Espaziorik ez zuela jadaneko betetzen, erakutsi nahi izan zion, baina egia zen, neskak berari erakutsi zionez, ezin zirela bi-biak espazio ber-berean egon; beso bat agian bai, baina ez osorik, naturalki.

Igorrek zutitzeko imintzioa egin zuen: baldin eta... –baina ez, alferrik zen, bera gazterik hiltzera kondenatuta zegoen.

Neska luzea bere ondoan jarri zen. Sudur kakoa zuen, begi grisak, irribarrea ezpainetan. Ezer nahi ote zuen, berarekin? Noski konturatuko zen, Igorren eskua bere izterraren gainean suertatu zela –baina ez zen hartan, nahitaez, areagoko intentziorik ikusi behar.

Neska kalefazioaz, norbaitek ekarri behar zuen telebista batetaz mintzatu zitzaion –nola-

bait, ulertzea iruditu zitzaion Igorri, neskak erakutsi nahi zion, bertan hainbat egun pasatu behar bazuen ere, nola baitzen kasua, antza zenez, ez zela aspertuko, ez zela hotzak egongo.

Gizon ñarroaren pauso-hotsak berriz hurbildu zirelarik, neska sudur-kakoa jaiki egin zen eta, trapu bat hartuta, muebleetako hautsak garbitzen hasi zen. Orduan konprenitu zuen Igorrek, etxe hartako neskamea behar zuela. Gizon ñarroak halako erdeinuz erabiltzen ote zuen, gainera, telefonoz hitz egin behar zuela-ta, neskari, solasa ez aditzeko, urruntxeago egoteko, agindu zion.

Hura leihoz kanpora begira tel-tel-tel telefonoan ari zelarik, neska luzeak armarioa zabaldu eta manta zahar batzuren gainean makurtu egin zen.

«Ah, zeinen ipurdi gozoa», pentsatu zuen, miretsita, Igorrek.

Gizon ñarroak bere telefono solasa amaitu zuelarik, sobra’re armarioan gertatzen ari zenaz deus sospetxatu gabe, irten egin zen gelatik, atea erdi irekita utziz.

Irratian, Sebastian hil zutela aditu zuenean, Igor oso urduri jarri zen.

Eibarren izan zen, poliziek organizazioak bertan zuen pisu frankoa asaltatu zutela.

Sebastianek polizien kontra tiro egin zuela esan zutenean, Igorrek pentsatu zuen, inprobablea zela estremo hura.

Zeren, eta beronek jarri zuen hain zuzen ere Igor urduri, berari eman baitzion bere pistola, Sebastianek, egun gutxi lehenago.

Arratsalde berean, Udaletxeko batzarrak Sebastianen hilketa sala zezan asmoz, hainbat lagun, Igor artean zela, batzar-aretora joan zen.

Helburu horixe zuela, Koxme zinegotziak hartua zuen hitza. Ordea, nonbait, irakurri behar zituen paperak galdu-ta, bere interbentzioa inprobisatzen ari zen.

– Salatu behar dugu... inequivocamente... zeren, herriko seme bat, kuttuna bera...

Mihia behin eta berriro trabatu zitzaion –ezagutzen ez zutenak ere, izan zen Igorren arranku-

ra, ohartu egingo ote ziren, edanda zegoela; eta hala ere saiatu zen, Koxme, hitz merke eta larriak ebitatzen.

– Dinbi-danba sartu eta legea... beraien legea ere...

Eta bertan etena egin zuenez:

– Legea... –lagundu zion Igorrek, baina nonbait ez zen hori, erabat besterik zen Koxmek esan gura zuena.

Orduan Ignaziok hartu zuen hitza, eta alkateari protesta-gutun bat helarazi zion, zeinean herriko hainbat elkartek beren protestaren arrazoiak azaltzen zituzten.

Alkatea, bere jendearen babesean, besteak baino altuxeagoko aulki batean erdi etzanda zegoen. Ignaziok bere berbaldia amaitu zuenean, hark esan zuen, ez zuela «zuen proposamen horretan» (eta hori esatean, kasualki, begirada Igorrengan pausatu zuen) fundamento handirik ikusten. Bestalde, gogoratu zuen, mozioa aldez aurretik eta ohiko tramiteak segituz aurkeztu behar zela.

Salan zirenak orru eta txistuka hasi ziren –harezkero oso argi zegoen kondena-mozioa ez zela aterako aurrera.

Alkatea hitz egiten ari zela, Igor salan bilduta zeudenei begira egon zen. Bazen jende ezezagguna, erabat beraien kontrakoa iruditu zitzaiona. Lehenbiziko lerroan, aulki luzearen ertzean zegoen gizon batek kasu, irribarre misteriotsua zeukan. Eta beste batek... Izan ere, egun haietan oso zaila zen jakiten, zein euren kontra, eta zein alde zuten.

Plenoa amaitutakoan, alkatea-ta gibeleko atetik ihesi joan-eta, lagun ugari bildu zen Udaletxeko arkupetan, eta zenbait oihu ezagun eginez manifestazioan joan ziren goiko plazaraino. Batzuek besoko beltzak zeramatzaten: noski beren dolua, beren mina adieraziz.

Gauean izan ziren asaltoak, barrikadak, han eta hemen polizien interbentzioak ere ugari izandu ziren.

Gero Igor, errebolta nolabait bukatu egin bide zen-eta (hala ere, gutxi samar ez ote zuen iraun), kontrola berreskuratzen ari ziren polizia maskaratuen artean ibili zen. Bazekien haiek

noiznahi hartu eta jipoitu egin zezaketela. Baten batek salatu egin ziezaiekeen, «haietakoa» zela, «haiekin» ikusi zuela.

Biharamunean, Sebastianen ehorzketa izan zen. Eliza jendez beteta, hildakoa bere kutxan, apur bat lurpean sartzen zen zulo batean paratu zuten.

Apaizak (agi denean, familiaren laguna) heriotza aipatu zuen, zelan Sebastian joan zen eta zelan beraiek, bizirik zeudenak, beren lagunaren heriotza zela-ta orain mundu ilunetik hurbilxeago ziren...

Igor harritu zen, bere inguruko guztiak negarretan ikusiz: batzuk malkoa kokotzeraino, batzuk masail erdiraino, begiak gorri-gorri eginda... Elizara sartu ziren haur batzuk ere, imitazioz beharbada, negarrez ari ziren, beste batzuek berriz serio-serio begiratzen zieten, lehertzera deziditu gabe.

Elizatik irteteko garaian, elizkoien lerroen artean xirri-xarra ibili zen Igor. Atarian Jesus, Sebastianen anaia, ikusi zuen, eta harengana joan

eta besarkada estu batez, bere adiskidetasuna adierazi nahi izan zion –gauza askok, artean politika zela, berexi egiten zituen, baina guztiak alde batera utzi beharra zen, une samin hartan.

Gero, bakarrik gelditu zenean, Venancio itsuaren txakur txumeak bere galtza-barrenari heldu zion, eta Igorrek, aska zezan, hankari astin-astin egin behar izan zion, fuerte xamar, zeinarekin txakurra despedituta irten zen, eta burua elizaurreko harri baten kontra jotzeko zoritxarra izan: lurrean etzanda, negar-zinkulinak eginez gelditu zen, eta Venanciok bere txokotik, madarikazio bat bota zuen, eta Igorrek, beti xirrixarra, alde egin zuen...

Iluntzean, San Blasera zihoala, goardia zibilen kontrol bat igaro zuen Igorrek.

Felix eta Xantirekin gelditu zen, berak ezagutzen ez zuen Xangai izeneko tabernan.

San Blas kalea, hezea eta likitsaz aparte, hain zen kale estua, zenbait zatitan jendeak lerrolerro ibili behar baitzuen, lokatza zapalduz. Hala

ere bertan familia pobre asko bizi zen, gela bakarreko etxe txiki-txikietan.

Taberna kanpoan neska bat ikusi zuen Igorrek. Gizaseme batekin trukatu zituen keinukerengatik, neska hark gizon-jendearekin nolabaiteko puta-harremana zuela ulertzea iruditu zitzaion.

Hari (bertakoa zela suponituz) galdetu zion Igorrek, ea beheraka segitu behar zuen, edo norantza.

Atean jotzeko, esan zion neskak. Ordea, hiru ate zeuden.

– Behera? insistitu zuen Igorrek.

– Atean jo, berriz ere, neskak.

Orduan ateetako bat (behekoa, Igorrek esaten zuena) ireki eta, gizon zahar bat atera zen handik.

Barruan jende asko zegoen, batzuk beren kafetxoekin, kopak edaten gehienak.

Ailegatu zirenean Felix eta Xanti, zerbeza batzuk eskatu-ta, hirurak mahai baten inguruan eseri ziren, zigarriloak piztu, bezperako gertakizunez mintzatu ziren. Sebastian hil eta gero gau-

zak zelan gelditu ziren, handik aurrera zer egin zezaketen, izan zuten eztabaida.

Felixek eta Xantik gogor hitz egin zuten: ya-que-ta zuzendaritzak ekintza armatuetan ez parte hartzeko, akonsejatu zien, zeren eta beraiek lan «politiko» bat ari ziren egiten (banaketa bat zeinarekin Igor ere ez zegoen batere ados), nola baitzen (orobat Igorrek dudan ipiniko zukeena) zergaren kobratzea –hala baitzebiltzan, askok baitzekiten, gauza sekretua suponitzen zen arren. Baina bueno: ya-que-ta, beraz, ekintza zuzenetan ez zieten uzten parte hartzen; esan omen zieten, noski, beraiek ere izango zutela misio inportante bat aurrerago, eta abar; baina eurek uste zuten ekintzak zabaltzeko eta intentsifikatzeko unea iritsi zela; eta, guzti horregatik eta guzti horren ondorioz:

– Geure kasa hasiko gaituk, esan zuen Felixek.

– Geure kasa? Baina hori... ezin zitekek, objetatu zuen Igorrek.

– Lagunak hil, esan zuen Felixek, presoak beren ziegetan usteltzen ari-ta, guk bitartean,

politikoek hala erabaki-ta, besoak antxumatuta gelditu behar al dugu?

Xanti ados zegoen inondik ere; Igorrek eszeptizismoz begiratu zien.

– Estatua oso indartsua duk... Guk bakarrik ezin zezakeagu...

Ordea, Felixek eutsi egin zion bereari.

– Gu bazterrean utzita (izan zen, bere argudioetako bat), hor barrena gazte inexperto asko zabilek. Guk erakutsiko zieagu ba, zer den ondo tiro egitea.

Bazituela gainera, esan zuen, aurrerantzean egin zezaketenaz ideia konkretu batzuk.

Igor oso harritu zen, atrako bat aipatu zuenean. Are harrituago, Xantik esan zuelarik:

– Bazaukat banku bat nik, begiz poliki jota.

Eta bertan hasi ziren Felix eta biak atrakoaren alderdi konkretu batzutaz hizketan: edifizioan zelan sartu, bakoitzak non kokatu behar zuen...

Nahiz eta, bere printzipiozko ez-adostasunarengatik, ez ekintza hartan parte hartzeko prest egon, Felixek, zeukaten bakarraz gain, beste arma bat beharko zutela esan zuenean:

– Nik badiat Sebastianena, esan zuen Igorrek.

Goizean goiz, Felixek esandako tokira Sebastianek utzi zion pistola eraman behar zuen Igorrek.

Etxetik irten eta oso laster berriz, kale nagusian bertan, auto batean poliziak somatu uste zituen, kiriketan, ilunpean.

Igor karrikatxo batean sartu zen, korrika txikian metro batzuk egin, gero kale zabalago batera atera zen.

Sirena hotsa aditu zuen eta, ez urruti, tiro pare bat. Bi mutil, haietako batek ogi handi bat zeramala, korrika pasatu ziren. «Beroien atzetik ibiliko dituk», pentsatu zuen Igorrek, ibilera pixka bat gozatuz.

Kale-kantoian ordea, polizien autoa ber-azaldu zen, eta poliki-poliki beragana hurbildu.

Igorrek, ikusi ez balitu bezala, kalea zeharkatu zuenean, polizien autoa gelditu egin zela, iruditu zitzaion.

Bere burua lasaitzen ahalegindu zen. Eskailera batzuk igo zituen, handik Zumardira jo. Lan-

garra hasi zuela-ta, xirako txanoa jantzita zeraman.

Laster azaldu zen berriz ere autoa. Igor, segitu egiten zutela jadaneko seguru, pistola nora bota, zelan galdu, asmaketa zebilela, polizien autoa semaforo batean gelditu zen.

Eta oso bat-batean, auto hartatik bi tipo atera, eta korrika, zuzen-zuzenean beragana etorri ziren. Igorrek, buelta erdia egin eta ihesean saiatu zenean, lurreko koska batekin estrapozo egin-eta, lurrera jausi zen...

Burua jiratu nahi izan zuenean fusil batetik haren zulo beltza baizik ez zuen ikusi.

– Ez, ez! oihu egin zuen, izu bizian: berak ez zuela ezer egin, berak...

Geldirik egoteko! oihu egin zioten. Lurraren kontra aurpegia...!

Izututa erabat, hautsa bezalako hondar finfina irentsi zuen; eta ezina zen ezeren esplikatzea, saio minimoa errebeldia-keinutzat interpreta eta bertan porrokatu, bertan begi bat ken ziezaioketen (une hartan oso zitekeena zela iruditu zitzaiona).

Zenbait minutuz eduki zuten hala. Halako batean polizia batek esan zuen:

– Ea, goazen komisaldegira.

Eskuturrekoak ipinita, saihetsean ostiko bat jota jaikiarazi, furgonetan sarrarazi zuten.

Bi polizia izugarriren artean, Igor daldarka zihoan. «Probablemente, pentsatzen aritu zen bidaian, probablemente orain niri leporatuko didate Rijoso komandantearen hilketa (baldin eta atxeman didaten piparekin garbitu bazuen Sebastianek)».

Kanpotik baizik ezagutzen ez zuen komisaldegi handira iritsita, marmolezko eskailera grisak igoarazi zizkioten.

Bigarren edo hirugarren pisuan izan zen. Pasiloan aurrera zeramatela, eskumara, kanilapean erdoil-arrasto zaharra zuen lababo bat ikusi zuen, aurreraxeago gela batean, besaulki bat eta, mahai apal baten gainean, telefono-gida...

Pasiloan bertan, aurrez aurre berriz, marko urdina zuen leihoa zabalik.

Jauzi egindakoan zenbait uso hegalka hasi ziren...

Igor, aurreko egunetako gertakizun haietaz batere gogoratzen ez zena, gela txurikara hartan, erabat harrituta zegoen, bera aurpegia gogortuta etzanik eta, neska luze hark armario barruan, berari ipurdia erakutsiz, makurtuta zer zela-ta segitzen zuen, eta erdi-zabalik laga zuen ateaz haratago berriz, gizon ñarro, ile-txuri hura, pasilotik zer zela-ta trabeska eta zorrozki begira gelditu zitzaion.

Elkar maite bazuten

Madriletik zetorren tren batean ezagutu zuen Maisa. Udan izan zen, oporrak han pasa eta biak-ala-biak elkarren pareko literetan suertatu zirela.

Soineko urdina zeraman, izterrak, erdi iluntasunean, maindire artetik ageri samarrean. Begira egon zitzaion. Azal beltzarana, gogorra zeukan. Ile beltza, kizkurra. Ahoa erdirekita, lo etorri zen bidaia guztian.

Horixe komentatu zion Josek goizean, neska bere literan jarri, esna-ondoko harriduraz begiratu zionean.

– Ederki egin duzu lo, esan zion Josek.

– Bueno, esan zion neskak, familiaridade harrigarriaz. Neure ohean hobeto egingo nuen baina.

Parez pare jarrita zeudela, neskaren begi argiei, ezpain ubel haragitsuei begira gelditu zen Jose.

– Eta zuk, galdetu zion neskak, ondo egin duzu?

– Ez oso ondo... aitortu zuen Josek.

Neskak irribarre egin zion, zapatilak lotzen ari zela.

– Nora zoaz? galdetu zion, alai.

– Donostiara, esan zuen Josek. Eta zu?

– Ondarrura. Donostiako geltokian, hara eramango nauen lagun batekin gelditu naiz...

Donostian, inor ez zegoen bere zain. Pixka batean sarreran egon ziren biak, gero denbora egiteko, nahi baldin bazuen kafetegian zerbait hartu, gonbidatu zuen Josek.

Ordubete egin zuten, bokadiloa erdi bana jan, zerbeza bana hartu, zenbait zigarrilo erre. Alabaina, inor ez zen haren bila etorri.

– Zer egin behar duzu orain? galdetu zion Josek.

– Ez dakit honezkero autobusik izango dudan, esan zuen Maisak.

Geltokian bertan informatu zirenez, minutu batzuk lehenago, hamarretan atera zen azkeneko busa.

Biak espaloian, Maisa arras zer egin ez zekiela zegoen.

– Nahi baduzu nire etxera etorri, esan zuen Josek.

Eta, esan eta batean, harrituta gelditu zen: inoiz ez zion-eta inongo neskari horrelako gonbidapenik egin. Ez zegoen etxera neskak, ez beste lagunik, eramaten ohituta. Alabaina, horren berez, horren naturalki gertatu zen dena... Ez zion esan Maisari hala ere, bere gelan baizik ez zeukala tokirik. Baina bai esana zion lehentxeago, ikasle pisu batean bizi zela; bestea, berez ez ote zihoan?

Kontu kontari (ahotsa pittin bat grabetuta biak, bazekiten zertara zihoazen) heldu ziren Alde Zaharreko etxeraino. Joseren gelan sartu bezain pronto eman zioten elkarri musua, nabaritu zuen estraina Josek Maisaren lila umelen usaina...

...Eta hartan, larrutan ari zirelarik, neskak mihiaren erroan eta behatzetan sentiarazi zizkion kalanbre haiek, beste sekula beste inork sentiarazi ez zizkionak...

Oso gau polita eta estrainoa izan zen. Gero goizean, kaleko fotomakina batean argazki batzuk atera zituzten. Kafetegi batean elkarrekin gosaldu, Joseri oso gustatu zitzaion musu sentzilo batekin despeditu ziren.

Beste behin ikusi zuen, taberna batean. Handik urtebetera izan zen, Hernaniko jaietan. Egun hartan baina, Maisa koadrila batean, mutil baten besoari helduta zebilen; bere nobioa izango zuela, pentsatu zuen Josek.

Halako batean Maisa, artean bera ikusi gabe, komunera zihoala ikusiz, Jose hara zeraman, jende asko zebilen pasilo meharrean zain gelditu zitzaion.

Denbora hartan, eta hilabete batzuez geroztik, Jose, bizitzan aurreneko aldiz, neska batekin formal antxean zebilen. Bazuen nobia bat, beraz. Hala ere harreman hark, baretu partez, kezkaiturri zitzaion. Ez baitzuen batere garbi ikusten, bere amak, bere inguruak, neskak berak nahi zutela zirudienez, egun batean biak elkarrekin bizi, familia bat osa zezaketenik. Agian Maisak (pentsamentu hau tabernako enkontru hura eta gero maiz ibili zuen) beste zerbait eskaini ziezaiokeen, agian erortzen ari zela sentitzen zuen zulo ilun hartatik atera zezakeen pertsona bakarra izango zen...

Tabernako pasilo meharrean ziren. Maisa, komunetik irtenda, berarekin aurrez aurre topo

eginda, aurrena, ez zuen ezagutu, gero berriz, berehala, haren ezpain ubel, anpatuetan, irribarre bat agertu zen eta, hitzik esan gabe, Jose besarkatu zuen indarrez.

Hala egon ziren, segundu gutxitan. Gero Josek, neska pittin bat apartatuz, haren begietara so, zera esan zion:

– Zurekin egon nahi dut.

Orduan Maisak, bere hatz erakuslea mutilaren ezpainetara eramanik, ahoa itxi zion eta, besarkadatik askatuz, atzeraka zihoala bere begirada Joserena utzi gabe luzaz, jende artean barrarantz, bere lagunengana joan zen.

Ez zerurako ez lurrerako gelditu zen Jose. Hanka sartu ote zuen, «zurekin egon behar dut» esanda? Alabaina Maisa izan zen, bera fuerte besarkatuz, hitz haiek esanarazi zizkiona. Eta, berezi eta gero ere, guztiz iñarrosi zuen begirada luze harekin, zer esan nahi izan zion? Bazen desioa, bazen mina, bazen esperantza begi haietan... Zergatik alde egin zion hitzik esateke? Ez zuen, probablemente, Maisak une hartan konplikaziorik nahi izango, seguru aski besotik helduta etorri zen mutil harekin, edo beste inorekin, bere

bizi-planak izango zituen... Eta hala ere... ez ote zion, begirada hartan, maitasuna eskatu prezeski? Ez ote zion, zehazkiago, «nire zain egon» esan nahi izan begirada harekin neskak? Josek horrelaxe sentitu zuen behintzat.

Guztiarekin, hilabeteak joan ziren eta, minak min, enkontru hark bere baitan sortu zuen egonezina denborak pixka bat epeldu, ahaztuarazi zizkion.

Bestalde Josek bere nobia formal antxeko harekiko harremana hautsi egin zuen handik hilabete gutxira. Laster, karrera amaitu gabe, Gipuzkoan eta Nafarroan barrena dendaz denda errepresentante gisa lanean hasi zen. Horrek ez zuen, dena den, bere lagunen zirkuloa zabaldu, oso alderantziz. Zeren, alde batetik lankideekin (gazte ausart, independienteak, kuraiaz eta dinamismoz beteak) ia batere harremanik ez zuen eta, beste alde batetik, Donostiako bere ikasle lagunak ere, nor bere herrira, nor bere zereginetara sakabanatu zirelarik noski, bera Hondarribira, bere amaren etxera itzuli zen.

Hurrengo urteetan aldian aldian, Maisa gogoratzen zitzaion. Bere baitan, eta gero eta gero bi-

ziago, sentimentua zeukan, *huraxe* izan zitekeela... Baina, kasu egiterik ez zuen! Izan ere, ez estraineko hartan, ez noski Hernanikoan ere, ez baitzion Maisak non bizi zen esan, ez zion bere telefonorik utzi... Azken-azkenean, beste hainbat harremani buruz egin zuen bezalaxe, harreman hari buruz ere, etsi egin zuen Josek. Bestalde, amarekin lasai samar bizi zen, halako konplikaziorik gabe esate batera, tartean tartean (egia da, geroz eta tarte luzeagoez) nobia iheskorren bat izaten zuen, eta besteen aurrean axolagabe, xaloa azaltzen zen... Sakonean berriz, min geroz eta handiago batekin: urte alaiak pasata –sentitzen zuen–, bere gazte denborako ezaugarri izugarri hura: malenkolia, bakar-zaletasuna, areagotzen ari zitzaion.

Urteak joan ahala, geroz eta konszienteagoa zen, bere bizitzak ez zeukala, mundu hartan behinik behin, inolako zentzurik. Amarentzat ere, lagungarri baino, zama bat zela bera. Ezkondu ahal izan zuenean ere, matrimonioaren gezur higuingarrian (halaxe iruditzen zitzaion!) parte ez hartzeagatik, nobia sapoztu zuen. Lagun geroz eta bakanagoekin berriz, ez zuen txikiteo-

an, ez karta-jardunean inolako atseginik hartzen. Ez zen pozik bizi, sakon-sakonean zerbait falta zuen. Nork daki, Maisarekin... Eta, pareteko txokorik aukerakoenean ezarri zuen, biak azaltzen ziren argazkiari begira: bera, gaizo aurpegi harekin, eta neska, bere irribarre misteriosoaz, bere begi argi eta serioez... hari begira bada, elkarrekin pasatako gaua, gau delizios hura, eta handik urtebeteko Hernaniko enkontru labur, arraro hura, gogoratu eta, berriz ere, inpresioa izaten zuen... «Zain egon», adierazi zion Maisak; eta bera halaxe zegoen: zain...

Egun batean, enkargu bat eginda Hernaniko plaza zeharkatzen ari zela, Maisa kale-kantoi batean ezkutatu zela iruditu zitzaion. Korrika joan zen baina... ez zuen inor ikusi.

Beste behin, tranbian, bere aurrean ateratzen ari zirenen artean ezagutu zuen. Orduan, atzetik hurbildu zitzaion eta haren eskua ferekatu. Neska itzuli zelarik ordea, nahastuta, hura ez zela Maisa, konprobatu zuen.

Desio zuen hura berriz ikustea, harekin berriz egotea. Horratx egia. Harexen beharra zeukan.

Beste behin...

Gaueko hamabiak paseak izango ziren, Jose bakar-bakarrik, kopa bat hartzen aritu zen Irungo taberna batetik irteten ari zela, ile txuridun emakume bat duda-muda hurbildu zitzaion.

– Zu ez al zara... Jose? galdetu zion.

– Eh... bai, esan zuen Josek.

– Hara, emakumeak irribarre maxkala egin zuen, Maisaren izeba naiz ni.

– Maisaren... izeba? Jose erabat harrituta zegoen.

– Haren izeba naiz, bai, esan zion emakumeak, begietara begira. Maisak bere gelan daukan argazkitik ezagutu zaitut.

Jose zeharo harrituta zegoen.

– Maisa... esan zuen, emozioz, non bizi da ba?

– Nirekin bizi da, esan zion emakumeak, Hondarribian.

Hondarribian...! Bertan izan eta inoiz ikusi ez...!

– Maisa gaisorik dago, esaten ari zitzaion emakumea; eta, ezer esateko betarik emateke: Zeu ikusita, asko poztuko litzateke, erantsi zuen.

Emakumeak villa baten izena esan zion: «Urresti». Jose harritu zen, inoiz izen hura entzun ez izana.

– Zakamuñoko bidean dago, Hendaiari begira, esan zion emakumeak.

– Joan egingo naiz, bai, esan zuen Josek.

Beti begietara begira, orain emakumeak eskua heldu zion.

– Etxe txikia da, esan zuen, baina ongi etorria izango zara.

– Bihar bertan... esan zuen Josek.

– Afalondoan etorri, esan zion emakumeak, eta eskua pixka bat estutu eta gero, kalean behera, gaueko iluntasunean galdu zen.

Biharamunean ama poztu egin zen, zenbait detailerengatik Jose neska batekin gelditu zela igarri zuenean.

– Ondo pasa, esan zion etxeko atarian, inoiz esaten ez ziona.

Gaueko hamarrak, jo zituen elizako kanpaiak. Zakamuñoko etxe ugarien artean, Josek ez zuen berehalaxe topatu «Urresti». Zorionez, eskailera baten gainean, ustez karrikako argiak konpontzen ari zen gizaseme bat topatu zuen.

– Barkatu, esan zion Josek, Urresti...?

– Urresti? esan zuen gizonak, egiten ari zen lanari lagata. Ah bai, Urresti. Beraiek dira argia ipintzeko, abisatu didatenak. Zenbait etxe haratago dago, ezkerretara.

Kalean gora segitu zuen Josek. Handik minutu pare batera, lorategi handi, baina abandonatu batek inguratuta, txalet txiki baten atarikoan, «Urresti» irakurri zuen. Etxe zaharra zen, aspaldi erreformatu gabea. Greziar itxurako eskultura bi zituen, sarreraren alde bietara. Isil-isilik bazterrak. Etxeko atea bestalde, erdirekita zegoen. Beraz Josek, atzematen ez zuen txirrinaren bila zebilela, etxe barrua ikusi ahal izan zuen, ilargiaren argitan: zenbait tapiz, mueble eroso eta dotoreak...

Sartu ez sartu, hala zebilela, bat-batean atea zabaldu egin zen eta, kandela baten argitan, Maisa azaldu zitzaion. Maisa izan behar zuen behintzat, nahiz eta, soineko beltz luze harekin, beste bat iruditu, eta aurpegi mehe hartan (kandelaren argiaren efektu deformatzaileaz ere bai agian), Josek haren hezurren forma oinarrizkoak, eta begi argien dizdira baizik ez zituen ezagutu.

– Etorri zara, azkenean! saludatu zuen Maisak, asaldaturik, ahots erlats eta daldartiz.

Jose, aurrera pauso bat emanik:

– Maisa... hasi zen, emozionaturik, nahi gabe pena-doinu batekin.

Hargatik Maisak, atea Joseren atzean itxiz, irri egin zion.

– Horren gaizki ikusten al nauzu? galdetu zuen, burlati.

– Ez, baizik eta... nahastuta nago, giro ilun honetan...

– Ikusten duzu ba, esan zuen Maisak. Atzo aberia bat izan genuen, uste nuen gaurko konponduko zutela.

– Bai, esan zuen Josek, hor beheraxeago elektrizista bat ikusi dut...

– Baina etorri, etorri, eten egin zion Maisak, nire lo-gelan lasaiago egongo gara.

Josek jarraitu zion. Arin zihoan Maisa, bere soineko luzeaz ukiturik lurra. Korridore labur baten buruan, bere gelan, kanape luze batean jartzeko seinale egin zion Joseri, eta bere alboan, sotilki eseri zen bera.

Maisaren aurpegia, Josek gelan ziren beste bi edo hiru kandelaren argitan ikusi ahal izan zuenez, biziki mehea ezezik, horixka ere zen, eskuak bezalaxe, argizarian landutako esku luze eta ximailak. Josek inoiz baino bere premia bortitzagoa sentitu zuen, eta berriz ere:

– Maisa... hasi zitzaion.

– Ez erruki nitaz, esan zion Maisak ironia punta batekin. Zer esan dizu bada izebak?

– Gaisorik zinela...

Maisak berriz irri egin zuenean, Josek hotzikara bat sentitu zuen.

– Ez nago gaisorik, esan zion neskak. Bakarrik... min ematen dit egunaren argiak.

Komentario hark lasaitu egin zuen Jose.

– Horixe gertatzen zait niri ere, esan zuen, orain bera ere barrezka, eta gehiago eutsi ezinik Maisagana makurtuz ezpainetan musu lebe bat ipini zion. Ezpain ubel, iaia hotzak, zeinetan gogo-gogoan zeukan lilen usain arras berezi hura aldian baino sendoago nabaritu zuen.

Haur bat zirudien Maisak orain, musu hura hartuta lotsantxeturik hantxe.

– Maitea... xuxurlatu zuen Josek.

Maisak eskua heldu zion, irribarre gozo bat eskainiz.

– Hernanin ikusiz gero, zure zain egon naiz... esan zion Joseri.

– Nik... Ez zenidan ezer esan eta...

– Ezin izan nuen! esan zuen Maisak indarrez.

– Gero pentsatu nuen deitzea, esan zuen Josek, baina ez nuen-eta zure telefonorik...

– Badakit, esan zuen Maisak, bere esku hotzaz Joserena laztanduz. Baina zer inporta du horrek, erantsi zuen: orain elkarrekin gaude.

Maisak kontatu zion, Hernanin gau hartan elkar ikusi zutenean, egun gutxi falta zela bere ezkontzarako. Bai, taberna hartan zen, Josek ikusi zuen mutil harekin. Mutil diruduna, hura, zeinarekin Ondarrun zenbait urtez bizi izan baitzen... Ondikoz beren harremana laster degradatzen hasi zen, eta jasanezina bilakatu zitzaienean haustea erabaki zutela... Bera, orduan bai, izan zela *oso* gaisorik –eta «oso» hura, zelan esan zuen, Joseri iruditu zitzaion ulertzea, hil-zorian egon behar izan zuela, eta Maisaren eskua bere eskuen artean estutu zuen.

– Eta gero? galdetu zuen Josek. Eta villa hau?

– Gustatzen al zaizu...? Apirilean erabaki genuen izebak eta biok Hondarribira etortzea. Izebari beti gustatu izan zaio herri honetako airea...

– Izeba ez al da etxean?

– Hor nonbait ibiliko da. Zaude lasai Jose, esan zion, bat-batean bere eskua mutilaren zango-arteraino eramanez, hark ez gaitu molestatuko-ta.

Gau luze eta amodio-erakutsietan oparoa igaro zuten elkarrekin. Goizaldean, zango zabalik bere gainean zela, Maisak xuxurlatu zion:

– Maite zaitut Jose.

– Nik ere maite zaitut, aitortu zion Josek.

– Betiko, xuxurlatu zuen Maisak.

– Betiko... eta paktu eder, izugarri bat sinatzen ari zela sentitu zuen Josek.

Gero, despedidan, Josek esan zuen:

– Igandean etorriko naiz.

– Atzo bezala, gauean etorri, esan zion Maisak, eta eman zion azkeneko musuaz Joseri neska arima ebasten ari zitzaiola iruditu zitzaion.

Goiz erdian, amarenera azaldu zelarik, pozarren zebilen, horregatik oso harritu zen amak, ikaratuta antzo, galdetu zionean:

– Non ibili zara?

– Zer ba? esan zuen Josek. Lagun batekin.

– Batere lorik egin gabe egongo zara! esan zion amak. Hori pinta ekarri duzuna!

Haatik, Josek ispiluaren aurrean bere burua ikusi zuelarik, ez zuen halako ajerik ikusi: betiko aurpegi zurbila, kopeta gaineko ile sapaztatuak... Izatez gero, begizuloak zeuzkakeen normalean baino nabariago. Hala behar ere! egia zen-eta, ez zutela apenas lorik egin...

Hura eta gero, beste gau asko egin zuen «Urrestin» Josek. Estraina asteburuetan, gero zenbait astegunetan ere, bukaeran ia gauero-gauero... Amaren etxetik irten eta, jendea izaten zen herriko kaskoa ebitatuz, harresiaren azpian edo Kopan barrena buelta bat eginda heltzen zen hara...

Zakamuñoko bidean, etxe gehienak hertsirik, abandonatuta zeuden. Oso bakanka topatzen zen Jose bat edo besterekin, eta jeneralean bistaz ere ezagutzen ez zuen jendea izaten zen. Lehenbiziko gauean atzeman zuen elektrizista hura berriz, lehendik ere ezaguna zuela gogoratu zitzaion. Berriz ere ikusi zuen-eta, bide be-

rean, beste kable-konexio bat, beste konponketa bat egiten ari zela. Ez al zen harrigarria, ordu haietan, gizon hura lanean aritzea...? Alta, berak saludatu zuelarik, gizona itzuli egin zitzaion, eta esku artean zerabilen bonbilaren argitan, aurpegia argi eta garbi ikusi zion, eta orduantxe gogoratu: bera, Jose, txikia zelarik, huraxe joaten zen beraien etxeko konponketak egitera. Amak behin, elektra-tresnaren bat matxuratu eta, etxeko balkoitik hari hots egin ziola gogoratzen zen, eta berak, gizonak, ez zuela ja lanik egiten, erantzun ziola. «Ez al duzu egiten?» galdetu zion amak, eta berak, Jose izutu zuen eztul ikaragarri bat egin eta gero: «Ez, erantzun zuen, osasunez gaizki nago...» Eta, egun hartatixe (berak zer izango zuen? zazpi, zortzi urte) ez zuen beste sekulan ikusi.

«Urrestin», bestalde, izeba ere ez zuen inoiz ikusi Josek. Egia da, villa handia zela –soilik aldian behin, ganbaratik edo beste gelaren batetik, zarata batzuk aditu, eta orduan Maisak: «Hor dabil izeba zirri-zarra», esan eta lo edo maitelaztanka segitzen zuten...

Hasieran Josek, paseoren bat edo beste egitea proposatu zion, baina neskak ez zuen inoiz etxeko lorategitik hara irten nahi izan. Etxean ondo zeudelarik, esaten zuen Maisak, nora eta zertara irten behar zuten? Zierto, Josek hori ere neskaren adimen seinaletzat hartu zuen, berari ere ez baitzitzaion kalea ezertxo ere inporta, eta gainera, berak ere seguraski halaxe nahiago zuen, beren maitasunaren lekukorik ez izatea...

Egun batean, Maisak esan zion, berarekin ezkondu, berarekin bizi egin nahi zuela. Josek itxoiteko, eskatu zion: aldi bateko kontratuarekin ari zela lanean (lehen bezala errepresentante, baina beste etxe batentzat ari zen orain), eta lan fijo bat lortuko zuenean, orduan bilatuko zutela modua... Hartaz Maisa oso triste jarri zen. Elkar maite bazuten, eta Josek egiz maite baldin bazuen bera, ez zutela beste ezeren beharrik, bazutela etxea, bazutela bizitzeko adina, eta joateko bertara. «Zuek baduzue nonbait ere dirua, esan zion saminduxe Joxek, baina nik ere behar diot ba neure buruari begiratu, beste inork begiratuko ez badu». Orduan Maisak, begirada otzan eta samurrez, egoteko lasai, eskatu zion, ordura

arte ere denbora luzean egon zela zain eta jakingo zuela beste pixka batean egoten.

Gehientsuenetan berriz, neska izaten zen bere kondizioak ezartzen zituena. Esate baterako, Josek lanera joan behar ez zuen egunetan ere, Maisak goizean goiz: «Orain joan egin behar duzu», esaten zionean, Josek jaiki eta joan, ez zeukan beste egitekorik. «Badugu, izebak eta biok, etxea txukundu beharra», esaten zion –Josek neskak pena-urte haietan hartu zituen ohitura xelebreei leporatzen zion. Eta Maisak, maitasunez: «Elkarrekin bizi garenean, orduan», esaten zion, eta ezpain ubel, hanpatu haiekin azken musu bat ematen zion, eta bere bularrak, bere masaileko hezurrak azkeneko aldiz sentiarazten zizkion eta: «Gauean etorri», eskatzen zion, eta orduan Josek bazekien gauean joan egingo zela, guztiz neskarena zela. Miretsi egiten zuen Maisaren indarra. Indar horrek erakarri egiten zuen, imanak iltzea erakartzen duen bezala. Izugarria zen. Maite egiten zuen, horra.

Bitartean, bere «beste» bizitzan (geroz eta gutxiago inporta zitzaiona) gero eta gero ahulago, gero eta gero jendearengandik aparteago ze-

bilen. Bere etxean ere, geroz eta zaborrago. Ez zen (amaren kezka zena, bazekien egia zela berak) ezertaz arduratzen, geroz eta eguneroko gauzetatik aldenduago zegoen...

Besteekin ari zela, dendaz denda bezeroekin edo bere ama edo beste inorekin ari zela ere, bere ahotsa estraino somatzen zuen, faltso, ez-bere, bere ondoan bera ez zen beste batek hizketan jardungo balu bezala. Inoiz, inorekin ari eta, bat-batean beldurrez, bere ingurura begiratu izan zuen, bera ez zen beste *haren* presentzia somatuz... Esaten zituen hitzek ere, ez baitzuten inolako zentzurik berarentzako; edo bai, zentzu arras konkretu, material bat izaten zuten, txanponak edo egur-puxkak bezala ziren, berak sentitzen zuenetik, bere baitatik hain urruti nolanahi... Hitz mekanikoak ziren, noizpait ikasi eta munduan barrena ibiltzez geroz esan beharrekoak. Duda egiten zuen, besteak detaile haietaz konturatzen zirenetz; ez zuten ezer azaltzen baina, Jose ia seguru zegoen, igarri egiten ziotela, zioten beldurragatik ez ziotela seguraski adierazten...

Soilik Maisarekin ari zela hartzen zuten hitzek beren benetako hotsa, beren benetako balioa. Hitzek bakarrik ez. Begiradak ere izaten zireneta. Ze aldea gero, Maisaren begirada argiaren, eta besteen errebeseko begiratzeen artean...! Amak berak ere ez zion-eta zuzen-zuzenean, zintzo begiratzen, eta noiznahi apaltzen eta zernahigatik umedetzen ziren haren begi koldarrek mina, eta laster higuina ere sortarazten zioten...

Usainak berriz, eta zer esanik ez ukituak, ah, horretan bai ez zegoen konparazionerik: ez, ez zuen besteen kiretsa, ez zuen besteen kontaktua jasaten ahal, hargatixe beti jendeagandik urrunsko zebilen... Maisaren larru heze eta freskoa, haren lila umelen urrina, haiek bai maitagarriak... Eta biak ohean, ja gau batean bai eta hurrengoan ere bai, esnai ordu luzeak ematen zituzten, elkar laztantzen, maitasuna egiten...

Eta, gauez hain lo gutxi egiten zuelarik, ez zen batere harritzen bere egun beteko itxura (amaren begietan, berari ezer gutxi inporta baitzitzaion) geroz eta lizunagoa, geroz eta makalagoa izatea. Amak ja, nabari zuen Josek, ez zekien zer esan, ez zekien esan nahi zuena nola esan,

eta ixilik eta errukiz begiratzen zion... Hobeto horrela! pentsatzen zuen Josek.

Egun batean, lana galdu zuela jakinarazi zioten. Artean kontratua amaitu gabe bazegoen ere, ez zioten despidoaren arrazoirik eman, ez zen bera ere esplikazio eske inorengana joan. Funtsean, berdin zitzaion. Arrazoia zuen Maisak, hori ez zen *fundamentala*. Izatez gero, amak kezkatuko zuen, hau ordea defenditzeko moduan zegoen, jubilazioa kobratzen hasi baitzen, eta bera berriz, guztiz bere lankide-ohiak, bere lagun izan zirenak nekarazten zituzten behar izan materialetatik aparte bizi zen, soilik jan egiten zuen, eta berau ere gutxiago: edozein garaitan etxeko sukaldean mokadu bat egiten zuen, eta segi.

Horrenbesterekin, eguneko ordurik gehienak ohean ematen zituen. Nekez jaikitzen zen, Maisagana joateko, iluntzean.

Eguerdi batean, amak hala ere, bere gelako atea zabaldu zion, osaba Martxelok bazkaltzera joateko, gonbidatu zituela esateko.

– Ez naiz jaikiko, ama, esan zuen Josek, eta amak:

– Ez al zaude ongi? galdetu zion. Zer duzu Jose?

– Ez nago indarrean ama, esan zuen Josek, eta burua bestaldera jiratuta bukatutzat eman zuen solasa.

Ez zen aitziki hutsa noski, egia baitzen indarrez arront murriztuta zegoela. Hala joaten ziren egunak, eta gauean berriz, beti zerbait arrapizten zen, Maisarekiko zitara joateko hainbe.

Gau batean hala ere, bere amaren errukiz, Maisari proposatu zion, ama «Urrestira» eramatea. Maisak irribarre anbiguo bat egin zuen (maite egiten zuen, irribarre hura Josek!) eta: «Oraingoz ez», esan zion, soilik.

Beste behin, iluntzean «Urrestira» joateko jaiki zelarik, ama sukaldeko aulki batean negarrez, onezik atzeman zuen... Eta bazeukan Josek, bere erruaz hala ere halakoxe kontzientzia. Ama ohera lagundu, afari lege bat prestatu zion, eta gero harekin egon zen. Estraineko aldiz ez zen azaldu zitara...

Gauerdi hartan, ama lo zetzan ohearen ondoan aulki batean jarrita zegoela, lo-zabuka bera ere, halako batean, lila umelen usaina aditu

zuen. Eta zein ez zen bere sorpresa izango, leihoaz hara, Maisaren aurpegi zurbila ikusi zuenean.

Etxeko atea zabaldu zionean, Maisa daldarka atzeman zuen. Lehendabizi, subera, zergatik ez zen joan, galdetu zion, eta Josek azaldu zionean, Maisa lasaitu zen –hala ere oraindik daldarka zegoen, besarkatu zuenean, eta hain bortizki atxiki zion, Joseri hezurretan mina sentiarazi baitzion... Sukaldean maitatu ziren, sekulako indarrez. Maite egiten zuen, Maisak! Eta berak ere maite zuen...! Eta geroz eta haren behar handiagoa zeukan.

Biharamunean, eta biharamunagoan, ama artean sendatuxe zela, ohi bezala «Urrestin» ikusi ziren. Goizean goiz haren villa utzi, eta etxera itzultzen zen, ama ixilik ebitatuz bere gelara joan, lo igarotzeko eguna... Bizimodu xinple, ordenatua zeraman: egunez ohean, gauez Maisarekin «Urrestin»... Amak kezkati begiratzen zion, eta igarri zion Josek, herrian berataz, bere gau-ibilera haietaz galdezka ibili zela, ordea inork ez zuen ikusten-eta... Geroz eta ezkutuagoan joaki zen-eta, humanoen kontaktoa geroz eta

xotilkiago ebitatuz... Ez zen berak inori jaramonik ez egitea, besteek ere ez zioten egiten berari, baina ez zioten egiten (zeinen harro zegoen Jose hartaz!) ikusi ere ez zutelako egiten: kalerik baztertuenetan itzal bat bezalaxe pasatzen zeneta...

Bihotza polpol, gorputza indarge somatu zuen iluntze batean, amari hots egin behar izan zion, ohetik jaikitzen, jazten lagun ziezaion. Aterantz laguntzen ziolarik, amak larri-larri galdetu zion:

– Nora zoaz, seme, nora zoaz?

Baina Josek ez zion ezer ihardetsi. Ez zion esan, munduak nazka ematen ziola. Ez zion esan, munduan arnasa hartzeko ezintasuna zuela. Berak ez zuela mundu honetarako balio... Ez zion esan, Maisa izeneko neska batek bakarrik atera zezakeela izu-laborri hartatixe. Egia bortitz bat gogorarazten ziona, egia mingarria...

Amak ataritik, negarrez ikusi zuen Jose harresietara zihoala.

Orduez geroztik hantxe bizi da, Zakamuñoko bidean, Hendaiari begira dagoen «Urresti» villan, lila umel batzuren azpian, Hondarribiko hilerrian.

Orposen agertzea

Ikusten nion nik, bazuela zerbait. Urduri, beldurrak aidean etorri da-ta. Eta antzeman egin behar nion, esan didanagatik. Esan dit:

– Joxi, apuro batetik atera behar nauk. Kotxea utzi behar didak. Libre al daukak kotxea?

Nik baietz esan diot, atzo tailerretik jaso nuela-ta, bihar goiza arte ez nuela behar.

– Hara Joxi –esan dit berak–, eskertuko diat. Hala ere –esan dit– abisatu nahi diat, asunto delikatu baterako dela.

Holaxe esan dit. Lasai hi, esan diot nik: ez nuela esplikaziorik behar, konfiantza egiten niola: behar baldin bazuen, hartzeko eta kito. Lagunak horretarako direla.

– Hara Joxi –atzera ere berak–, ez zioat inori ezer esan baina hiri kontatu nahi diat.

Eta: bueno-bueno. Eta: zerbezak hartu eta mahai horretan eseri gara. Tabernan zure aita eta beste hiru-lau bezero zeuden. Orduan Pedro begira gelditu zait eta esan dit:

– Orain dela bi aste, Landan azaldu zitzaidaan.

Holaxe hasi da. Pixka batean ixilik egon da, gero segitu du:

– Ni fondoko izkinean ninduan, zigarrilo bat erretzen. Fede eta Montxo, egin zuten edo egin behar zuten patxaranaz ari hituen hizketan. Gogoratzen nauk ondo: telebistan pilota-partidua ematen ari hituen. Halako batean, bera azaldu huen.

Bera, esan du. Ni nire artean: zeinetaz ari da?

– Eskaileretan azaldu huen –segitu du Pedrok–. Berehala, nonbaitetik ezagutzen ote nuen iruditu zitzaidaan, baina ez ninduan gogoratzen nondik.

Zuzenean joan omen zen beragana. «Kaixo», saludatu omen zuen; eta Pedrok ere: «Kaixo».

Barraren kontra, Pedroren ondoko aulkian jarri omen zen hura. Eta nola Pedro begira geldi-tu zitzaion: «Ez nauk ezagutzen ala!» galdetu omen zion hark. «Iruditu zaidak...» esan omen zion Pedrok.

Koadroekiko alkandora, lepoaren bueltan jertse granatea omen zeramatzan. Irribarre eginez, begietara begira gelditu omen zitzaion.

«Hendaian, Topoaren kontra koktelak bota genizkian!» esan omen zion hark. Pedro seko harrituta gelditu omen zen. Ez omen zuen halakorik espero.

«Orpos?» tetelka galdetu omen zion. Eta besteak, berriz ere irribarre egin omen zion. Hala zela, bai.

Orpos! Mekaguendios...! Orain Inesek esan didanean bai... Baina lehenago, Pedrok aipatu didanean, ez naiz batere gogoratu. Ez dut inondik ere lotu. Izena aditu nuela bai baina, ez bainekien nondik!

75eko irailean izan omen zen. Txiki, Tupa eta Otaegi fusilatu egin behar zituzten. Pedrok-eta, mugaz bestaldean, ez omen zekiten nola kontra egin, zeri sua eman. Goizean komentatu omen zuten, eguerdian motoz itzuli bat egin, arratsalde berean Orpos, Mutriku (gogoratzen zara ala!) eta Pedrok berak Hendaiako tren-geltokira joan

eta Topoaren kontra bi koktel molotov bota omen zituzten. Agudo joan omen ziren ihesi!

Pedro uda hartan joan omen zen Iparraldera. Muga pasa eta lagun baten etxean instalatu omen zen. Ustez denbora gutxiko, tipo batek kantatu ote zuen ala ez jakiteko adina. Gero, erreta zegoela konfirmatu zenean kalera irteten hasi omen zen, Orpos eta bere koadrilarekin. Txikirena-ta gainera etorri zitzaien.

Hori dena hortxe kontatu dit. Gaur eguerdian, zerbeza bana edaten ari ginela, ba.

Hemezortzi urte omen zeraman Pedrok ikusi gabe Orpos. 77an mugaz hona etorri zenez geroz ez omen zuen hartaz, ez orduko bere beste lagunez ezertxo ere jakin.

Hasieran jakiten omen zuen hango berri pixka: halakoa atxilotu, halakoa hil dute. Gero berriz, GAL hasi zenerako-ta, bera bere munduan sartuta zegoen, ez omen zuen prentsa irakurri ere egiten. Badakizu Pedro nola zebilen aspaldi.

Esan dit: 77ko abenduan Mutriku eta biak Donostian, manifa bat eta gero ikusi zirela. Eta Mutrikuk zerbait egiten hasiko al ziren proponitu ziola.

Fabrika batean lana aurkitu zuela... ezetz esan omen zion Pedrok.

Halaxe izan omen zen. Mutriku ikusi zuen azken aldia izan omen zen hura. Gogoratuko zara, 79an, Tolosako baserri batean garbitu zutela.

Orpos berriz ez omen zen –esan dit Pedrok–, bera bezala, alde honetara pasa. Bestaldean, burrukan segitzea erabaki omen zuen. Artean politiko-militarrekin, gero autonomoekin hasi omen zen.

Mutrikurekin jardun omen zuen. Nonbait, Pedrok ezezkoa esan eta gero, Orposengana jo zuen Mutrikuk. Osti batzuk jo omen zituzten, bera harrapatu bitarte.

«Orduan, preso egon hintzen?» galdetu omen zion Pedrok, biak Landan zirela.

«Bai! –esan omen zion Orposek–. Sorian izan ninduan...»

Ez omen zen –esan dit Pedrok–, Orpos atxilotzen zuten aurreneko aldia. Bestaldera ihesi joan baino lehen ere Urretxun, beste tipo batekin atxilotu omen zuten. Biei latzak egin omen zizkieten. Egin ziotena ordaindu egingo ziotela, esaten omen zion bestaldean Pedrori.

Halako batean, ahotsa apaldu du, honela esan dit:

– Ustela naizelako esan nioan Mutrikuri ezetz. Badakik Joxi, nik egia esateko... oraintxe haren ondoan, etzanda egon beharko nikek.

Begirada galduta zeukan. Oraindik izerditan, ile sapaztatuak kopetari erantsita zegoen. Baina nik, nola imajinatu behar nuen...!

Kontatu dit nola 78an fabrikan lanean hasi zen, nola gurasoekin bizi zen Lasarten. Etxetik lanera eta lanetik etxera, ez omen zegoen batere gustora. Bere lagunak hiltzen, kartzelan usteltzen eta bera...

Urte gaiztoak izan behar izan zuten Pedrorentzako haiek. Ez omen zion burrukari irteerarik ikusten. Bide itsu batean genbiltzala iruditzen zitzaion. Gogoratuko zara, herrira etorri zenean zer esaten zuen: «Gutxi gara euskaldunak –esaten zuen–, ezin dugu irabazi... Baina ni –esaten zuen, ba– ez naiz ahaztu. Askok egin dutena: ahaztu. Ahaztu, euskaldunak garela, diferenteak».

86an etorri zen herrira. Komak-en aritu zen, kalera bidali zuten arte: orain dela... hiru bat urte. Aurrena ez omen zion inportantziarik eman, uste baitzuen laster beste zerbait aterako zitzaiola, gainera parotik kobratzen zuenarekin nola-hala defenditzen omen zen.

Gero paroa bukatu, ezer aurkitu ez, Udaletxera joan behar izan zuen, pobrezia-subsidioaren eske.

79ko urrian izan zen. Mutriku hil, Orpos atxilotu, egun berean izan ziren biak. Gernikako Estatutua onartu baino astebete lehenago.

Landan, ez omen zion Pedrok Orposi galdetu zer egiten zuen herrian. Zer edo zer bazebilela behintzat, iruditu zitzaion.

– Bi urte eman zian Sorian Orposek –esan dit Pedrok–. Gorrotoz beteta, bihotza lehertu zorian. Kartzelatik irteteko amorratzen, txakur pare bat garbitzeko behintzat. Orduan eroarena egitea gogoratu zitzaioan. Egunez eta gauez oihuka hasi huen... Eta, lortu omen zian eroetxera eramatea baina... ez huen hargatik libratu. Oraintsu arte bertan izan duk.

– Eroetxean? –galdetu diot Pedrori–. Noiz atera da ba?

– Orain dela bost hilabete –esan dit Pedrok–. Orain dela bost hilabete eroetxetik irten eta hola zabilek.

Landan orduan, esan dit Pedrok, gauza arraro bat gertatu omen zen.

Bera, Orpos kontatzen ari zitzaionagatik pentsakor, barrara begira gelditu omen zen. Segundu batzuk izan omen ziren. Federi zigarrilo bat eskatu omen zion. Fedek esan omen zion: «Etzakela burua erre motel (badakizu, nola gelditzen

zen Pedro, bere izkin hartan). Etzakela burua erre motel –esan omen zion–. Hainbeste pentsatu!»

Pedrok irribarre egin omen zuen, gero Orposengana jiratu omen zen. Ordea... Orpos ez omen zen han! Zalu-zalu, komunera joan ote zen? Pedro zain egon omen zen, baina Orposen arrastorik ez omen zen inondik inora. Montxori galdetu omen zion:

«Non sartu da hau?»

«Zein?»

«Nirekin zena, ba».

«Ez diat inor ikusi», esan omen zion Montxok.

Konprenitu egin behar nuen, la ostia! Hori esan eta...!

Atzo eguerdiz, xirimiria ari zuen-eta, kastellanoen txabolen inguruan ikusi omen zuen bigarrenez.

Pedro plazan sagarrak erosita etxera zihoala, Anacletoren txamizoaren ondoan ikusi omen zuen. Piku baten azpian, makurtuta omen zegoen Orpos. Pedro hurbildu zitzaionean, Orposek

gerrian pipa bat zeukala ikusi omen zuen. Haren ondoan eseri omen zen.

«Problemak dizkiagu», esan omen zion Orposek berehala.

Hala esan omen zion, pluralean. Pedrok segituan pentsatu omen zuen, poliziarekin izango zuela zerbait.

Larunbatean, pikoloak ibili ziren ba herrian. Kale nagusia hartu eta Basajaunan-eta, jendea pistolaz apuntatuta lurrera bota-arazi, paperak eskatu... Batzuek broma bat zela pentsatu zuten, ba: ez baitzuten zer ziren esaten, batzuk oso bajuak ziren, txima luzeekin, ez ziruditen goardia zibilak.

Ni, Pedro kontatzen ari-ta, segituan taka, pentsatu dut, pikoloak Orposen bila zebiltzan.

Anacletoren txamizoaren ondoan:

«Ze problema klase?» galdetu omen zion Orposi Pedrok.

«Ezkutuan nabilek», esan omen zion Orposek.

Pedrok ez omen zuen duda handirik egin:

«Nahi baduk etxean...»

– Orposi mekaguendios –esan dit Pedrok–, ez nion ba etxea eskainiko...?

Pedroren etxeak (ez duzu ezagutzen ala? Atakan, Minazulo bidean) bi pisu ditu. Behekoan Intxausti bizi da (anai zaharra, mataderikoa), bere familiarekin. Goian, Pedro, bakarrik.

Orpos etxeko ganbaran ondo egongo zela pentsatu omen zuen Pedrok. Inor ez omen zen enteratuko han.

«Gau bat edo bi izango dituk, esan omen zion Orposek, gero bestaldera pasatuko nauk».

Pedrok berak hartu omen zion kutsu zahar bat Orposek esandakoari.

«Han ere zakurrak hankutsik», esan omen zion.

«Bai, gaizki jartzen ari dituk gauzak, esan omen zion Orposek. Noiznahi jendea estraditatzen hasiko dituk».

Halaxe esan omen zuen. Eta Pedro bere artean: «Jendea estraditatzen? pentsatu omen zuen, aspaldi hasita zaudek...» Horixe pentsatu

omen zuen. Eta Orposek: «Mutrikuk abixatu zidak...»

Halako batean, tximista batek jo omen zuen erdiz erdi Pedro. Horrexegatik ez omen zuen lorik egin bart. Bat-batean konprenitu omen zuen: Orposek ez zekien Mutriku hil zutela! Agian komisaldegian, tratu txarren ondorioz, edo agian eroetxean, urte luze haietan, ahaztu egin zitzaion! Bera atxilotu zutenean, bere lagunak alde egin eta bestaldera pasa zelakoan zen! Orpos aldi hartan bizi zen oraindik! Alferrik pasa zen harentzako denbora!

Atzo ere, esan dit Pedrok, zenbait detailetan fijatu omen zen: jertse granatea, panazko galtzak, orrazkera... eta haren gauzak esateko modua, gogoratzen ez omen zituen espresioak, begiradak... Landan, elkarrekin izan zirenean ere, Orpos paretaren kontra jarri omen zen, beti erne, nor-sartuko, nondik tiroa tiratuko zioten...

– Beste denbora batean bizi duk, Joxi! –esan dit Pedrok–. Posible ote da? Zer egin behar dut...?

Ni zer esan ez nekiela gelditu naiz ba. Hala ere esan diot:

– Ez zakiat ba. Urretxukoa duk ezta? Igual bere familiarekin hitz egitea izango duk onena...

Pedro pentsakor gelditu da, gero ezetz egin du buruaz.

– Pipa zaramak-eta, zernahi duela ere, larri dabilela egia duk ba. Ez. Bestaldera pasatuko diat.

– Orain, non duk? galdetu diot; eta:

– Zain zagok etxean –esan dit Pedrok–. Gauaren erdia wiskia edanez eman diagu.

Bart Orposek Zumarragako bere nobiaz hitz egin ziola esan dit Pedrok. Okidegi batean lan egiten omen zuen... Baina, nobia hori (hauxe zen, Pedroren kezka) noizkoa ote zen? Ordukoa, Pedrok uste, Orposek erakutsi zion txuri-beltzezko argazkia ikusita: «Neska hori –esan dit– orain, berrogei bat urte, beste inorekin ezkondu, haur bat edo bi izango dizkik...» Orposek ordea, «hamar urte barru, Euskadi libre denean» ezkonduko zirela, esan omen zion Pedrori: ez-dakit-non etxe bat egingo zutela...

– Hori duk historia –bukatu du Pedrok–. Arratsaldean eraman nahi diat. Orduan...?

Joateko lasai, esan diot nik. Orain mugan gehienetan ez dela kontrolik izaten, eta kotxearekin joateko lasai.

Orpos Donibaneko plazan utzita etorriko zela, esan dit Pedrok. Landan utziko zizkidala giltzak.

Kotxea non zegoen esan diot. Hemendik bakarrik irten da: batera eta bestera begiratu-ta joan da.

Ni lanera joan naiz... Orain bueltan, Marik eta Inesek esan didate: «Pedro hil dute mugan».

– Eeeeh!

– Kontrola zegoen eta ez omen da gelditu...

Bostetan izan omen da.

– Bakarrik al zihoan? –galdetu diet.

– Bai, hori esan dute.

Historia kontatu diet: nola eguerdian kotxea utzi diodan, nola Orpos delako bat mugaz bestaldera pasatu behar zuen.

– Orpos? –Ines moska gelditu da.

– Orpos, Urretxukoa –esan diot–. Mutriku Tolosan hil zutenean atxilotu zuten ba.

– Ah bai –esan dit Inesek–. Jose Mari ez-dakitzer, Orpos. Baina, zer esaten ari zara? Preso edo hospitalean bost bat urte egingo zituen horrek. Gero libre utzi, berriz ere bestaldera joan eta 86an GALek Baionan akabatu zuen.

Motxene

Gu bizi ginen etxetik Motxenera hirurehun bat metroko aldea izango zen baina, guretzat beste mundu bat zen hura. Herritik bertan zegoen, baina baserria zen: kaletik gertueneko baserria.

Hango semea: Esteban, gurekin, auzoko beste mutilekin ibiltzen zen, eta gu ere, askotan, bere etxera joaten ginen: haren bila, hura lanean ari bazen eta norabait joan behar bagenuen, edo denborapasa besterik gabe, futbolean egiteko ere baserri atzeko zelaian baino hobeto inon ez ginen ibiliko-ta. Ni, alde xamarrean nola nintzen, oso maiz joaten nintzen hara.

Esteban eta bere aita, askotan gertatzen zena, belarretan ari baziren, lagundu ere egingo nien inoiz, sardea edo eskuarearekin. Segarekin ez, ez bainuen nik segan ikasi. Sega, gehienetan, aitak ibiliko zuen. Hark gogotik egiten zuen lan, amorruz ere esango nuke, semeak baino gehiago beti, edo uste harekin behintzat. Estebanek bere beso zuztarrekin, ri-ra! aitak bi ordutan ebakitako belarra, berak gurdira bost minutuan

kargatuko zuen: sardekada bakoitzean, ikaragarrizko zamak...! Hura zen indarra hura! Ni haren ondoan egur-brintza baino makalagoa sentitzen nintzen. Txiki samarretan, zenbat ordu elkarrekin, auzoko plazako banku haietan, pipak jaten, neskei begira, plan txoroak eginez...! Eta gero, zenbat aldiz, eskopetak hartu eta, inguruko mendietara ehizera joan-da...!

Gogoratzen naiz egun batean, Esteban eta biok etxe pareko belarrak biltzen aritu ginela eta, berak traktorea zeramala etxera bueltan, ni oinez eta eskuarea eta sardea neramatzala nenbilen.

Eta, hala nenbilela, pikuaren azpian zegoen harrizko jarleku batean, bi neska: bat Irune, Estebanen arreba gazteena, eta bestea auzoko bere lagun bat, Iruneren lagun bat, biak zeuden han jarrita eta, beren aurrean pasatu nintzenean, barre egin zidaten. Bah! Ni baino bastante gazteagoak ziren eta, hobe izango nuen (orduan pentsatu nuena) kasurik ez egitea haiei; badakizu, nola izaten diren edadearen gorabeherak, gaztetxoen artean.

Beraien aurrean pasatu nintzenean barre egin zidaten. Bueno, nik pentsatu egin nuen, niri egiten zidatela barre; ez bainien, esaten dizut ba, begiratu ere egin. Eta seguraski (berehala konprenitu nuen) lanabesak eramateko moduagatik zen: esku batean sardea, bestean eskuarea, erdi parean helduta, bi maleta balira bezala neramatzan-da. Eta berehala, naturaltasun itxuraz, biak alde batera, eta sorbalda gainera jaso nituen –beste batek, Estebanek edo, egingo zuen bezala. Eta besterik gabe, Estebanen atzean, ukuilura sartu nintzen ba.

Han gurdia belarrez arindu eta gero Esteban eta biok sukaldera sartu ginen: ni egarriak nengoen-da, baso bat sagardo emango zidan-da.

Eta sukaldean, bere beste arreba zegoen: Jone, artean hemezortzi bat urte izango zituena –guk hogei-hogeitabat izango genituen.

Eta, han (sagardoari lagunduz, gazta puxka bat jateko) eseri nintzen tarte laburrean, gogoratzen naiz (ez dakit neuk galdetu nion edo bera hasi zen edo nola atera zen gaia) Jonek kontatu zidala, nola lehengo urtean ikasketak utzi zitue-

lako damututa zegoen. Aurreko urtean esan omen zuen:

– Bah, zertarako! –ez baitzion ikasteari halako zentzurik ikusten eta, lanean hasi zen taberna batean.

Baina, orain uste zuen, ikasten segituz gero, errazago utziko zuela baserria, nahi izanez gero. Ez baitzuen bere burua betiko Motxenen ikusten.

Azkenean Batxilergoa bukatuko zuen, gero Magisteritza eskolan jardun, gaur egun maistra dago (Barakaldon, uste dut). Baina orduan, nik Estebanekin neukan harremanaren bidez, askotan ikusten ginen. Irekia zen, nirekiko konfiatua. Eta, nik ere esan egiten nizkion nire gauzak eta azkenean... pixka bat enamoratu egin nintzen harekin; gustatu, behintzat.

Irunek berriz, ari naizen hartan, hamasei-hamazazpi urte izango zituen. Neska azkarra zen, nahiz eta gorputzez Jone baino ttikixeagoa eta bettexeagoa zen. Uda aldean (gogorapen gehienak uda aldekoak ditut; izan ere orduan ikusten baikinen, ia egunero), aitak edo Estebanek gidatzen zuten traktoreko erremolketik, belarretara zihoala, seriedade erromantikoaz begiratzen

zidan, zerbait sujerituz bezala (ez dakit zer: joko edo zera horietarako beti oso txarra izandu naizda). Baina, hain gaztetxoa zen...! Eta, zitezkeen mentura amorosoetatik aparte bizi zela zirudien. Ez zuela nornahi onartuko ondoan. Hori zen nire inpresioa behinik behin. Bere territorioa ondo definituta zeukala.

Gogoratzen naiz San Juan iluntze batean, lagun koadrila bat Motxenetik goraxeago, muino txiki batean zegoen bordan urtero egiten genuen sutara arrimatu ginela. Su hura geuk prestatu genuen, astean zehar nork bere etxetik, eta gertu zegoen zabortegitik ere mueble zaharrak eta hautsiak, egurrak, paperak eta beste edozein erregai eramanda.

Iluntze nabarra zen beraz eta, gogoratzen naiz lagun haietako batek (herriko musika-bandan jotzen zuena, bera) kontatu zigula:

– Goizean goiz mendian bueltaska egin dut, eta pago baten ondoan egin dut pixa. Beti pago haren ondoan egiten dut pixa, erantsi zuen.

Eta, hura esaten ari zela ere, hasi egin zen pixa egiten, eta Esteban eta beste lagun bat ere, hasi ziren, hirurak elkarren ondoan, pixa egiten,

jolasean, hesiaz bestaldetik heldu ziren eta mutilak zer ari ziren ikusi ez zuten Irune eta bere lagun bati galtzak pixka bat bustiaz.

Hasi ginen denok barrezka eta Irunek, benetan zegoena baino haserre-planta handiagoa eginez, laxto bat hartuta, azkar asko langa gainean salto egin eta Estebani lepotik behera sartzen ahalegindu zen –Estebanek defenditu-itxura egin zuen, gero utzi egin zion Iruneri laxtoa bizkarrera sartzen.

Orduan baserriko ataritik aita hoska hasi zitzaigun: joateko laguntzera...! Noski, ez dakit ze obra egiten ari ziren eta, kamioi batetik zemento zakuak deskargatu behar ziren. Eta, hara joan zirenak Esteban eta Bedaio izan ziren –Bedaio, mutil fuerte bat, horrelako lanak aise egiten zituena. Nik, ezin nintzela joan, esan nuen, eta Irunek:

– Ah, zauriagatik, esan zuen (izan ere gau hartan, lepazuri batek hatz erakuslean kozka egin baitzidan).

Eta: Bai, esan nuen nik, eta baserrira zihoazenei begira gelditu ginen: Esteban zaldiz zihoan, eta korrika Bedaio.

Gero Jone eta bere lagunak etorri ziren, nonbait ganbaran atzeman zituzten arropa zaharrez betetako poltsa batzuk zekartzatela. Eta Jonek esan zuen: «Mozorro gaitezen!» –eta arropak lurrean barreiatu eta honi zapata hau eta hari trapu hura ematen hasi zitzaigun.

Esan zuen moduagatik-edo (ez dakit ba, halako animoaz, baina halako begirunez ere) proposamenak arrakasta handia izan zuen. Gehienok jantzi genuen-da, barrezka, zerbait.

Gauez, belarretan, norbaitek eraman zuen zahatotik ardo zurrut batzuk edanez, arropak jantziz eta erantziz, erdi larrubixirik ibili ginen...

Nik txaketila estu-estu bat hartu nuen, eta lurrean eserita zegoen Joneri probarazi nion, bidenabar haren lepoa pixka bat irekiz, titi-haragia ikusiz... Eta Jonek:

– Zer duzu hor? galdetu zidan, hatz erakusleko bendagatik.

Eta nik:

– Bart lepazuriak egin zidan kozk.

– Lepazuriak? harritu zen Jonek.

Eta nik neure besoaz lepoa inguratu nion, eta belarrian:

– Lepazuria, esan nion, badakizu: oiloak lapurtzen dituena...

– Oiloak? esan zidan Jonek, baju-baju berak ere, ez al zinen ba zerorri...?

Beste horrelako solas batzuk egin-da jaiki nintzenean, Joneren altzoan egin nuen igurtzizko ipurdi-mugimendua barregarri suertatu zen, ingurukoentzat. Aise ibili nuen gau hartan Jone, nahiz ipurdiko hura segidarik gabeko keinua izan zen (azken begirada baten faltan edo).

Hurrengo gauetan maiz etorri zitzaidan burura Jone. Bolada batez, maitasun erabatekoaz maite izandu nuen: nahi nuen harekin egon, nahi nuen harekin ume bat izan, betiko nahi nuen!

Baina Jonek bazuen bere martxa, bazituen bere lagunak, bazuen bere mutil-antxa ere garai hartarako. Apreziatzen zituen nire detaileak baina... ez ninduen neuk bera bezalaxe maite.

Maite ninduena, geroz eta gehiago (eta neu, artean konturatu gabe!) Irune zen. Harekin kamioan topo egin nuen batean konturatu nintzen.

Izan zen bazkalondo batean, ni Estebanekin gelditu nintzela-ta eskopeta hartuta oinez Motxenera nihoala. Eta, Irunek traktorearen erre-

molketik ikusi nindunean, kasualidadea, gure etxe ondo-ondoko bi neskatilarekin, bi ahizpa bixkirekin nenbilen ni. Haiek izakeraz eta figuraz gu, ni neu baino kalekoagoak ziren, señoritagoak. Eta, hemen barrena, hemendik gora, bizikletaz ibiltzen ziren batzutan. Neskatila buru-arinak ziren: ibiltzen zituzten pinturetan, arropan, mutilei barre egiteko moduan nabari zitzaiena.

Egun hartan beraz, Motxenerantz, malda txikian gora nenbilela ni, bi ahizpa haiek ere, bizikletan eta, malda erdian igo ezinik geratu ziren, indarrik gabe, eta bizikletatik jaitsi eta nire atzean oinez ibiltzen hasi ziren. Ni jiratu egin nintzaien eta:

– Argaldu egin beharko duzue ba; pisu gehiegi duzue.

Alde batera gustatu zitzaiena (beti eskertu egiten baita solasa, non ez den oso gaiztoa), eta beste alde batera batere ez: makila bezalakoxe neskatila finak ziren baina, gramoak nondik kenduko, ari ziren beti.

Orduan, behetik gora etxe aldera zetorren Motxeneko traktorea pasa zedin baztertu ginen, nik bolantean zen aitari kaixo esan nion eta pasa

gintuztenean nire begiek atzeko erremolkean, belarraren gainean jarrita zegoen Irunerenekin egin zuten topo; eta une hartantxe jakin nuen, neska nire zain zegoela.

Malda gainera iritsita, bixkiek atzera pedalei eragin zieten, eta haiek aurrera zihoazela, ni Motxenen gelditu nintzen.

Etxeko eskaratzean ama ikusi nuen. Eta hari:

– Esteban, hor al da? galdetu nion.

– Esteban? harritu zen hura. Ez, dentistagana joan da!

– Dentistagana? Esan zidan ba...

Igual zion. Bakarrik joango nintzen basora. Txori batzuk akabatzeko ez da lagun askoren beharrik ere.

– Jone-ta atzean dituzu... esan zidan amak.

Ez nekien zer egin. Pixka bat kokildu egiten ninduen Estebanen amak. Mobida guztiekin konturatzen zen. Sukaldean haren aurrean disimulatu behar izaten nuen, Jone gustokoa neukala...

Emakume hura, jazkeraz, nik «baserritar-ijitoa» deitzen dudanaren prototipoa zen: buruan painueloa eta, soinekoan berriz, hainbat koloretako adabakiz apaindutako soineko luzea.

Jone eta Irune atzean zirela, esan zidan ba –atzean, sala-komedorean esan nahi zuen. Irune ailegatu berria izango zen, orduantxe ikusi nuenda traktorearen atzean. Amak konfirmatu zidan:

– Sartu, sartu, oraintxe etorri dira-ta!

Dena dela, mendian txoriak akabatzen baino hobeto, akaso, egongo nintzen haiekin. Biekin batean, beldur pixka bat ematen bazidan ere. Behintzat kasu egin nion amari: eskopeta ate ondoan utziz salaraino sartu nintzen.

Han ziren Irune, sofakaman buruz behera etzanda, eta Jone, besaulki batean, ahizparen ondoan eserita.

Situazioa, nire Jonerekiko balizko harremana eta guzti, ez zen enbarazosoa izatera iritsi: Jonek, ni ikusitakoan, segituan egin baitzuen jaikitzekoa, Irunek protesta-keinu txiki bat egin zuen arren. Noski Jone ohartuta zegoen, bere ahizparen nahikariaz, eta: «Hor daukan, oso-osorik hiretzat», esan nahi zion.

Eta, nik ja irteten ari zen Joneri ezer esan ahal izan niezaion baino lehen, Irunek esan zidan:

– Begira-idazu hemen...

Hurbildu egin nintzaion Iruneri ba eta, aurrena kamiseta zikina zuela ikusi nion. Jaso egin nion kamiseta eta, bizkar-hezurraren erdian, baina ipurdi alderaxe, zaindu gabeko grano batetik likido zornetsua ateratzen ari zitzaiola ikusi nuen. Sumendia ematen zuen, leherketa nuklearraren perretxiko formarekin.

– Neska-neska: zer egin duzu hor? galdetu nion, ez nazka apurrik gabe, baina batez ere kezkatuta, oso zatarra zegoen-eta.

– Ez dakit nola izan den... esan zuen Irunek.

– Zaude, esan nion, garbitu egingo dizut.

Komunera joan nintzen (banekien etxeko berri) eta, gasak eta ur oxigenatua hartuta, salara bueltan, likido zabor gehiago ateratzen ari zitzaiola ikusi nuen. Gainera hazka egiten ari zen.

– Ez ukitu, ba! esan nion nik, enerjiaz esku-xaflako bat joaz –eta une batez ber-azaldu zen eta (esku-xaflakoagatik) erreprotxezko aurpegiaz begiratzen zidan Joneri azaltzeko beharrean sentitu nintzen:

– Es-ke gainera, ukitu egiten du...!

Umorezkoa zitekeen etsipen-keinu bat egin zuen Jonek (ez dakit nik, ez dakit Irunek, edo

biok, ez genuela erremediorik, adieraziz), eta alde egin zuen, bere atzean atea itxita.

Granoa garbitu niolarik, bere ondoan jarriarazi ninduen.

– Emaidazu masaje bat... eskatu zidan, inozentki.

Ezer esan eta, beharbada, ezer pentsatu gabe jarri nituen haren bizkarrean esku biak, eta hasi nintzen haren muskulo gazteak masaiatzen –bizkar aldean ere haragi flojo eta belaxkak zituen gehienbat Irunek.

Halako batean, zabalik zegoen leihotik baten bat begira genuela iruditu zitzaidan; eta, burua jiratzean, etxe atzeko murkoan, ezagutzen ez nuen emakume bat, urtebete inguruko haurtxo batekin zegoela ikusi nuen. Eta:

– Zein dira horiek? galdetu nion Iruneri. Eta Irunek, itxi zituen begiak zabalduta, baina leiho aldera itzulita zegoenez jarrera aldatu gabe:

– Gure izeba da, esan zidan, bere alabatxoarekin.

Emakumeak gure aldera seinalatzen zuen, haurrak ikusi gintzan, esanez bezala: «Ikusi lehengusina Irune, mutil batekin...»

Irunek, granoa zela-ta, galtzak pixka bat jaitsita zeuzkanez, niri ez zitzaidan situaziorik egokiena iruditzen... Baina, berak esan zidan:

– Mmm. Hor, egizu fuertexeago hor.

Eta nik, esaten zuen tokian fuertexeago egin nion eta... Ondo zegoen, halaz ere, Irune! Ez zen Jone bezain polita izango baina... bazekien, tipo bat tratatzen eta... ondo zegoen, ba!

Handik beste pixka batera leihora begiratu nuen eta, murkoan segitzen zuten izeba-lehengusinez gain, han kanpoan hiru neska, Iruneren hiru lagun ikusi nituen. Haiek berriz, leihoaren ondo-ondoan ziren eta, xeharka eta disimulo gehixeagoz baldin bazen ere (pipak jaten, euren artean solas pixka bat eginez), izeba-ta bezala guri begira zeuden.

– Eta horiek? esan nion Iruneri, asaldatuta.

– Mm, esan zuen Irunek, etorri dira.

Orduan bai, jaiki egin zen eta leihoa ixtera joan zen (izeba-lehengusinek, murkotik, eta hiru neskek bertatik bertara bera saludatzeko aprobetxatu zuten momentua). Haize-kontrakoak baina, ezin-da, kristalak bakarrik itxi zituen. Beraz, isladagatik nekezago bazen ere, neskek

oraindik ere (begiratzen zutelarik: lasai, insistentziarik gabe) ikusi egin gintzaketen (izeba-lehengusinak berriz, diskretuki, apartatu egin ziren).

Ez zirudien hala ere kanpoko joan-etorri haiek Irune batere aztoratu zutenik. Han kanpoan inor ez balego bezala, ohe gainean jarri zen, eta burua laztantzen hasi zitzaidan.

Zeren eta, bitartean ni (lotsatuxe, kikilduxe) bizkarra ohearen kontra nuela lurrean jarri bainintzen, behinik behin kanpotik oso-osorik ez nintzaten ikusi, nahiz-eta, burua ageri nuenez, Irunek egiten zizkidan laztan haiek kanpotik ikusi ahal izan.

Hala ere, Irune hain atseginez ari zen... Begiak itxi egin nituen, eta leiho aldean hots bat somaturik atzera ireki nituenean, eta burua jiratu, bertan lehengo hiru neskez gain, herriko bi haur atzeratu ere bazirela ikusi nuen. Haietako bat leiho-barrenean zutik jarri zen, zer ari ginenedo hobeto ikusteko noski. Alabaina, ez Irune apuratzen zen, ez kanpoko haiek batere eskandalizatzen ziren Irunek eskua alkandora barrenera sartu zidanean.

Baina nik pentsatzen nuen, lojika halako bati segi-ta Iruneri handik pixka batera musu ematen banion (neska ezpainak pixka bat zabalduz eskatzen ari zitzaidana), eta gero (ohe atzean, ezkutu samarrean baldin bazen ere) zerbait gehiago egingo bagenuen, ba, jende gehiago bilduko zela kanpoan, guztiak (bi haur atzeratuak jadaneko zeuden bezalaxe) euren aurpegiak kristalaren kontra jarrita; eta beraz, nahiz bastante bero izan, eszena hori beste baterako utz genezakeela.

Nolanahi izan zela ere, asuntoa da, arratsalde hura eta gero, Irune nitaz zeharo maitemindu zela.

Ni berriz, ez nintzen maitemindu berataz. Egia da, egun hura eta gero, lehen baino maiteago izan nuela. Eta nik uste dut, poliki saiatu bagina, zerbaitetara helduko ginatekeela.

Baina Irune ero-eroa zen, ez zuen erdibiderik onartzen, ezkon gintezen nahi zuen, eta nahi zuen; eta nik arbuiatu egiten nuen, hasieran hitzez, gero basaki, baina hura hain arrabiatuta zegoen, ez baitzuen arrazoirik aditzen: maite egin

behar nuela, eta maite egin behar nuela, esaten zuen (eta ezkondu, seguraski).

Baina, bion solasa sala-komedoreko arratsalde hartara itzultzen bazen, nik esaten nion: sofakama atze hartan, zenbait neska eta zenbait haur atzeraturen begi-bistan, juntatu baginen, berak nahi izan zuelako juntatu ginela, eta orduan eskatu ez zidana (eta nik eskaini ez niona): betiko maitasuna, edo horrelako zerbait, ezin zidala orain ere eskatu.

Eta bitartean herriko neska batzuk: arratsalde hartan leihoaren kontra bildu zirenak, eta Iruneren eskolako lagunak, eta beste batzuk, nitaz marmarka, nitaz gaizki esaten aritu ziren: berataz aprobetxatu eta gero, abandonatu egin nuela, esaten zuten (gezurra zena; alabaina, bertsio horrek bakarrik ematen zien Iruneren lagunei satisfazio pixka bat).

Eta beraz nik (aurkixe) utzi egin nion Motxenera joateari, eta Esteban eta biok (zeren, gure harremanetan kontu haiek inoiz ez zuten hartarainoko garrantzirik izan) ehizera joan behar bagenuen, lehenago bezala ni bere etxera joan

gabe, basoko mugan geratzen ginen, Beloneko eta Atagako bideak juntatzen diren hartan.

Azkenean Irunek eraso egingo zidan, beldurra neukan. Neure etxean (pasatu zenaz ezer ez zekiten nire familiakoen harridurarako) parapetoak preparatzen hasi nintzen.

Eta ez zen gaiztoa, neska, eta momentu batean (Motxenera joateari utzi baino lehentxeago izan zen), beso artean nuelarik (noski aitak eta amak kasualidadez ikusi zuten momentu prezisoa; eta beren iritziak konfirmatu egin zituzten, eta zurrumurruak areagotzeko bidea eman zuen) ba, nahi gabean ere, Iruneri «esperantza» pixka bat eman nion beharbada, askoz okerragoa izan zitekeena –ordea, nolabait lasaitu behar nuen!

Eta beste behin, Koxme gure lagunaren soltero-despedida eta gero, haren etxean ginela, jendearen artean Irune ikustea iruditu zitzaidan... Eta ja ez nuen bakerik izan, han ez zela konprobatu nuen arte. Bila eta bila ibili nintzen, eta gela batean, ohe batean mutil bat, eta armarioaren atzean beste mutil bat, eta beste nonbait beste neska bat, aurkitu nituen, baina inon ez

Iruneren arrastorik. Eta alde batera lasaitu nintzen, eta beste batera ez. Nahi bainuen hari zer-edo-zer esan, edo besotik heldu, erokeriaren bat egin zezan baino lehenago (hainbesterekin, beldur nintzen, ni hiltzeko oso kapaza baitzen).

Gau hartan bestalde, Koxmeren etxean bertan, nire bizitza sentimentalarekin zer-ikusia zuten gauza birekin enteratu nintzen. Bat, Izaskun (nik, Irune utzi eta gero, nobiatzat hartzeko gogoa neukana) Orioko tipo batekin ezkondu zela. Eta bi, Irune berriz, lagun batek komentatu zidanez, «hobekixeago, hobekixeago, ja sendatuxe» zegoen. Eta azken horrek lasaitasun handia ekarri zidan.

Zorionez edo zoritxarrez, despedida-jai hura eta aste batzuk geroago, Esteban eta biok ehizera joan ginelarik, ustekabean inzidente triste batean inplikaturik ikusi ginen.

Gu normalean txoriak botatzera joaten ginen (orain ez da moda, orduan moda zen). Aise bota ere! Gero guk geuk edo (gehienetan) Estebanen amak lumatu, frijitu egiten zituen eta erreta jaten genituen, eguneko ogiaz eta Errioxako ardoaz lagunduta ba. Goxo-goxoak izaten ziren.

Basoan, norbere eskopetarekin ibiltzen ginen. Ni neure eskopetarekin, eta Esteban aitaren eskopetarekin, eta iluntze batean...

Estebanek nonbait, basoan aski barrena genbiltzala, oiloak lapurtzen zituen lepazuria ikusi zuen, eta tiroa jo zion, eta hil.

Bidenabar esango dut, oiloak lapurtzeaz aparte, niri behin, susto ederra eman zidala lepazuri hark (edo haren antz handia zuen beste batek). Lehen aipatu dut: belazean deskantsatzen ari nintzela, lepazuria etorri, eta hatzean egin zidan kozka; ez zidan oso fuerte heldu, problema zen: nola askatu hatza? Jo-ta beste eskuarekin lepotik heldu, dezisioz hartu eta sasitara bota nuen animalia...

Guztiarekin, lepazuriekiko gure harremanak konfliktiboak izaten baziren ere, animalitxo haiek (guk ederki genekienez) legez babestuta zeuden.

Eta orduan, lepazuria hil genuen berria, edo haren hotsa, nik ez dakit nola, basoko zaindariari heldu zitzaion, eta basoko zaindariak Jose Manuel zinegotziari partea eman zion, eta Jose Manuelen aginduz (agi denez) ikerketak egin zituz-

ten, eta guk zenbait aztarna utzi bide-genuenez: kartutxoak hemen, oin-arrastoak han, eta abar, ba erraza izan omen zen guregana heltzea. Beraz Jose Manuel bere mutilekin bazkalondo batean, Motxenera joan zen.

Eta justu egun hartan, aspaldiko partez, ni Motxenen izan! Denbora pasa zela-ta, Irune lasaiago-ta, behintzat bera: Irune, Esteban eta hirurok sala-komedorean kartetan ari ginen...

Hirurak aldean ailegatu ziren Jose Manuel eta bere mutilak. Bospasei gizon paisanozko ziren. Sukaldean, amarekin ari zirela, nik, entzumena zorroztuz, hitz batzuk aditu nituen; eta berehala, Estebani esan: ez omen zen zigorrik izango, baina prozesua ezin ebitatuko zen.

Gizon haiek joanda, hirurak pasilora irten ginen. Han ziren ama eta Jone, kezkati. Amak Estebani:

– Egun hartan, inor ez al zen, hirekin?

– Bai ni nintzen, esan nuen nik.

Orduan amak gorrotoz begiratu zidan.

– Esan, ba, esan, lekuko baten bila zebiltzan.

Hobe zela ez esatea, konpreniarazi nahi izan nion: nik, Esteban lepazuriari eskopetaz apunta-

tzen ari zitzaiola ikusirik, ez banion ezer esan hala ere, biok prozesatzea, besterik ez bainuen lortuko. Eta, zerbait esan arren, Estebanek ez bazidan kasu egin, bere, Estebanen kausa okertu egingo zen.

Nahiz Jone (oso klarki) eta Irune (bazterka) nire alde mintzatu, nire beraien amarekiko harremanak handik aurrera zeharo makurtu ziren, halako punturaino non, handik denbora gutxira harako bisitak erabat bertan behera utzi behar izandu nituen.

Urkiaren itzala

Atzo muinora joan nintzen eta ixil-ixilik egon nintzen berari begira. Atzo iruditu zitzaidan ikaratuxe zegoela. Hegoaizea zebilen, uso batzuk ikusi nituen, ez dakit zer izango zuen. Bere aldiak izaten ditu-ta.

Nik entenditu egiten dut, badakit noiz dagoen ongi eta noiz dagoen gaizki. Baina ez dakit berak ni entenditzen nauen. Lehen ere esaten zidan. Ez ninduela entenditzen, beti korrika eta presaka, nora ote nihoan. Ikusten zaitut eta ez zaitut ikusten, esaten zidan.

Orduan ja hemen bizi ginen, hau zen gure etxea. Eta hor zegoen osabaren etxea; hura hil zenean grua bat etorri zen eta eraman egin zuen, ez baitakit nora.

Ona zen osaba. Oso handia zen, eta asko-asko jaten zuen. Berak jarri zigun etxean argia. Lagun batek kable luze bat eman zion, eta poste hartatik ekarri zuen argia.

Karabana hau Elkarteak eman zigun. Orain bakarrik nago, ez dut lehen bezala zaintzen. Su-

kaldean lehengoan perretxiko ttiki batzuk aurkitu nituen. Parregura eman zidan...! Ez dakit jatekoak izango diren, ez diet kasurik egin.

Lehenago-lehenago zabortegiaz bestaldean bizi ginen. Toki ederra zen hura... Han dago basoa, aspaldi ikusi ez dudana. Gustora joango nintzateke egun batean hara, baina karretera egin zuten-eta, orain ezin hara joan. Bada tubo handi bat, azpitik pasatzen dena, baina oso zikina dago, eta haren ahoan batzutan mutil batzuk egoten dira. Beltzez jantzita, beldur pixka bat ematen didate.

Orduan diferentea zen. Hau dena zen gurea. Batzutan ijitoak etortzen ziren, baina errekaz bestaldean jartzen ziren haiek. Ez ginen haiekin haserretzen. Haiek mimena bildu, saskiak egiten zituzten. Guk kobrea, plomoa, paperarekin ibiltzen ginen. Osabarekin, zenbat aldiz, hiriraino...!

Nik hamairu urte nituenean eskolatik atera nintzen. Gure amak eskolarako gauzak ezin erosi-ta, orduan banekien niretzat eskola bukatu zela. Osabarekin hasi nintzen. Gero hirian etxe bat garbitzen aritu nintzen. Ondo zegoen, baina oso urruti zen. Amak nahi zuen eta nahi zuen nik

etxetik kanpo lana izatea. Okerrena kalea zela, esaten zidan.

Guk orduan ezer ez genuen. Ezin genuen ezer erosi, ezin ginen inora joan, ezin genituen lagunak ikusi. Telebista bai, erosi genuen. Behar da, telebista. Bestela, ez dakizu ezer. Telebista-rekin, etxean jende gehiago zegoela esaten zuen amak.

Nire ama gizonekin ibiltzen zen. Orduan ni ez nintzen jaio oraindik, gero jaioko nintzen. Amak nigatik ahalegin handiak egin zituen... Nirekin ezin zenean gelditu, Mariaren etxean gelditzen nintzen. Hark ez zuen seme-alabarik eta gizonak eta biek gustora hartzen ninduten, afari goxoa jarri, haiekin lo gelditzen nintzen.

Baina gero, nik zazpi urte nituela, eskola itxi batean sartu ninduten. Amak ezin zuela, esan zuten, nire ardura eduki. Hasieran ez zioten uzten ikustera ere joaten. Gero bai, eskolara joaten zen eta monja bat gure atzean zela ordubetez egoten ginen elkarrekin biak.

Opariak ekartzen zizkidan. Orduan nik uste nuen, berak hala esan zidan-eta, gauean gaixoak zaintzen aritzen zela bera. Pixka bat harritzen

nintzen, nola etortzen zen jantzita baina. Behin gailetak ekarri zituen, eskolako denentzat. Gero neska batek esan zidan: «Zure ama zera da, zure ama puta da». Nik ez nekien zer zen hori ere...! Zer-edo-zer txarra, baina inbidiz esaten zuela seguru nengoen, inork ez baitzituen gure amak bezala gailetak denentzako eramaten.

Hamairu urte nituenean ikusi nuen kalean gizon batekin. Beti kalean, inoiz ez zuen gizon bat etxera ekarri. Nik egin nuen nobio bat, eta behin, berak ezer ez zekien eta galdetu zidan: «Zer egiten dute zure gurasoek?» Eta nik: «Amak gaixoak zaintzen ditu». Amak esan zidan behin: «Nahi baduzu, hil naizela esan». Behin esan nuen. Gero negar egin nuen. Ez nuen beste inoiz esan.

Etxe hura askoz handiagoa zen, bagenituen bi ohe eta sofakama bat. Hona etorri ginenean, biak ohe batean! Ohe zabala baina... Orain katuarekin egiten dut lo, gozo-gozo. Oraindik inoiz amets egiten dut, egun batean etxe handi bat izango dudala...

Eta ez nago gaizki hemen. Akostunbratu egin naiz, kamioien hotsarekin ere. Amak sufritzen

zuena...! Nik ere beldurra izaten nuen hasieran, etxea bota egin behar zutela iruditzen zitzaidan.

...Nik ere baditut nire pentsamentuak. Batzutan bakarrik nago, ez dakit denbora nola pasa. Ez badut beste egitekorik harri horretan eseri, landareei begira egoten naiz: halako ostoak, eta halako loreak eta halako zuztarrak...

Gure amak ere oso maite zituen landareak. Hemen ikusten dituzun horiek, eta horiek, eta horiek berak aldatu zituen. Txuri haiek ez, haiek neuk jarri ditut.

Ama esaten zuen, udazkenean erortzen ziren arbolen ostoei begira zorabiatu egiten zela! Gauza batzuk esaten zituen... Esaten zuen gasolinaren usainak hil egiten zuela. Txuri-txuri jartzen zen. Irrati txikia hartu, patata-sorora joan, bertan hartzen zuen lasaia.

Ni ezkondu eta gero bizkarraren gainean handidura ikaragarri bat sortu zitzaion, eta haren erdian bazen zulo txiki bat. Hasieran esaten zidan: hustu, hustu! eta nik bi hatzekin presioa egiten nuen eta zulo hartatik likido xurigorri bat ateratzen zitzaion: esnea eta odola nahastuta bezala. Hezurra bere lekuz kanpo atera-

tzen ari zitzaiola esaten zuen. Inoiz ez zen medikuagana joan. Ez zituen maite medikuak.

Gero belarritik beste ixuri bat hasi zitzaion. Baina hura, belarrikoa, berde antzekoa zen, xuriberdaxka bat hola. Ez ziola minik ematen eta uzteko pakean! Ura behar zuela, ura behar zuela! Edan eta edan! Horrek egiten ziola ondo. Behin esan zidan ez zitzaiola triparaino joaten ura, zuk uste duzu?, bihotzean gelditzen zitzaiola! Eta jan berriz, ezer gutxi jaten zuen. Berdura eta, sagarrak eta.

Baina nik banuen ordurako gizona. Lehengo nobio hura ez, hura ez. Hura gustatu egiten zitzaidan, baina ez zen niretzako hura. Uste dut pixka bat maite ninduela, lagunak ginen eta beti errespetoarekin ibiltzen ninduen eta harekin izan eta gero etxera kontentu! etortzen nintzen.

Neska zozo batek nik mutil hura ez nuela merezi esan zidan. Hori ez zitzaidan batere gustatu. Niri itsusia eta polita eta horiek beti igual izan zaizkit, baina orduan besteak baino itsusiagoa sentitu nintzen. Belarri zabalak nituela iruditzen zitzaidan! Orain ez dit batere ajola! Pixka bat orraztu eta benga! Badakit nolakoa naizen eta

ispiluan begiratu ere ez naiz egiten! Orain gainera hemen sudurrean mantxa bat atera zait... Ez dut ukitzen, zera ematen dit. Hanketan ere baditut mantxa ttiki batzuk. Ubelak dira, zatarrak dira.

Gero gizona ezagutu nuen. Plazan ezagutu nuen, kamioiak deskargatzen ibiltzen zen hura. Zerbait esan zidan eta hara...! Azkar ibili ginen.

Enbaraza gelditu nintzen eta nik ez nuen ezkontzeko esan baina ezkondu egin ginen eta haren familiakoak dena tapatzera eta zer egin behar nuen esatera niri. Haiek herrian bizi ziren, Ixtilen. Nik hemen gelditu nahi nuen, baina gizonak esan zuen ezetz. Ama berton utzi eta hara joan ginen bizitzera biok. Ez genuen suerterik izan. Jaio orduko hilda zegoen haurra.

Ixtilen ni ez nintzen inoiz etxean bezala sentitu. Gizonari, lanaz aparte, tabernaz taberna ardoak hartzen ibiltzea gustatzen zitzaion, edozeinekin gelditzen zen hizketan. Niri ere gustatzen zitzaidan jendearekin egotea, baina han ez nuen inor ezagutzen, eta haren familiarekin ez nintzen ondo zeratu, eta zera, egun guztian etxean! Baina etxea niri, bah! ez naiz etxe-zuloa ni! eta

aspertu egiten nintzen... Kanpoko martxa gehiago gustatzen niri.

Baina nik ez nekien ezezkorik esaten. Hau egintzazu, bestea egintzazu! esaten zidan gizonak, eta nik egin eta egin.

Niri gustatuko zitzaidan larunbatean-eta, baratzetako bidean elkarrekin paseo bat egitea, baina zera. Nirekin ateratzen zela ere, bera han zihoan, kilometro bat aurrean edo kilometro bat atzean. Nik esaten nion eskutik heltzeko, ez ibiltzeko hain aparte, baina alferrik.

Etxean ere ez zuen nirekin ezer ere nahi. Hasi-hasieran bai, goizean musu bat eta, baina gero ez zidan egunon ere esaten! Horrek min handia ematen zidan. Baina gero ohean zera egin nahi zidan, eta nik gogorik izan ala ez, egin egin behar, bestela haserretu egiten zen. Eta nik ez nekien ezezkorik esaten... Nik izango nituen nire gauzak, baina niri gizonak moztu egin zidan asko! Beti haren esanetara, inoiz ez zidan galdetzen hau nahi duzu edo bestea nahi duzu.

Gaueko hamabietan usain ikaragarriarekin eta zutik ezin zela egon etortzen zen eta ez baldin banuen sukaldea ondo txukundu, edo arma-

rio gainean hauts pixka bat atzematen bazuen, «pero bueno qué es ésto? esaten zidan, tú crees que la casa se puede tener así?», porque nire gizona castellanoa zen, hori nire amari ez zitzaion inoiz gustatu izan. Gu hemengoak gara-ta, nire amak gizona euskalduna nahi zuen!

Eta jo egiten zidan, eta ni beldurrez, eta ezin nintzen egon. Banekien ez ginela bata bestearentzako eginak. Orduan apartatu nintzen. Agur! esan nion, eta berriz ere hona, amagana etorri nintzen.

Gero gizonari nik uste damutu egin zitzaiola. Behin etorri zen hona, eta hitz egin genuen. Baina nik ez nuen ja harekin ezer ere nahi.

Kalean gelditu zenean oso gaizki pasatu zuen. Asko edaten zuen, ez zuen lanik bilatzen, paroa bukatu zitzaion eta beti horrela. Orduan etxea utzi egin behar izan zuen, eta hirira joan zen. Zerbeza fabrika zaharrean bizi zen, beste tipo batekin. Tonto bat, beti mukiz beteta egoten zen hura. Behin osabarekin han tokatu ginen. Gizona eltzean zopa preparatzen ari zen. «Ya sé yo lo que meto en esta sopa!», esan zigun harro. Lastozko sonbrero batekin ibiltzen zen, eta zauri

bat egin zuen hemen, bi begien artean. Artean zerbait kobratzen ote zuen oraindik, baina badakizu, ardoa behar eta, zigarrilo-paketea behar eta...

Gero eske ibiltzen zen. Mozkortuta, beti. Behin lagun bati kozka egin zion besoan. Eta bere barru-barruan ez zen gaiztoa, baina kalte handia egiten zion edanak. Gero jakin genuen kalean jaso zutela, medikuek ez dakit zer aurkitu ziotela... Nik ez dut haren beste berririk izan.

Ez dakit, agian bizitzari gehiegi eskatu diot eta... hemen nago behintzat.

Bata zela bestea zela Ixtilen bost bat urte pasatu nituen. Eta itzuli nintzenean ja karretera egin zuten, eta gu ja hona etorri ginen.

Urteak pasatu ziren eta ama zahartu egin zen. Ez zuen inora joan nahi eta ni ibiltzen nintzen hara eta hona mandatuak egiten. Oso gauza gutxirekin bizi ginen. Eguerdian babarruna eta patata eta gauean ogi-zopak; eta hala ere!

Asistenteak esaten zidan: gizartean integratzeko hau eta hura egin beharra duzu... Ja-ta nazkatu nintzen! Behin jatekoa eskatu nion eta

zera, ilar potea eta txorizo muturra eman zidaten! Eta amak poteko gauzak ezin zituen ikusi ere egin! Ez nintzen gehiago joan harengana! Eta ez zigutenean diru gehiago eman, mendiko belarrekin bizi!

Gero egun batean batek okinari komentatu zion, nola hemen ginen eta nola beharrean ginen eta okin hark, sinpatikoa hala ere, lana eman zidan, hilean hainbeste. Urtebete egin nuen harekin. Orduan hobetoxeago bizitu ginen. Superrean yogurrak eta naranjak erosi eta... Baina hura ere bukatu.

Osaba, gaixoak bere karritoarekin segitzen zuen... Amari ja bizkarra zeharo okertu zitzaion eta ez zen inora ere joaten. Hementxe patatak atera, belarrak bildu... Haizeak eta eguzkiak zimur-zimur utzi zuten. Garo idorra baino zimurrago! esaten zidan.

Eta gero belaunetan eta ukondoetan eta hatz-koskorretan ere grano berde, grano biguin batzuk atera zitzaizkion. Behin bat lehertu egin nion eta amak hatx! egin zuen, baina handik astebetera berriz ere hazita zeukan. Handiak ziren,

zatarrak ziren, baina esaten zuen ez ziotela minik ematen.

Egun batean, badira... ez dakit zenbat urte! udaberria zen eta zera esan zidan: Muinora nihoa. Goizean goiz atera zen gora. Muinora joan eta urkiaren itzalean jarri zen. Hankak huts-hutsik lurrean ezarri eta ez zuen etxera gehiago etorri nahi izan. Bazkaltzeko zerbait eraman nion hara eta ez zuela behar! Biharamunean fijatu nintzen, behatzetako azkazaletatik sustrai ttiki bezalako batzuk atera zitzaizkiola eta lurrean sartu.

Eta han gelditu zen. Eguzkiarekin esnatu, iluntzean berriz ere lo. Hasieran gauean abrigatzeko zerbait eramaten nion, baina gero entenditu nuen ez zuela behar. Azala grixa, latx-latxa jarri zitzaion.

Eta gora eta behera txingurri ttiki-ttiki batzuk ibiltzen zitzaizkion, niri nazka pixka bat ematen zidaten, baina bera lasai asko zegoen!

Gero egun batean geldi-geldirik zegoela aurkitu nuen, begiak itxita. Ahoa zabalduta zeukan eta ezpainetatik gora abar txiki bat ateratzen zitzaion, hiru-lau ostotxo berderekin.

Amaia eta Lorea

Ernesto Freire kaleko pub hartan, gauez, zerbeza bat hartzen ari zela, barraz bestaldetik hurbildu zitzaiona Lorea zela ezagutu zuenean, zeharo kortatuta gelditu zen Marc.

Andoainen ezagutu zuen, bederatzi urte lehenago. Beheko Plazan Azur Baltzen kontzertua izan zen, eta gero bertara joan zirenetako asko inguruko tabernetan barreiatu ziren.

Taberna luze batean eserita zeudela sartu zen bertara Amaiaren koadrila.

Amaia zen talde hartan Marc-ek ezagutzen zuen bakarra: Mutrikukoa, baina Ondarroako Institutuan, bere maila berean ikasten ari zena. Ilez eta azalez beltzarana, oso goapoa, oso erreserbatua ere, itxuraz gogorra, zerbeza eta txokolatea oso maite zituena. Kopetan zakar luze bat zuen, eta sudurrean berriz, orduan inor-gutxik bezala, eraztun txiki bat zeraman.

Tabernara sartzean, plazan ez zuen erreparatu-ta, bertan ikusteaz harrituta-edo, Amaiak «aupa» esan zion Marc-i. Institutuan, kurtsoaren

hasieran, behin edo behin elkarri begiratu zioten... Gero, Marc-ek aurrera egiteko ausardiarik izan ez zuenez, neskak begiratzeari utzi zion, harro-puntu batekin. Artean hari buruz, Marc bastante etsita zegoen.

Marc momentu hartan konturatu ere ez zen ia egin Lorearen presentziaz. Zerbeza batzuk hartuta, herriko lagun batekin: Pellorekin gustora baitzegoen, mundu aparte batean. Biak zeuden barraren kontra, aulki altu banatan jarrita, haraxeago ziren beste batzuek atseginez aditzen zituzten taberna-solasak eginez.

Geroxeago berriz, konturatu zen Amaiarekin etorri zen neska rubio, aurpegi luzanga, bizi hura, bere ondo-ondoan, ia bere kontra gelditu zela.

Tabernan giro ona, musika ona zela-ta, zerbezak bukatutakoan, Pellok beste ronda bat eskatu zuen.

Amaia eta bere lagunak azkarrago zihoazen. Apenas minutu batzuk egin zituzten, eta ja kanpora zihoazen. Orduan Marc-ek Amaiari:

– Ze, ba al zoazte? galdetu zion.

– Herrira? esan zuen Amaiak. Ke-ba. Ostatu gorrira goaz.

Orduantxe begiratu zion Marc-i neska rubiak bere begi berde-berdeekin.

Beraiek ere, zerbezak lasai bukatu eta, irten ziren taberna luzetik. Ordurako, batzuek etxera itzuli nahi zuten (bi kotxetan joan ziren, hartaz ez zen problemarik), beste batzuek: Pellok eta bixkiek, jarraitu egin zioten Marc-i ostatu gorrirantz.

Bertara ailegatzerako taldea, zenbaitek alde egin, beste zenbait inkorporatu egin ziren-eta, arrunt formabakoa zen. Marc-ek zenbait lagun ez zituen inondik ezagutzen. Kalean, ostatu gorriaren pare-parean jadanik, ezagutzen ez zuen neska batekin aritu zen. Hura ere aski gustokoa zeukan. Une batez ahaztu egin zitzaizkion Amaia eta bere lagun rubia hura.

Baina gero, ostatuan sartu eta Amaia eta besteak bazter batean ikusi zituelarik, eserita, kasualidadez-bezala haiengana joan, eta Amaiari (berak, orduantxe) eskatu zuen helatua eskaini zion.

Lamikaldi luze bat egin zuen Amaiak, eta Marc-ek kilima-ikara bat somatu zuen ahoan. Besteei ere eskaini zien helatua; eta besteek ezetz.

– Ahotsa izorratu egiten zidak, esan zuen mutil txima-luze batek, izenez Jon, Andoaingoa bertakoa Marc-ek geroxeago jakingo zuenez.

Marc-en gustoko jendea zen hura. Amaia, eta Jon, eta neska rubiaz aparte, bazen bikote jator bat, enamoratu-berriak inondik ere, denbora guztian musu eta laztanka. Guztiak ziren bere adinakoak, guztiak (jazkeraz, estiloz) bere tankerakoak ere.

Berriz ere, neska rubiaren ondoan suertatu zen Marc. Haren esku luzeekin, fijatu zen orduan. Neskak irribarre egiten ziola iruditu zitzaion.

– Zergatik egiten duzu irribarre? galdetu zion Marc-ek.

– Ez dakit, esan zuen neskak, baina gero, berehala: Aurpegi graziosoa izango duzu –eta ja, lasai egin zuen barre.

Segundu batzuk igaro ziren, Marc-ek erantzuterako:

– Ba, zuk ere ez didazu negargurarik ematen.

– Penak barruan daramatzat-eta, esan zuen azkar-azkar neskak.

Ostatua jendez beteta zegoen, musika berriz oso altu. Marc-i kostua eskaini zioten.

– Zer zara, bertokoa? galdetu zion Marc-ek neska rubiari.

– Eibarkoa. Eta zu?

– Ondarrukoa, esan zuen Marc-ek.

Ostatutik irten zirelarik, Marc konturatu zen Pello eta besteak galdu zituela. Pixka bat harritu zen, ezer ez esateaz, lagunek bazekitelako berak ez zeukala herrira itzultzeko modurik. Bah, pentsatu zuen, hor nonbait ibiliko dira –eta galduta ere, ez zen asko inporta, koadrila harekin ederki zegoen-eta.

Amaia eta besteak, kanpoan zirela, bokatak jango ote zituzten, eta non, aritu ziren.

– Hor goian bada bokata ederrak ematen dituzten ostatu zahar bat, esan zuen Jonek. Bidetxidor horretan gora, kilometro batera dago.

– Ez al dago kotxean joaterik? galdetu zuen Amaiak; bere gona motz estu haiekin, normala galdetzea.

– Bai? Kotxea hartuko dugu? esan zuen Jonek.

– Bah, oinez joango gara! esan zuen Loreak, animoso.

– Saiatu behintzat! esan zuen Marc-ek, Amaia zirikatzearren ere.

Hauek baietz, haiek ezetz, azkenean Marc-ek eta Loreak bakarrik heldu zioten bide-txidorrari oinez.

Haizeak zerabiltzan, Marc-en aurrean, Lorearen adatsa, eta bere soineko xinplea...

– Ikusten al dituzu izarrak? esaten ari zen neska. Horiek ez dakite zer galdu duten...!

Goia garbi-garbia, bide-txidorra berriz, geroz eta lokaztuago zegoen.

– Hor ezkerrera jaitsiz gero, ez al gara errepidera irtengo? galdetu zuen Marc-ek.

– Ke-ba! esan zuen Loreak, eta aurrera egin zuen.

Zikin-zikin zeuzkaten oinetakoak. Halako batean, oso bat-batean, irteerarik ez zuen, ez izatea zitekeen errekagune batera iritsi ziren.

Orduan emakume bat goiko sasietatik eskopetarekin apuntatzen ari zitzaiela, ikusi zuten.

Lorearen erreakzioa, bi saltotan erreka pasatu, eta alde egitea izan zen.

Emakumeak (tipo kaxkar batek lagunduta, iruditu zitzaien) hots egiten zien:

– Quién sois! Qué haceis ahí!

Ez ulertzeko keinua egin zuen Loreak, gelditu gabe ihesari emanaz. Marc haren atzetik, nahiko beldurtuta zihoan...

Ostatu zaharrera ailegatzen ari zirenean, bi xakur azaldu ziren. Ostatukoak ziren baina, euren urduritasuna nabarituz, kozka egin behar zietela zirudien. Marc xakur haietako bat lasaiatzen saiatu zen –badaezpada, hankarekin bizkarra laztanduz...

Beren lagunak bokatak jaten ari ziren parajera iritsi ziren.

Ez zieten barre gutxi egin, gertatu zitzaiena kontatu zietenean. Jonek esan zuen, Maria *la loca* izango zela, han inguruko txabola batean bizi zen Kastillako emakume bat.

Eskatu zituzten bokatak, beraiek ere. Loreak urradura bat atzeman zuen soinekoan.

– Amak ikusten duenean, esan zuen, gozoa jarriko da ba.

– Hark ere ibiltzen al du ba eskopetarik? galdetu zuen Jonek.

– Eskopetarik? Ez duzu ezagutzen hura! Gure etxean legea dago, legea! Eta nirekin hainbestean! Ahizpa zaharrenak jaso ditu jasotzekoak! Behin ez zuen ba amak, sukaldean, kate batekin bonbona-butanoari lotu, bera kanpora zihoalata, ahizpak iluntzean ez alde egiteko! Eta orain hala ere...! Orain xamurrago dabil: tripetan ez dakit zelako koxkorra aurkitu omen diote eta, operatu egin behar dutela-ta, hospitalari eta odolari eta gauza horiei ikara die! Ikara! Pentsatzearekin ere desmaiatu egiten da...!

Gustora aditu zituzten Lorearen kontuak; batez ere Marc, paseo labur hura eta gero lagun berri bat egin zuela sentitzen zuelako...

Tarteka hala ere, Amaiari begiratzen zion. Haren ile beltz nahasia, haren larruzko txamarra, haren hanka zoragarriak, hain ederra zen; Loreari begira, ixil-ixilik, irribarrez, begietatik su-pindarra zeriola zegoen... Gainera (iruditzen zitzaion Marc-i) Loreak eta biek paseo hura elkarrekin egin izanak ez ote zuen jeloskor samar ipini... Eta bera azken batean, Amaiarekin egote-

ko batu zitzaien; hargatik ezelango asmo konkreturik ez zuen, orduan ondo zegoen eta, zer gerta ere gero, ez zitzaion askorik inporta.

Bokatak eta gero, kaferen bat, zerbezaren bat, beste porruren bat erre zuten, bertan. Kontu bat edo beste atera zuten, giro lasai, umoretsuan.

Halako batean, Jonek esan zuen:

– Ze, joango al gara lotara? Bestela giltzak utziko dizkizuet; nik bihar lana dut-eta...

Amaia eta beste hirurak, haren etxean lo egitekoak baitziren. Jonek berak esan zion Marc-i:

– Etorri hi ere...

Kotxean jaitsi ziren seiak –Lorea, atzean, Marc-en gainean, beste bikotearen ondoan; bien sexuak, oso konsziente zen Marc, arropen milimetro pare batek berezita soilik...

Etxe zahar bateko goreneko pisuan bizi zen Jon. Herriaren erdi-erdian, baina inguruan bista despejatuak eta, nahikoa intimidadea zuena.

Behean gela bakarra, eta sukaldea eta komuna, ganbaran lo egingo zuten beraiek. Hara igotzeko, terrazatik gora, sarrera estu bat zegoen,

bertara ailegatzeko eskalada pixka bat egin beharra zegoen.

Besteek zakuak eraman zituztela-ta, Jonek manta bat eman zion Marc-i.

Baziren bertan (kandela baten argitan antzeman zitekeenez) ohe bi, bat txikiagoa, bikoteak bereganatu zuena, bestea zabalagoa, Amaiak, Loreak eta Marc-ek erabiliko zutena. Hala ere Marc-ek esan zuen, berak lurrean egingo zuela lo. Loreak ordea:

– Gurekin egin, esan zuen, kabituko gara.

Broma batzuk egin zituen Loreak, ganbarako espazioa, oheen erosotasuna zela-ta.

Amaia berehala bere zakuan sartu zen, eta ohearen izkin batean jarri. Beste bi neska-mutilek azken porru bat piztu zuten, gero Amaiari pasa...

Marc komunera jaitsi, eta igo zenean, Loreak ere hartu zuen tokia, Amaiaren ondoan. Marc-ek zapatilak erantzi zituen eta:

– Ni erdian, esan zuen, bi nesken artean txoko bat eginez, bestela hoztu egingo naiz-eta.

Orduan Amaiak esan zuen:

– Zipaioak etorriz gero, hau putetxe bat dela esango dute!

– Nik badaezpada, esan zuen Marc-ek, kaltzontziloekin egingo dut lo.

Beste irri-komentario batzuk egin zituzten, gero ixilduz joan ziren, Amaiak kandela itzali zuen arte.

Oso gustora, nahiz urduri samar, sentitzen zen Marc, bi nesken artean. Ze ustekabean gertatu zen dena, amets bat zirudien. Zelan onartu zuten, eta zelan orain bi neska zoragarri haien erdi-erdian, bataren eta bestearen beroa sentitzen zuela zegoen... Alde batera, paretaren kontra, Lorea, neska bizi, espontaneo hura, berehala bere gorputza berearen kontra moldatu zuena; beste aldera, apartexeago, Amaia, neska ixil, eder, iaia konkistatzen inposible zirudiena...

Lokartu eta gero (segituan edo zenbait ordu geroago, ezin esan ba), Marc-ek amets bat izan zuen: Amaiak hankak beragana luzatu zituen, gero elkar besarkatu zuten...

Bero-bero, iaia hazia isuri zuela esnatu zen Marc. Segundu batzuk behar izan zituen, apur bat lekutu, eta hura amets bat izan zela, kontu-

ratzeko: ametseko situazio ia berberean baitzen; salbu-ta, errealidadean, Lorea behar zuen, eta ez Amaia, hankak bere kontra ipini zituena...

Animali-eran hurbildu zen Amaiagana Marc. Erraza zen, oso gertu baitzeuden, eta esnatu zenetik (bere harridurarako) bere eskua Amaiaren ilea ukitzen ari zen; behatzen artean ibili, losengatu zituen ile mardul haiek...

Harekintxe konformatuko zen. Alabaina, Amaiaren mugimendu lebe bat, hasperen beharbadako bat izan ziren, imajinazioa piztarazi ziotena: ohartu egin ote zen neska, ilea ukitzen ari zitzaiola, eta gustora zegoen? Behintzat Marc-ek, bere musua pixka bat aurreratuz, neskaren bizkarraren kontra-kontra jarri zuen, eta haren urrinak zoratu egin zuen: kamisetaren gainean, omoplatoan kozka txiki bat egin zion. Amaiak erreakzionatu zuen unea izan zen –baina apal, oso apal egin zuen: buelta egin zuen, eta bere besoa Marc-en buru gainean ezarri zuen. Orduan Marc-ek, bere eskuaz, haren ilea, baina ez dagoeneko ile-puntak, burua bera, hain maite zuen buru hura laztandu zuen –eta orduan Amaiak, suabe-suabe, Marc-en besoa jaso, eta zegokion

tokian, beste besoaren ondoan, bere burutik urrun, ezarri zuen, eta Marc-ek konprenitu zuen, eta zerbait murdurikatuz, guztia amets bat izan balizko zerbait (eta izatez, halaxe izan zen) beste aldera jiratu zen...

Ustez handik ordu batzutara, berriz esnatu zenean, leihoskatik sartzen zen argi pirrintan, bere parean, enborra erdi zakutik kanpo, hankak berriz bere gain-gainean, Lorea zeukala ikusi zuen; eta atzean berriz, bere bizkarrari pega-pega eginda, Amaia zeukan...

Oso momentu gozoa izan zen. Amaiaren arnasa, bere lepoan, eta Lorearen soslaia, haren eskua, haren bularrak, erdi ikustatzen zirenak, eta hiruron usainak...

Berriz ere lokartu zen, eta berriz ere esnatu zenean, ganbaran bakarrik zegoen. Sukaldera jaitsi eta, besteak terrazan ikusi zituen. Eta bertan, terrazan, sukaldeko ateko kristaletan (barruko iluna zela-ta, ispilua egiten baitzuten) bere buruari begira, esku biez bere ile nahasiak ordenatzen, Amaia ikusi zuen; Amaiak ez zuen bera ikusten; eta Marc xarmaturik egon zen, haren edertasun beltx eta salbajeari begira.

Zer-edo-zer gosaldu eta gero, eguzkitan, Jonek jarri zuen musika entzuten egon ziren, goiz-belar pixka bat erretzen.

Marc eta Lorea, berriz ere elkarren ondoan, abuztuan zer egin behar zuten aritu ziren. Marc-ek lagun batzurekin, egun batzutarako Galiziara joateko asmoa zeukan. Loreari berriz, Bilbon lan bat atera zitzaion –ez zuen prezisatu...

Bederatzi urte igaro ziren.

Askotan gogoratu zen gau harekin. Geroztik Loreaz ez zuen ezertxo ere jakin, Amaia berriz ez zen hurrengo kurtsoan Institutura azaldu. Gero, handik urte pare batera-edo, komentarioa iritsi zitzaion, lagun artean baten batek esan zuen, ja-koarekin engantxatuta zegoela...

Hargatik, Ernesto Freire kaleko pub hartan, zerbeza bat edaten ari zela, barraz bestaldetik hurbildu zitzaiona Lorea zela ezagutu zuenean:

– Lorea... baizik ez zuen esan ahal izan.

Emakumea argalago, ezpainak eta begiak oso pintatuta baina, ile rubioa lehen bezala luze, eta orduan bezain bizi eta umoreko zegoen.

– Marc! esan zion Loreak. Zer egiten duzu hemen?

– Ikusten duzu... Marc-en begiek dizdiz egin zuten, triste antxeturik.

Bizitza ez zen berarekin ere portatu. Institutua eta gero, Gernikan osabak bere tailerrean hartu zuen; ezkondu egin zen, neska dotore batekin, gero hark utzi, bestalde tailerrean pedidoak eskastu egin zirela-ta kalean gelditu zen... Orain Barakaldon, erreparto-enpresa batean lan egiten zuen, eta Barakaldon bertan, alkilatuta zeukan gela txar batean bizi.

– Eta zu?

– Etorri, esan zion Loreak, bere eskuaz Marc-ena helduz, goian hitz egingo dugu.

Marc une batez esku luze, eder hari begira gelditu zen.

– Ez al zara...?

– Bueno bueno... Etorri, lasai!

Lorea barra barrenetik, Marc kanpotik, pubaren fondoraino heldu ziren. Besaulki gorriak, mahai borobil txiki batzuk zeuden han, hiru gizonezko hizketan. Erreserbatu batean, bi neska eta bi gizonezko barrezka ari ziren.

Ate batez hara, eskalera batzuk igo zituzten. Bertan eman zion Loreak albiste izugarria.

– Hauxe da ba, gure etxea eta lantokia. Biak batean, ez dago horren gaizki. Amaiak ere aldi batez... Jakin zenuen ezta? hil egin zela hura...

– Hil...! Ez; ez nekien ezer...

Etxean sartu ziren, pasiloan emakume mulato batekin topatu.

– Buenos días Rufi, esan zuen Loreak, cómo va eso?

– Hola cariño... esan zuen neska mulatoak, gela batera sartuz.

Loreak tresilo batean jarriarazi zuen, edateko zerbeza, edo nahi zuena, eskaini zion, baina Marc-ek ez zuen ezer nahi. Loreak hautsontzi bat hurbildu zuen, zigarriloak piztu zituzten...

– Orduan, ez zenekien ezer? Nola izaten diren gauzak... Orain dela bi urte, 94ko urtarrilean hil zen ba gaixoa. Oso luzea izan zen... Zuk ez zenuen ondo ezagutzen ezta? Ez zenekien bere historia.

«Txikitan abandonatua, monjek Mutrikun familia bat bilatu zioten. Suerte txarra izan zuen, hara. Aita alkoholikoa, ama ere desastre bat... Bera beti kalean... Eta kalean bortxatu zuten. Ez zenekien ezta? Ez zion inori esan-eta. Nabajare-

kin tipo batek... Kopetan bazuen-ba, zauri-zakar bat...? Hark egin zion.

»Nik geroxeago ezagutu nuen, Eibarrera, diskotekara etortzen zela-ta. Oso lagun egin ginen, gero beti biak elkarrekin joaten ginen edonora. Urte pare bat izan genuen... Orduan ezagutu zintudan...

»Uda hartan bertan, gaizki ez banago, Elgoibarko tipo batekin hasi zen. Hura ezkonduta zegoen baina, bazirudien oso maite zuela, pisu bat eskaini zion... Orduan Amaiak ikasketak utzi zituen, eta dena. Familiak eman ez zion afektua eskaini zion hark. Gero ikusi genuen, hark ofizioan erabili nahi zuela. Bere emaztea ere halaxe zerabilen-eta: dena deskubritu, kartzelara sartu –gero Basaurin, bere buruaz beste egingo zuen hark.

»Bitartean jakoarekin hasi zen. Amaiak gogorra ematen zuen, baina kristalezko bihotza zeukan. Oso bakarrik egon zen, oso gaizki pasa zuen.

»Baina, ja Mutrikura itzultzerik ez zuen: familiak ez zuen onartzen, herrian gaizki ikusita zegoen. Orduan nirekin, Bilbora etorri zen. Atzeko

gela horretan egoten zen bera. Baina berari honek nazka ematen zion, goiti egiteko gogoa! Eta kotxean zenbat aldiz, bost talegoren truke... Berak ez zuen inoiz asumitu.

»Dirua bagenuen baina, diruak sufrimentua ezkutatzeko besterik ez zuela balio, esaten zuen Amaiak. Eta min ematen zion, mixeri guzti honek...

»Tipo batek maite zuela sinistarazi zion. Harengatik utziko zuen ofizioa. Oso maite zuen. Baina kabroi hark: ‘Hil egingo zaitut, esaten zion, asfaltopean sartuko zaitut...’ Eta jo, ere bai. Ez ziren zeloak. Ez zen maitasunik. Kabroi aleena... Asko sufritu zuen, harekin. Horregatik gero esaten zuen ez zuela beste inor ere nahi. ‘Gure lanak daukan gauza on bakarra, esaten zidan, ez zarela putakume bakar batekin usteltzen...’

»Eta, beste honekin oso engantxatuta zegoen. Ja, gaixorik. Azkenean, harentzako ez ni, ez beste inor esistitzen ginen: bakar-bakarrik zegoen, produktuaren aurrean. Uzten zuen aste betez baina... gero berriz ere zulora. Nik ezin nion lagundu... Poliziarekin istiluak izan zituen,

pare bat aldiz atxilotu ere bai... Esaten zidan, ez zuela merezi...»

Loreak behatzarekin begi bakoitzetik malko bana xukatu zuen, rimela pixka bat korrituz. Marc-ek jaisten ari zen eskuari heldu, bere esku bien artean estutu zuen.

– Eta hemen gara...! esan zuen Loreak, hasperen bat eginez, ezpainak, hertsita, zimurtuz.

Pixka batean ixilik egon ziren; gero Marc-ek:

– Eta zu, esan zion, ondo ote zara?

Loreak irribarre melankoliko, samurra egin zuen.

– Ni bertokoa naiz, esan zuen. Gustatzen zait gaueko klima. Txiki-txikitatik... –bere eskua Marc-en eskuetatik askatuz, beste zigarrilo bat piztu zuen–. Zortzi urte nituela, amarekin Bilbora etorri, medikuagana, eta kalean puta bat ikusi nuen, eta: «Ni handia naizenean (esan nion amari) hori bezala ibiliko naiz...» Amak zaplasteko bat erantsi zidan...

Marc-ek ere irribarre egin zuen, neskarengan tinkatuz bere begi hezeak.

– Eta gero, esan zuen Loreak, baditut nire negozioak...

Ondoren bere berri galdetu zion Marc-i. Eta honek gain-gainetik kontatu zion: nola emazteak utzi zuen...

– Es la vida, esan zuen Loreak, bukatu zuenean.

– Pues sí, esan zuen Marc-ek.

Beste solas batzuk ibili zituzten. Gero, joateko garaian, berandu zela-ta:

– Baduzu nola joan...? esan zion Loreak. Bestela berton...

Ezetz, furgoneta kanpoan utzi zuela, esan zion Marc-ek.

Elkarrekin jaitsi ziren. Barran Loreak, tarjeta baten atzeko aldean zerbait idatzi zuen, gero eskuratu zion.

– Hots egidazu, esan zion, bazkaltzera joango gara, nahi baduzu...

Bihotzez ari zitzaion. Une hartan Marc-i zoragarria iruditu zitzaion. Eta eskua haren aurpegira eraman zuelarik, Loreak, bere burua pixka bat okertuz, onartu egin zuen laztana, intentsidade harrigarriaz...

Bera zihoala berriz, Lorea barran zen taju gaiztoko tipo batengana zihoala antzeman zuen.

– Anselmo qué hay de tu vida...

Erabat txokatuta gelditu zen Marc. Amaiaren historia trajikoagatik, eta Loreagatik beragatik ere.

Nola neskak gogoan zeukan, Andoainen elkarrekin pasatu zuten (eta berarentzat ere, hain espeziala izan zen) aspaldiko gau hura... Ez zuen espero.

Bat-batean, Lorearekin enamoratzen ari zela konturatu zen. Konturatu zen behintzat, harekin nahi zuela maitemindu. Edo behintzat, neskak zuen zerbait nahi zukeela harrapatu.

Amets eta gogorapenen artetik heldutako laguna, lagun ona, konfiantza osokoa, esan nahi baita, begirada soil batez maitasuna, eta beste mila gauza, adierazi ziezaiokeena.

Horretaz gain, haren eskuak, haren aurpegi luzanga, eta haren sinpatia, haren hizketa espontaneoa, haren romantizismo apurra, haren laxatasuna (imajinatzen zuen) maitasuna egin behar zenean...

Tarjetaren atzeko aldean, Loreak idatzi zion: «Etxekoa. 4110631».

Lainorik ez zen arratsalde batean hots egin zion.

– Bihar ordubitan, ondo? esan zion Loreak.

– Bertara?

– Kanpoan egongo naiz.

Eguerdian plazan, lore-sorta bat erosi zuen. Ez zekien egokia zen, ez zekien komeni zen, dena den detaile bat izan nahi zuen.

Ernesto Freire kalean sartu zenean, Lorea doble-filan zegoen kotxe txiki baten barruan ikusi zuen.

– Aupa, esan zion neskak, Marc-en aldeko atea irekita, eta gero: Mobida dago, esan zuen.

Marc-ek ikusi zuen, pareko espaloian aurrera-xeago aparkatuta zegoen kotxe batetik, bi tipo jaitsi, eta bazetozkiela ja. Loreak martxa sartu zuen eta, bat-batean arrankatuta, tipo haietako bat harrapatzeko zorian egon zen.

Marc-ek, atzera begiratuta, tipo haiek atzera beren kotxean sartu zirela ikusi zuen...

– Zein dira, ze...?

– Zipaioak! Amaiak esaten zuenez, esan zuen Loreak.

Bolantean maniobra izugarriak egiten zituen neskak. Gora, behera, berriz ere gora, bide estu batean sartu ziren, erdi-erdian ziren bidoi batzuren kontra jo eta mendi pista batean sartu ziren abailan. Parke-atrakzio bateko dibertsio bat zirudien, halako belozidadean zihoazen. Marc, lore-sortari esku biez eutsita, erabat ikaratuta zihoan.

– Gogoratzen al zara, esan zion Loreak barre eginez, emakume hartaz, bere eskopetarekin...

Errebuelta batean, pistatik atera eta larra pila baten kontra jo zuten. Kotxetik irtenda, polizia-kotxearen sirena aditu zuten. Orduan Loreak, eskutik heldu zion Marc-i eta, honek beste eskuan lore-sorta zeramala, biek gora jo zuten: airean gora, eguzkirantz, hegaldaka joan ziren...